



AKTAK

Topaketa: Feminismoak Garapenerako Agendan

Bilbon, 2010eko maiatzaren 27 eta 28an



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTETIKO LANIDETZETA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA



AKTAK

Topaketa: Feminismoak Garapenerako Agendan

Bilbon, 2010eko maiatzaren
27 eta 28an

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzari esker egin da. Argitalpenaren edukia HEGOAREN eta ACSUR-Las Segovias erakundearen erantzukizuna da, eta ez du zertan islatu Eusko Jaurlaritzaren eta AECIDen iritzia.

Laguntzailea:



Cedaceros 9, 3º izda • 28014 Madrid
Tel.: 91 429 16 61 • Faxa: 91 429 15 93
acsur@acsur.org
www.acsur.org

Proiektu hau kofinantzatu duten erakundeak:



Biltzaileak: Amaia del Río Martínez eta Marisa Sanz Moral

Argazkia: Javier González Álvarez

Argitaratzailea:



www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU
Zubiria Etxea eraikina
Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU
Villa Soroa
Ategorrieta, 22
20013 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU
Arabako Campus-eko Liburutegia, 138 kutxatila
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. • Faxa: 945 01 42 87
hegoagasteiz@ehu.es

Inprimaketa: Lankopi, S.A.
Itzulpena: Labayru Institutoa
Diseinua eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios, S.L.
Lege zenbakia: BI-1660/2011
ISBN: 978-84-89916-48-7



Aitortu-Ez komertziala-Lan Eratorririk Gabe 3.0 Generikoa Espainia

Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar ituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/>

Aurkibidea

Egileak	5
Aurkezpena	11
Sinergia feminista, emakumeen giza eskubideen alde Marcela Lagarde y de los Ríos	19
Zorrak eta krisia: hurbilketa feministak hegoaldetik Magdalena León T.	37
Ikuspegi feministak eta antikapitalistak krisiaren aurrean Sandra Ezquerri Samper	49
Emakume maiak: historia, oreka eta autonomia Carmen Álvarez Medrano	63
Emakumeak bake- eta gatazka-egoeretan: eztabaidarako gaiak Irantzu Mendia Azkue	73
Transfeminismoaren eragiletza, Ekuadorko prozesu konstituziogilean eta konstituzio ondoko prozesuan Elizabeth Vásquez Blasco	83
Herritarren mugak emakume etorkinentzat Silvia Carrizo Fernández	91
Herritartasuna eraikitzekeo feminismoa Begoña Zabala González	99
Emakumezkoen prestakuntza politikoa erdialdeko Amerikan. Merkatuarentzat edo arduratik abiatuta? Ana Felicia Torres Redondo	109
Gatazka armatuak emakumeen bizimoduan dituen kostu pentsaezinak. Kolonbiako kasua Norma Enríquez Riascos	125
Dirua desager dadin Julieta Paredes Carvajal	137
Ondorioak: Emakumeen Giza Eskubideen aldeko agenda politikoa	147



Egileak

MARCELA LAGARDE Y DE LOS RÍOS

Antropologian eta Soziologian katedraduna, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan. Hainbat sare feministatako parte-hartzailea eta kidea da, bai eta herritarren zein emakumezkoen giza eskubideen alde diharduten gobernu eta nazioarteko erakundeetako ere. Nazio Batuetako aholkularia da, emakumezkoen genero eta eskubideen auzietan. Foru diputatua izan zen Mexikoko Kongresuan, 2003-2006 Legegintzaldian, feminizidioak aztertzeke batzorde bereziaren presidente gisa. Berdintasunaren eta emakumezkoen eskubideen arloan egindako lanagatik hainbat bereizmen, aintzatespen, sari, meritu eta domina jaso ditu. Gainera, feminismoari buruzko hainbat liburu eta ehun artikulua baino gehiago idatzi ditu, besteak beste: *Los cautiverios de las mujeres: madresposas, monjas, putas, presas y locas*. UNAM, Mexiko, 1989, eta *Género y feminismo. Desarrollo humano y democracia*, Horas y horas argitaletxea, Madril, 1996.

MAGDALENA LEÓN T.

Ekonomialari feminista, Ekonomia Eraldatzen Latinoamerikako Emakumeen Sarearen (REMTE) eta Ikerketa, Ekintza eta Partaidetza Sozialerako Fundazioaren (FEDAEPS) kidea da. Américas Gizarte Foroaren Batzorde Hemisferikoaren Idazkaritzako eta Zorraren kontrako Talde Nazionalako koordinatzailea. Aholkularia izan zen bai Ekuadorko prozesu eragilean zein politika publikoen eta ekonomia sozial nahiz solidarioaren, lanaren, ekoizpenaren eta finantza subiranotasunaren gaineko araudiak definitzeko prozesuan. Gainera, Ekuadorko *Ondo Bizitzeko Plan Nazionala* 2009-2013 gauzatu duen taldearen kidea da, eta ekonomia solidarioarekin eta “Ondo Bizitzea” kontzeptuarekin erlazioatutako hainbat argitalpen idatzi ditu.

SANDRA EZQUERRA SAMPER

Amerikako Estatu Batuetako mugimendu feminista eta sindikaleko aktibista. Doktorego-tesia generoaren, ekonomiaren eta migrazioaren gainean egin zuen 2008an. Kapitalismoaren kontrako espazio politiko feminista baten sustatzailea da Bartzelonan, eta Fòrum Social Catalá eta la Comissió 8 de Març delakoan parte hartzen du. Halaber,

Pompeu Fabra Unibertsitateko Gizarte Mugimenduei buruzko Ikerketa Zentrok (CEMS) kidea da, mugimendu sozialei loturiko hainbat gairen gaineko ikerketarako, azterketarako eta hausnarketarako espazioa, mundu akademikoko eta gizarte mugimendu ezberdinetako aktibistek osatutakoa.

CARMEN ÁLVAREZ MEDRANO

Kitxe maia, deserrotuta gerraren kariatz. *Kaqla* Emakume Maien Taldeko kidea da. Emakumeek eta emakumeentzat eraikitako eta proiektatutako espazioa da, gizarte demokratikoagoa, bidezkoagoa eta guztiak aintzat hartzen dituen gizartea eraikitzen laguntzeko, eguneroko bizitza alda dadin. Lidergoak prestatzen eta emakume maien pentsamolde jakin bat sortzen lan egiten dute, eta, horretarako, historia, filosofia eta kultura etnikoaren eta ezagutza unibertsalen praktikak oinarritzat hartzen dituzte. Elkartea honen xedea da gizonezko, emakumezko, indigena eta latinoen harreman ekitatiiboak sendotzeko proposamenak eta ekarpenak egitea, aniztasuna eta herrien autodeterminazioa errespetatuz, betiere, naturarekin harmonian. Elkartea honek hainbat dokumentu argitaratu ditu. Orain dela gutxi (2004) *La palabra y el sentir de las Mujeres Mayas de Kaqla*, Oxfam Nethherlands, Guatemala, liburua eman zuen argitara; bertan, kultura, sexualitatea eta mundu-ikuskeraz bezalako gaiak jorratzen dira, ikuspuntu feminista eta etniko batetik eta tabuak alde batera utziz.

IRANTZU MENDIA AZKUE

Soziologian lizentziatua, Nazioarteko Laguntza Humanitarioko (Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea) eta Gatazken Ebazpeneko (Bake Ikerketen Saila, Bradford Unibertsitatea) graduondokoak ere baditu. Euskal Herriko Unibertsitateko HEGOA elkarteko ikertzailea (Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua) eta unibertsitate horretako Gizarte Laneko Eskolako irakaslea da. Emakumezkoen erakundeek gerra ondoko birgaitze prozesuetan duten papearren gaineko doktorego tesia egiten ari da, El Salvador eta Bosnia-Herzegovinako kasuak aztertuz. Halaber, generoari eta gatazkari buruzko hainbat argitalpen idatzi ditu. Beraren azken liburua honakoa da: *Género, rehabilitación posbélica y construcción de la paz. Aspectos teóricos y aproximación a la experiencia en El Salvador*, Hegoa, Bilbao, 2010.

ELIZABETH VÁSQUEZ BLASCO

Ekuadorren Transgenero Proiektuaren fundatzailea da, eta aliantza transfeminista, kulturen arteko elkarriketa eta "iraultza barrutik" ditu printzipiotzat. Trans identitatea Ekuadorren sendotzeko lan egiten dute estrategia sozial, politiko eta kulturalen bitartez, eskubide indibidual eta kolektiboaren galdagarritasun paralegalak eta judizialak aldarrikatuz. Patrulla Legal (2002), Transtango (2004) eta Casa Trans (2006) ekimenak sortu eta sustatu izan ditu. Hainbat berbaldi eman izan ditu: "identitateak elkarrizketan",

“transfeminismoa”, “aniztasun sexualari aplikatutako eskubidearen erabilera alternati-
boak”, “trans kulturartekotasuna” eta “azpian datzan simetria”, Transgenero proiektuak
nazio mailara kokatu dituen proposamen politiko eta juridikoak direnak. Diskrimina-
zioaren kontrako legea idatzi zuen pertsonetako bat da; Zigor Kodea erreformatu zuen
genero identitateagatiko gorroto hilketak zigortzeko (2000), eta lehen notario kontra-
tuak diseinatu zituen, Ekuadorreko sexu bereko bikoteen ondare-egoera arautzeko
(2005). Horretaz gain, Lesbiana, Gay, Bisexual, Transexual eta Intersexualei (LGBTI)
buruzko proposamenak diseinatu eta egokitu zituen sustatzaileetako bat izan zen,
Ekuadorko Batzar Nazional Konstituziogilean.

SILVIA CARRIZO FERNÁNDEZ

Kazetaria eta Malen Etxea Emakume Etorकिनен Elkarteko lan mahai iraunkorraren ki-
dea da. Latinoamerikako herrietatik datozen emakume langile atzerritarren eguneroko
harremanetik sortu zen, hain zuzen ere, 2001. urteaz geroztik Euskadira etorrikoak har-
tzeko. Elkartea topaketarako, hausnarketa feministarako eta emakume etorkinen arteko
laguntzarako espazioa da, bide berri bati ekin nahi baitiote euren errealitate berrian.
Hainbat argitalpen ditu, besteak beste: Gipuzkoan emakume etorkinek duten egoerari
buruzkoa, etorkinen eskubide politikoei buruzkoa, bertako emakumeen eta emakume
atzerritarren arteko generoaren baitako diferentziei buruzkoa eta etxeko zerbitzuan lan
egiten duten emakume etorkinek Euskal Herrian duten laneko egoerari buruzkoa.

BEGOÑA ZABALA GONZÁLEZ

Lizentziatua Zuzenbidean, Deustuko Unibertsitatean. Nafarroako Mugarik Gabe el-
karteko kidea da, bai eta Emakume Internazionalistak elkarte feminista eta nazioarteko-
aren kidea ere; azken hori erakunde feministen Estatuko koordinakundearen parte da.
Hainbat sentsibilizazio jarduera egiten ditu, hala nola, “Emakumeak eta Nazioartekota-
suna” izeneko urteko aste monografikoa, prestakuntza eta eztabaida ikastaro monogra-
fikoak, gai feministei buruzko hitzaldiak, txostenak eta erakusketa tematikoak, etab.
Genero ikuspegitik urtero Nafarroako Unibertsitate Publikoan lankidetzari buruz egi-
ten diren ikastaroetan irakasle gisa dihardu. Beraren azterlan eta artikuluek emakume-
en egoera, euren aldarrikapenak eta borroka feministak dituzte hizpide, batez ere, im-
migratioari, indarkeria sexistari eta prostituzioari dagokienez. Halaber, honako liburu
honen egilea ere bada: *Movimiento de Mujeres. Mujeres en Movimiento*, Txalaparta argi-
taletxea, Tafalla, 2008.

ANA FELICIA TORRES REDONDO

Herri-hezitzaile feminista, eskarmentu handia dauka emakumezkoen prestakuntza pro-
zesuetan. Ikerketa eta Argitalpen Zentroan (CEP) - Alforja lan egiten du, eta, gaur
egun, Emakumeen Protagonismoa Sendotzeko Programaren koordinatzailea da. CEP
delakoa Costa Ricako herri-hezkuntzarako zentroa da, eta 1980. urteko maiatzean

sortu zuten. Ekintza sozial, politiko eta hezkuntzazkoei lagundu nahi die, toki mailan zein nazio edo eskualde mailan garatzen direnei, hain zuzen ere, kultura eta praktika politiko berriak eraikitzeko. Emakumeen Protagonismoa Sendotzeko Programatik, hainbat prestakuntza ekintza garatzen ditu toki mailan zein maila nazionalean edo erdialdeko Amerikan, batez ere, herri-hezkuntzaren, ekonomia feministaren eta antolakuntza sendotzearen alorrean. Orain dela hamarkada bi baino gehiago egin zen aktibista feminista Costa Ricako eta erdialdeko Amerikako hainbat espaziotan. Gainera, Costa Ricako Liga Feminista Berria Alderdiaren presidentea da; halaber, “Erdialdeko amerikarrak erresistentzian, Bizitza Duin baten alde” espazioan koordinatzaile pedagogikoa ere bada.

NORMA ENRÍQUEZ RIASCOS

Soziologoa eta giza eskubideen defendatzailea da. Emakumeen Eskubideen Defentsarako Hego Amerikako eta Karibeko Eskualde Batzordearen (CLADEM) koordinatzailea. Batzordea orain dela 21 urte sortu zen, eta, gaur egun, 15 herritako esparru sozio-juridikoa dago. Hainbat esparrutan emakumeen giza eskubideen defentsaren eta galdagarritasunaren alde lan egiten du, Estatuak behatzeko estrategien eta auzi nazional eta nazioartekoen bitartez, bai eta elkartekideak prestakuntza juridiko politikoan heziz ere. 2009. urtean, Giza Eskubideen Espainiako Errege Saria eman zioten. Bakearen aldeko Gizarte Zibilaren Batzar Iraunkorraren Idazkaritza Exekutiboaren kidea da, bai eta Latinoamerikako mugimendu feministaren eta Kolonbiako bakearen aldeko mugimenduaren aktibista ere.

JULIETA PAREDES CARVAJAL

Emakume indigena aimara eta lesbiana. Pedagogoa, psikologoa, poeta, abeslaria, bideo-errealizadorea eta idazlea. 90eko hamarkadatik aurrera, Latinoamerikako mugimendu feministan aktibista moduan dabil. Beste emakume batzuekin batera, “Mujeres Creando” kolektiboa sortu zuen 1990. urtean. Txilen 1996. urtean egindako Topaketa Feministan parte hartu zuen, non erakundeetako feminismoa eta feminismo burujabea bereizi baitziren. Halaber, Soratako (Bolivia) Latioamerikako I. topaketa feminista autonomoaren antolakuntzan parte hartu zuen 1998an. Era berean, Komunitatea Sortzen Emakumeen Komunitatea sortu zuen 2002an, eta Feminismo Komunitarioaren gaineko Batzarrak sortu zituen, Boliviako borroka-espazio ezberdinetakoak ziren emakume feministen kolektiboak koordinatzeko. Batzar horietan, Evo Moralesen gobernuko emakumei zuzenduriko politika publikoen testuinguru kontzeptuala eratu zuten, eta osoko bilkuran onartu zuten 2007an. Gainera, hainbat liburu eta artikulu idatzi ditu, sexualitatearen, teoria feministaren eta metodologia feministen gainean. Beraren azken argitalpenaren izenburua honakoa da: *Hilando Fino*, CEDEC, La Paz, 2008.



Aurkezpena



Argitalpen honek “Feminismoak garapenerako agendan” izeneko Topaketaren hitzaldiak eta ondorioak biltzen ditu. Topaketa 2010eko maiatzaren 27an eta 28an egin zen, Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean, hain zuzen ere, “*Generoa Garapenerako Hezkuntzan: Iparraren eta Hegoaren arteko eztabaidarako gaiak, emakumeen agenda politikorako*” proiektuaren baitan; HEGOA eta ACSUR-Las Segovias (Madril) elkarrekin garatu dute eta Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzak Zuzendaritzak eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak finantzatu dute.

Aipatutako Topaketa 2007. urtean abiarazitako lanaren amaiera da; izan ere, lan horretatik abiatuta, hausnarketa eta sentsibilizazio espazio bat sustatu zen eragile ezberdinen artean (GGKEak, emakumeen eta mugimendu feministen erakundeak, unibertsitateak, etab.), emakumeen emantzipazioan aurrerapausoak eman eta emakumeentzako zein gizonentzako bestelako garapen eredu kolektiboa eraikitzeko.

Topaketaren helburuetako bat emakumeen Giza Eskubideen aldeko agenda politikoa egitea izan zen; hala, bada, eragile ezberdinen artean banatu zen (unibertsitatean, herri-administrazioetako langile tekniko eta politikoen artean, Eusko Legebiltzarrean eta Madrilgo Diputatuen Kongresuan), proposamen feministetatik abiatuta eragin politikoa izango zuen tresna gisa, *Aldarrikapen feministak hiritartasun eraldatzaile baterako* argitalpenaren bitartez. Delako agenda politikoa orain aurkezten dugun argitalpenean ere jasotzen diren ondorioak dira.

Helburuak

Topaketa honetarako, honako lau helburuak definitu ziren:

- Elkarriketarako eta trukerako espazioa eratzea, pentsamolde feminista eta emakumezko kolektibo ezberdinek izandako gizarte bazterkeriaren eta mendekotasunaren aldaketa ikustea ahalbidetu dituzten esperientzia onak zabaltzeko, giza garapenaren proposamena hobetzen laguntzen duten aldetik.
- Agenda politikoa gauzatzea. Gai kritiko feministak antzematea, globalizazioaren eta zibilizazio krisiaren (ekologikoa, zaintzakoa, demografikoa, balioetakoa, finantzariora, etab.) testuinguruan.
- GGKEen eta Iparreko eta Hegoaldeko Mugimendu Feministen artean itunak sinatzea, giza garapen ekitatibo baten alde. Hori guztiori, jakina, genero ikuspegia aintzat hartuz.
- Elkartasun eta lankidetzeta mugimenduetan agenda feministarekin bat datorren berbaldia eta praktika kritikoa eratzea; horretarako, mundu biei deitzen zaie, eztabaidarako espazio bateratu batean parte hartu dezaten.

Batzorde antolatzailea

Proiektua garatu den bitartean, hainbat batzar egin dira Topaketaren edukiak, egitura, metodologia eta gainerako alderdi logistikoak zehazteko, ondoren aipatzen diren diziplina ezberdinetako hainbat pertsonak osatutako taldearekin:

- Yolanda Jubeto Ruiz (Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU)
- Sandra Dema Moreno (Oviedoko Unibertsitatea)
- Begoña Zabala González (Emakume Internazionalistak)
- Inmaculada Cabello Ruiz (Gatazka Guneetako Emakumeak)
- Silvia Carrizo Fernández (Malen Etxea, Emakume Etorrinen Elkarte)
- Justa Montero Corominas (Madrilgo Batzar Feminista)
- Mertxe Larrañaga Sarriegui (Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU)
- Silvia de Gregorio Echevarría (Euskadiko GGKEen koordinatzailea)
- Eli Padiál García (Andaluziako GGKEen koordinatzailea)
- Laura Nuño Gómez (ACSUR-Las Segovias eta Rey Juan Carlos Unibertsitatea)
- Miguel Ángel Cano Ulanga (Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunari buruzko Masterra: UPV/EHUko Berdintasun Eragileak)
- Aitziber Eguskiza Samos (HEGOA)
- Marisa Sanz Moral (HEGOA)
- Amaia del Río Martínez (HEGOA)
- Rocío Lleó Fernández (ACSUR-Las Segovias)
- Chus González García (ACSUR-Las Segovias)

Egitaraua

Osteguna, maiatzak 27

09:00 Akreditazioa eta material banaketa

09:30 Inaugurazioa

Elisa Nieto, AECIDeko Genero Dibisioko burua

Itziar Arratibel, Eusko Jaurlaritzako Lankidetzazuzendaritzako Talde Teknikoa

Jasone Astola, UPV/EHUko Berdintasun zuzendaria

Magali Thill, ACSUR-Las Segovias elkarteko zuzendaria

Luis Guridi, HEGOAKo zuzendaria

10:00 Txostena

Hizlaria:

Marcela Lagarde y de los Ríos. Antropologoa eta Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko katedraduna

Sinergia feminista por los derechos humanos de las mujeres

11:30 Atsedenaldira-Kafea

12:00 **1. panel tematikoa: Emakumeen eskubide ekonomikoak. Denborak, lanak eta baliabideak behar bezala banatzearen alde**

Hizlariak:

Magdalena León T. Ekonomia Eraldatzeko Emakumeen Sare Latinoamerikarra (REMTE), Ekuador

Zorrak eta krisiak: alternatiba feministak hegaldetik

Sandra Ezquerria Samper. Mugimendu Sozialen gaineko Ikerketa Zentroa (CEMS), Bartzelona

Ikuspegi feministak eta kapitalismoaren aurkako ikuspegiak krisiaren aurrean

Moderatzailea: **Sandra Dema Moreno.** Oviedoko Unibertsitatea

14:00 Bazkaria

16:00 **2. panel tematikoa: Emakumeak gatazka egoeretan. Emakumeak subjektu politiko gisa**

Hizlariak:

Carmen Álvarez Medrano. Kaqlak Emakume Maien Taldea, Guatemala

Emakume maiak: memoria, berreskurapena eta burujabetasuna Eztabaidarako gaiak

Irantzu Mendia Azkue. HEGOAKo (Bilbo) ikertzailea

Las mujeres ante el conflicto y la paz. Temas para el debate

Moderatzailea: **Inma Cabello Ruiz.** Emakumeak gatazka egoeretan (MZC), Kordoba

18:20 Clownklusioak, Virginia Imazen eskutik

18:35 Jardunaldiaren itxiera

Oostirala, maiatzak 28

09:00 **3. panel tematikoa: Emakumeen eragin politikoa eta herritarren partaidetza.**
Hiritartasuna eraikitzea: presentzia eta ordezkaritza

Hizlariak:

Elizabeth Vásquez Blasco. Transgenero proiektua, Ekuador
Transfeminismoaren eragiletza, Ekuadorko Biltzar Konstituziogilean zehar eta ondoren

Silvia Carrizo Fernández. Malen Etxea. Emakume immigranteen elkarte, Gipuzkoa

Herritartasunaren mugak emakume immigranteentzat

Begoña Zabala González Emakume Internazionalistak, Iruñea
Herritartasuna eratzen duten politika feministak

Moderatzailea: **Laura Nuño Gómez.** ACSUR-Las Segovias elkarteko idazkaria

11:15 Atsedenaldea-Kafea

12:00 **Aldi bereko lan-taldeak**

1. Emakumeen eskubide ekonomikoak
2. Emakumeak gatazka egoeretan
3. Emakumeen eragin politikoa eta herritarren partaidetza

14:00 Bazkaria

16:00 **Hegoaldeko esperientziei buruzko mahai-ingurua**

Emakumeen eskubide ekonomikoei buruzko esperientzia

Hizlaria:

Ana Felicia Torres Redondo. CEP-Alforja, Costa Rica
Emakumeen prestakuntza politikoa erdialdeko Amerikan. Merkatuarentzat edo arduratik abiatuta?

Gatazka egoeretako emakumei buruzko esperientzia

Hizlaria:

Norma Enríquez Riascos. Emakumeen Eskubideen Defentsarako Latinoamerikako eta Karibeko Batzordea (CLADEM), Kolonbia
Gatazka armatuak emakumeen bizimoduan dituen kostu pentsaezinak. Kolonbiako kasua

Emakumeen eragin politikoiari eta partaidetza herritarrari buruzko esperientzia

Hizlaria:

Julieta Paredes Carvajal. Komunitatea Sortzen Emakumeen Komunitatea, Bolivia

Dirua desagerrarazteko. Nazioarteko lankidetzan moneta desagerraraztea

Moderatzailea: **Gema Celorio Díaz.** HEGOA

17:45 Ondorioak**Justa Montero Corominas**, Madrilgo Batzorde Feminista**Rocío Lleó Fernández**, ACSUR-Las Segovias**Sarai Martín**, HEGOA

18:15 Clownklusioak, Oihulari Klown antzerki taldearen eskutik.

18:30 Amaiera

Yolanda Jubeto Ruiz, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)**Amaia del Río Martínez**, HEGOA**Metodologia**

Topaketa hau hausnarketarako eta lan bateratua egiteko espazioa izateko asmoarekin sortu da, agenda politiko bat eratzearen. Gisa horretan, hainbat aldarrikapen feminista egin dira egungo globalizazio eta krisi zibilaren testuinguruan, ondoren esparru ezberdinetan eragin prozesu bat abiarazi eta garatu ahal izateko. Asmo horrekin, eztabaidarako denbora jakin batzuk ezarri ziren batzarren ostean, bai eta taldekako lanerako espazio bat sortu ere, emakumeen giza eskubideei buruz eztabaidan aritzeko eta aldarrikapen erako zenbait adostasunetara heltzeko.

Txostenak

Berbaldiak eta proposamenak elikatu zituzten zortzi txosten aurkeztu ziren, hegotik iparrera eta iparretik hegora, garapenerako agenda politiko feminista baten oinarriak finkatzeko. Inaugurazio ofizialaren ostean, lehen hitzaldia egin zen, emakumeen giza eskubideak aintzat hartuz. Gainera, emakumeen eskubide ekonomikoei buruzko bi jakinarazpen egin ziren, bai eta panel tematikori atxikitako beste bi ere, gatazka egoeran dauden emakumei buruz, hain zuzen ere. Bigarren egunean, hiru erakusketek emakumeen eragin politikoari eta herritarren partaidetzari buruzko panela osatu zuten. Eskuhartze orok izan zuen galderak egiteko eta eztabaidan aritzeko denbora. Halarik ere, eztabaida ez zen bertan bukatzen, izan ere, ardatz tematiko bakoitzeko hitzaldi gehienek burutzeke uzten zituzten agenda politikoa adosteko zenbait puntu, hain zuzen ere, ondoren, lan-taldeetan, hausnartu eta sakondu zirenak.

Aldi bereko lan-taldeak

Lan-taldeak bigarren egunean egin ziren, eta honako gaien ingurukoak izan ziren: emakumeen eskubide ekonomikoak, gatazka egoeran dauden emakumeak, eta emakumeen partaidetza herritarra eta eragin politikoa. Arestian esan dugun legez, lan-taldeen helburua garapenerako agenda politiko feminista baten oinarriak azkentzea zen.

Talde bakoitzean, gaian aditua zen pertsona batek lana behar bezala egitea ahalbidetu zuen, dinamika, baliabide eta estrategia parte-hartzaileen bitartez. Halaber, taldeetan sortutako ideia eta eskari guztiak jaso zituen pertsona bat ere egon zen, Topaketako ondorioetara eramateko.

Hegoaldeko esperientzien mahaia

Bigarren eguneko arratsaldean garatu zen espazio hau, non hegoaldeko hiru esperientzia aurkeztu baitziren, hain zuzen ere, praktika eraldatzaile ontzat hartu zirenak. Esperientziak agerikoak egiten saiatu ziren, euren lorpen eta zailtasun nagusienak ezagutzera emanez, izan ere, prozesu eraldatzailea ekarri izan dute ardatz tematiko hauetara. Hizlariak hitzaldia egin zuten, eta, horren ondoren, galderak egiteko eta azalpen osagarrietarako denbora egon zen.

Topaketari amaiera emateko, lehen ondorioak aurkeztu ziren eta emakumeen giza eskubideen aldeko Agenda politikoa sortzeko testuari eman zitzaion bide, hain justu, *Aldarrikapen feministak hiritartasun eraldetzaile baterako* argitalpenean ondoren jasotakoa.

Balantzea

Topaketan 200 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte, gehienak emakumeak. Horietako askok modu indibidualean egin zuten, baina beste batzuk GGKE, Espainiako Estatuko eta Latinoamerikako emakumeen elkarte eta mugimendu feminista, herri administrazioetako teknikari eta politikari, unibertsitateetako ikasle eta irakasle, garapenerako lankidetzak eta berdintasun arloetako elkarte eta enpresa, alderdi politiko eta abarren ordezkari gisa joan ziren. Datu horrek Topaketaren espazio ezberdinetan egindako proposamenen aniztasuna, dibertsitatea eta metaketak islatzen du; izan ere, une oro, ezagutza partekatua eta informazio nahiz esperientzien trukeen bitartez indarrak batzeko asmo tinkoa erakutsi zen.

Une oro azpimarratu zen aliantzak, trukeak eta planetako leku bateko nahiz besteko erakunde eta mugimendu sozialak biltzen dituzten sareak sendotzeak duen garrantzia, gaitasun eraldatzaile handiagoa duen herria sendotzeko. mugimendu sozialen –batez ere, mugimendu feministaren protagonismoarekin– eta lankidetzako eragile tradizionalen arteko komunikazioa berebiziko faktorea da proposamen alternatiboak sendotzeko. Alderdi teorikoan, berbaldiak bateratzeko beharra dago, baina, batez ere, alderdi praktikoan, lankidetzak bateratzekoa. Modu horretan, ahaleginak uztartu daitezke ekintza politiko bateratua lortzeko, emakumeen giza eskubideen alde.

Azkenik, Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziari eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziari gure eskerrik beroenak emanez eman nahi diogu amaiera aurkezpen honi, *Generoa Garapenerako Hezkuntzan: Iparraren eta Hegoaren arteko eztabaidarako gaiak, emakumeen agenda politikorako* proiektua gauzatzeko emandako finantziazioagatik. Eskerrak, halaber, parte hartu zuten hizlariari, antolakuntza batzordeari, erakundeei eta pertsonari, hitzaldietan eta lan-taldeetan egindako lan tinko eta bikainagatik. Horiek gabe, Topaketa honek ez luke zentzurik izango.



Sinergia feminista, emakumeen
giza eskubideen alde

Marcela Lagarde y de los Ríos



“Ordena da demokrazia. Posible izateaz gain, betebehar ere badaç pertsona izatea demokrazian”.

(María Zambrano, 1958)¹

Sinergia (grezierazko “synergia” hitzetik dator; kooperazioa) **1** iz. fisiol. Funtzio bat betetzeko hainbat organo elkartzea. **2**. Funtzio edota eginkizun bat betetzeko asmoz bata bestea osatuz edo sustatuz elkarlanean diharduten gauzen edota pertsonen ekintza koordinatua.

Artikulazio 1 iz. Artikulatzeko ekintza. **2**. Bi gauza, bi pieza, tresna bat edo organismo baten lotunea, horien artean nolabaiteko mugimendua egoteko aukera ematen duena. **Artikulatu 1** du ad. Bi gauza edo gehiago lotu, horietako bati edo bat baino gehiagori lotunearen inguruan bueltak emateko aukera emanaz.

(María Moliner, 2006)

Bete-beteen asmatu duzue emakumeen giza eskubideak xede feminista topaketa honen gai nagusizat bat hartuta. Hainbat herrialdetan zenbait gizarte-eragilek, estatuk eta nazioarteko erakundeek sustatutako hainbat feminismoren egungo egoeraren adibidea ekarri duzue. Hainbat herrialdetan emakumeen giza eskubideak ez dira existitzen edo, baldin badaude,

¹ Zambrano, M. (1996): *Persona y democracia*. Madrid, Siruela.

etenik gabe hausten dira. Herrialde horietako emakumeak, beraz, irrikan daude beren eskubideak betetzeko. XXI. mendean, giza eskubideak bermatuta izan nahi ditugu emakumeak.

Gizarteak emakumeen giza eskubideekin bat egin dezala lortzen badugu; eskubide horiek behar dituzten berrikuntza juridikoak sustatzen baditugu; ekonomian egiturazko aldaketak eragiten baditugu; eta ekonomia liberal nahiz harraparia bazter utzi eta, haren lekuan, elkartasunezko ekonomiaz edo ekonomia moralaz baliatzen bagara, eskubide formal eta isolatuak eskubide aktibo eta praktikoko bihurtuko dira, eta eguneroko gure bizitzan eragina izango dute. Emakumezko zein gizonezko elkarlanean ari daitezela lortzen badugu, generoen arteko harremana aldatuko dugu. Hori lortzeko, ordea, ezinbestekoa da hierarkiak, desberdintasunak eta diskriminazioak ezabatzea. Horixe da, hitz bitan, feminista guztion egitekoa. Horiek ezabatuz gero, gizartea zuzen gara dadila sustatuko dugu, baita demokrazia sozial, politiko eta juridikoa suspertu ere. Demokrazia horren helburu nagusiak hauek izango dira: desberdintasunak ezabatzea; milaka pertsona eta haien gizataldeak miseria gorrian bizi daitezela galaraztea; eta errotik aldatzea indarkeria, zigorrik, ziurtasunik nahiz justiziarik eza nagusi diren bizitza sozialaren funtsa.

Sinergian bildu behar ditugu gure indarrak, hau da, gizartea nahiz ekonomia etikoki eta berdintasunez garatzeko elkartu behar gara. Ongizatearekin eta bizimodu onarekin konpromisoa hartua izan behar du garapen horrek, bai eta benetako demokrazia zabal, parte-hartzaile, anitz eta dialogikoarekin ere.

Garapenaren eta demokraziaren arteko sinergia ez da bide magikoa, feminista baizik; gaur egun pairatzen ditugun kalte handiak gainditzeko bide feminista. Hizpide dugun giza garapena iraunkorra eta begirunetsua izango da; ez, ordea, harraparia. Haren bidez pertsonak, komunitateak, gizarte-ingurunea nahiz ingurumena, eta uki daitekeen nahiz ezin uki daitekeen kultura-ondarea sustatuko dira. Aniztasuna eta mugarik jartzen ez duen berezitasunak zainduko ditu giza garapenak; eta pobrezia, miseria gorria, desberdintasunak, bazterkeriak eta indarkeriak gainditzeko konpromisoa hartuko du. Desio ditugun hego nahiz iparraldeak eta bizi nahi ditugun bizitzak garatuko ditugu. Bi eratako herrialdeak daude: batetik, beharren asebetetze-maila nahiz garapen teknologiko handia duten herrialdeak; eta, bestetik, oraindik espoliazioa jasateagatik oinarritzko beharrak beteta ez dituzten eta herrialde garatuene mende dauden herrialdeak. Mintzagai dugun garapenaren eraginez, beraz, elkartasunean eta kooperazioan oinarrituko dira bi herrialde mota horien arteko harremanak.

Mexikon, emakumeen kontrako prozesu zitelen izenpea du sasoi honek. Generoaren aldetik, sistematikoki hausten ari dira emakumeen giza eskubideak. Horrez gain, mugimendu eta xede feministen nahiz demokraziaren aldeko mugimendu nahiz xedeen indar metatuek ere arrastoak utzi dituzte. Batari zein besteari esker, emakumeak aldatu eta Estatuko gizarte-itun berriaren *alderdi* bihurtu dira. Ingurune erdeinagarri horretan parte hartzean, emakumeek beren bizitza aldatzen dute, eta beren bizitzako subjektu bihurtzen dira *beren baitan*.

XXI. mendean, gatazkak sortu dira emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokaren eta emakumeek ondoko alor hauetan dituzten eskubideen artean: hezkuntza, sexua, osasuna, ekonomia, herritartasuna, politika eta kultura. Beraz, generoen arteko gatazkak ezabatu ahal izateko, eskubideak etenik gabe handitu beharko dira, eskubideok bizikidetzeta eta, ondorioz, gizarte ongizatea ekartzen baitute. Zenbaitek, hala ere, eskubide horiek aitortzeari uko egiten diote behin eta berriz. Munduko nahiz tokian tokiko esfera politikoa barrendu dira emakumeen eskubideak ezabatzeko eta, hortaz, generoen arteko hierarkiak eta desberdintasunak mantentzeko ahaleginak. XX. mendera arte genero-kontuetan goitik beherako aldaketak egin dituzten herrialde garauek ere gertatzen da aipatu berri dugun hori.

Garapenaren aldeko Nazio Batuen Programaren (GNBP), Emakumeen Garapenerako Nazio Batuen Funtzaren (UNIFEM), eta Nazio Batuen beste erakunde batzuen arabera, emakumeen eskubideak urratu egiten dira; hainbeste urratu ere, non herrialde batean ere ez diren emakumeak eta gizonezkoak berdintasunez tratatzen. Are gehiago, herrialde askotan emakumeei ez zaizkie aitortu zenbait eskubide isolatu, mugatu eta murriztu; beste askotan, aldiz, eskatu egin ere ezin ditzakete eskubide horiek.

Herrialde gehienetan, bestalde, emakume batzuek ez dituzte besteen eskubide berak, eta, horrez gain, ez dira baldintza beretan bizi: emakume batzuek genero-eskubideak eta aukerak dituzte; herrialde berean, aitzitik, beste emakume batzuek ez dute genero-eskubiderik edo aukerarik, beren jatorriagatik, klaseagatik edo kultur nortasunagatik. Egitate horrek erakusten du genero-diskriminazioak, desberdintasunak eta emakumeen berdintasuna eta garapena lortzeko eskubideak nahiz bideak hierarkikoak direla tokian toki. Egiak, genero-geografia existitzen dela esan daiteke. Migrazioen, atzerriarren eta legezketasun-egoeraren eraginez, gainera, geografia hori dinamikoa da.

Emakumeek ez dute modurik ez eskubiderik herriko bizitza formal eta substantiboan parte hartzeko. Horrez gain, ahalmen patriarkalek nahiz arlo guztietako ahalmenek murriztu egiten dituzte emakumeen eskubideak. Emakumeek eskubideak dituzten leku horietan, ahalmen historikoak egin behar izan dira emakumeen eskubideei eusteko, bai eta borondate politikoa jarri eta genero-kontratu sozial berriak egin ere.

Ikuspegi feministatik, ordea, emakume guztien giza eskubideak aitortu daitezkeen lortu nahi dugu pixkanaka-pixkanaka. Emakumeen eskubideak unibertsalak, integralak, zatiezinak eta besterenezinak izan daitezela. Horixe gure borroka. Aniztasuna.

Gero eta handiagoa da emakumeen eta gizonen arteko aldea. Gero eta handiagoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sexual eta ohiturazkoa. Puri-puriko hizkera erabilia, neoliberalismoa egiturazko krisialdian dela esaten digute botere patriarkalek, eta, ondorioz, desberdintasun horiek gaindiezinak direla. Nahiak baldintzatzaile metafisiko bihurtuta. Alor guztietan urratzen dira emakumeen duintasuna eta integritatea: bizitza pribatuan; esparru nahiz jarduera publikoetan; ikasketen arloan; arlo zibilean, politikoa, kulturean eta artistikoa.

Oro har, indarkeria gatazka armatuetan eta gudatan baino gertatzen ez dela uste da. Hala ere, bakean eta garapen bidean diren herrialdeetan ere emakume izate hutsagatik genero-indarkeria, hau da, indarkeria misoginoa pairatzen dute emakume askok.

Nire herrialdean, Mexikon, Chihuahuko Ciudad Juárez hiria hiru hamarkadatik hona *feminizidioagatik* ezagun da munduan. Are, jendeak ez daki –eta hedabideek ez dute horren berririk eman– *feminizidioa* ez dela soilik Ciudad Juárezen jazo, Mexikoko beste hiri batzuetan ere gertatzen baita. Emakume-hilketen tasa neurtu zeneko urtean, 6.a zen Chihuahua; Nayarit, Guerrero, Oaxaca eta Chiapas hirien gibeletik. Urte hartan, hilketa errudunen Chihuahuko tasa Distritu Federalaren bestekoa izan zen². Esan gabe doa tasa hori izugarri handia dela Mexiko estatuan nahiz Morelosten.

Jendeak ez daki, ezta ere, emakumeok egituraz jasan behar dugun era askotako indarkeria mendiaren tontorra besterik ez dela *feminizidioa*. Ikuspegi feministatik so, desberdintasunen eta menperatzearen gatazka eta kontraesanen eraginez sortzen dira indarkeriak. Ikuspegi feministatik, bidenabar, ondoko alderdi hauek aztertzen dira: pertsonen adina, generoa, klasea, nazionalitatea, gizabidea, legezketasuna, gaitasunak, eremua (landa, hiria, hiriburua, muga, herria), lurralde-atxikipena (sedentarioa edo migratzaila), ideologia, erlijioa, politika, estetika eta artea. Aztertzen dira, baita ere, gizarte eta kultura antolatze ordenak edo amarruak.

Ikuspegi feministatik aztertzen da, baita ere, emakume nahiz gizonen jokabidea zer egoeratan gertatu den: bakealdian, gatazkan, krisialdian, aurrerakuntza ekonomikoaren garaian, zuzenbide-estatuan, zuzenbide-estaturik ez denean, benetako botereak nagusi diren aroan, kultura gutxien ari den garaian, aurrerakuntza- eta subiranotasun-sasoian, edo ondasun- ala pobretasun-aldian. Aztertzen da, baita ere, pertsonak eta haien munduek aukerarik duten edo, aitzitik, bideraezinak diren –orain gutxi arte Haitin gertatu bezalaxe–. Ikuspegi feminista aplikatu ahal izateko, egiturazko aldaketak gauzatu behar dira. Horretarako, ohitura, harreman eta baldintza sozial nahiz kulturalak hartu behar dira kontuan.

Etenik gabeko desberdintasunaren estalkia

Gure sen onean, badira “desberdintasun immanentearen estalkia” sortzen duten zenbait interpretazio ideologiko. Interpretazio horien arabera, genero-desberdintasuna ezin daiteke aldatu, haren jatorria biologikoa, naturala edo jainkotiarra delako. Badira, baita ere, emakumeen kontrako indarkeria, desberdintasuna eta diskriminazioa onartzen duten pertsonak. Jokabide horrekin bat ez datozen beste batzuek, hizpide dugun erotasunaren izatasuna naturala edo jainkotiarra dela aitzakia harturik, gauzak ezin alda ditzaketela diote.

² *Investigación diagnóstica sobre la violencia feminicida en la República Mexicana*. Mexikoko *feminizidioekin* lotura duten ikerketak jarraitzeko eta ezagutzeko Batzorde Berezia. Diputatuen Ganbera. LIX. legegintzaldia (14 liburuki). Mexiko. 2006.

Soilik emakume batzuk desberdintasun-egoeran daudela uste da lanaren, ekonomiaren, politikaren eta ikasketen zenbait alorretan. Indarkeria eta diskriminazioa emakume gutxi batzuek baino ez dutela jasaten uste da, adibidez: emakume txiroek, migratzaileek, nekazariak, baztertuek, ageriko ezgaitasunak dituzten ezinduek, ezjakinek, heziga-beek, langile sexual –edo, are okerrago, sexu-zerbitzari– deritzenek, salerosketaren bik-timek, preso dauden emakumeek, edo emakume indigenek. Hau da, emakume eta gizon gehienek ez dute generoari buruzko iritzirik modernorik buruan.

Berdintasunaren estalkia

Zenbait emakumek besteek baino bizi-baldintza hobeak dituzte, eta, ondorioz, nola-baiteko herritartasuna eta zenbait eskubide nahiz askatasun dituzte. Emakume langileei, merkatariei eta akademikoei buruz ari gara. Azken multzo horren barruan leudeke, besteak beste, ikasleak, irakasleak, ikertzaileak, politikariak, militanteak, eta abar. Emakume horien artean ideologia berri bat sortu da. Emakume horiek ekoiztailetzat dute beraien burua, gizonetzkoen eremuan dihardutela uste dute. Jakin badakite emakume izate hutsagatik hainbat oztopo gainditu beharko dituztela. Hala ere, ikastetxean nahiz lan-munduan sartu ahal izateko lehian aritu behar izan direnez, desabantailan ez daudela uste dute egiazki; uste dute ekinaren ekinez irabazi dutela beraien postua, eta ziur dira ahalegindu ez direlako ez daudela edo ezin dutela egon gainerako emakumeek haien egoera berean.

Uste dute, baita ere, emakume nahiz gizon berdinak direla, nahiz eta haien arteko desberdintasuna gizartean, ekonomian eta politikan agerikoa izan. Gizartearen errealitatearekin, historiarekin eta norberaren bizipenekin nahasten dituzte mitoen, ideologiaren eta arauen printzipio moral eta etikoak. Diskriminaziorik jasan ez dutela eta beraien merituengatik aurrera egin dutela zin egingo dute emakume horietako askok. Arrakasta izandako zenbait emakumek berezitat dute beraien burua, eta *berezko beren identitatea* sortu dute. Horren adibideak aurki ditzakegu arlo politikoan, sindikalean, lan-arloan, partiduetan, herrian eta gobernuan.

Eremu horietan guztietan, hain zuzen ere, emakumeok gutxiengo gara eta desberdintasuna nahiz diskriminazioa pairatzen dugu. Beste arlo batzuetan, aldiz, gehiengo bagara ere, gutxiengo politikoa dugu. Zenbait esparru publikotan, ordea, emakumezkoak sartu eta generoak nahastu dira. Egitate hori kontrara interpretatu izan da, hau da, emakumeok nagusi garela (gizonezkoek eta bareien erakundeek egin bezalaxe). Emakumeek eskuratutako zeinahi ahalmen magnifikatu, orokortu eta matriarkatuaren probatza hartu da. Misoginia usaina har dakieke politikari, hitzaldiei, interpretazioei, notiziei, arteari, eguneroko gure bizipenei eta kontzientziari. Baita legeei ere.

Aurreko batean, ondoko galdera hau bota nien hainbat diputaturi: uste al duzue loturarik dagoela Mexikoko *feminizidioaren* eta soilik diputatuen %22 emakumezko izatearen artean? (diputatuen %78 gizonetzkoak dira). Itaundutako gehienek iritziz, generodesberdintasunak –jasaten duten desberdintasunen artean beste bat besterik ez– ez du

inolako ondoriorik emakumeen eragin politikoaren gain, ez eta herrialdeko beste emakumeen bizitzaren gain, edo beste emakumeek bizi duten egoeraren gain ere. Diputatu emakumezkoek erakunde autonomotzat dute beraien burua, eta uste dute genero-arrazoiengatik diskriminaziorik jasaten ez dutela.

Beste horrenbeste gertatzen da ikasleekin, irakasleekin eta ikertzaileekin. Azken horiek emakume eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa dela uste dute, edo, desberdintasunik egonez gero, horiek naturalak, sortuak edo ebolutiboak direla.

Emakume horietako askok ez dute ikusten emakumezkoen eskubideak bultzatzeko beharra. Bere garaian, zenbait baldintza eskatu eta sortu zituzten hainbat herri-mugimenduk: emakumeak hezteko, soldatapean lan egiteko eta emakumeek politikan parte hartzeko –lehenik, bozkatzeko eskubidearen bidez eta, ondoren, kargu publikoetarako hautagai izateko aukeraren bidez–. Lehen aipatutako emakume horiek ez dira emakumeen eta feministen herri-mugimenduen parte sentitzen, nahiz eta mugimendu horiek gabe ez luketen iristerik izango egun dauden lekura.

Gizon gehienek axolagabekeriak hartzen dituzte emakumeak, betiere, lehiakide ez badi-tuzte. Emakumezkoen menpekotasun tradizionala kargu publikoetara ekarri dute, genero-hierarkia nabarmena baitago.

Bizitza pribatuan, emakume berdintsuak³ (Amorós 1997) elkar trukatu eta ordezkatu daitezkeela uste dute bai gizonezko kontserbadoreek, bai progresistek, bai ezkerrekoek, bai feministek, baita *heteropatriarkal kontraeratik feministen aldekoek* ere. Lesbianek, berriz, oztopo eta desabantaila bikoitzak aurkitu dituzte esparru publikoan. Hala eta guztiz ere, parte hartzeko eta garatzeko eremu irekiagoak daude, haien ustez, eremu publikoan, etxe edo gizataldearen barruan baino.

Ikasgelan, hainbat esparrutan eta laborategietan, esaterako, pentsaera konplexua, historikoa eta berritzailea nahiz puntako ezagutza zientifikoak nagusi izan behar ziren. Leku horietan, hala ere, nekez egin daiteke genero-berrikuntzarik. Beste eremu batzuetan, berrikuntzak egiten dira, bai; baina genero-ikuspegitik kanpo.

Nolanahi ere, akademikoki aurrera egin dugu. Gaur egun, beraz, ez gara gure ikaskuntza eta trebakuntza feministaren sortzaile. Gaur egun, generoari eta feminismoari buruzko mintegiak, ikastaroak, ikaste-taldeak, lantaldeak, ikerketa-programak, argitalpenak eta diplomatuak dauzkagu. Ikerketak egiten ditugu, irakasle aritzen gara, unibertsitate-ikasketak egiten ditugu, argitalpenak dauzkagu, baita argitalpen-bildumak ere. Horiek guztiek osatzen duten *pensum*-ak hainbat jakintza sortu ditu; errealitatearen pertzepzioa aldatu duten eta arazo zaharren edo ezin ikusizko arazozen azalpen berriak eman dituzten jakintzak, hain zuzen ere.

³ Amorós, C. (1997): *Tiempo de feminismo*. Madril. Cátedra.

Horregatik, sinergia feminista premiazkoa da hainbat dimentsiotan:

Sinergia, hezkuntzaren, lan-jardueraren eta jarduera profesionalaren eraginez elkarren desberdinak diren nortasunak dituzten emakumeek bata bestearekin hitz egin dezaten; herri-eragin edo espektro politikoko desberdinetako emakumeek bata bestearekin hitz egin dezaten.

Sinergia, era askotako emakumeek elkarrekin hitz egin dezaten, edozein eratakoak izanda ere: emakumezko herritarrak; gobernuan egon eta genero-ardurak dituzten emakumeak; edo politikan aritzen diren emakumeak. Azken multzo horretako emakumeek, alderdi politiko jakin bateko kargu bat betetzeaz gain, aurrekoen baldintzak betetzen dituzte.

Zatiketak eta bazterkeria gainditzeko asmoz, gu –munduaren eta bizitzaren ikuspegi feministarekin bat gatozen hauek; hainbat gai, azterketa-maila, ohitura politiko, eremu eta saretan aritu garenok– ikuspegiak eta ekintzak antolatzen saiatu behar gara. Bildu behar gara, gure artean ondoko hauek sor daitezten: dibertsitatea, aniztasuna, sormen-gaitasunak, irudimen kolektiboa, jakiteko borondatea eta batera aritzeko erabakia.

Sinergia sortzeko, hainbat kontu holistikoki aztertzeko gai izan behar dugu, besteak beste: mendetako historia, arazoak, egoerak eta gure bizitza laburretan gertatutako istorioak. Gaurko unea premiazkoa da, eta mendeetan istant bat besterik ez da. XXI. mendearen hasieran, ondoko xede hauek ditu politika feministak: emakumeen giza eskubideak eratzea; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; garapena; demokrazia; eta bakea. Artean, bi helburu nagusi ditugu: emakumeen giza eskubideak modu antolatuan eratzea eta indarrean diren eskubideen aurrerakuntza partzialak defendatzea. Hor-taz, eskubide zehatz bakoitza lortzearen alde aritzean, bi helburu horiek izan behar ditugu gogoan. Horixe gure arau politiko nagusia.

Sinergia holistikoa. Eskubide partikular bakoitzaren jatorria azertu behar dugu. Horrez gain, emakumeen giza eskubideen ikuspegi orokorra lotu eta bateratu behar dugu.

Aurrera egin ahal izateko, zehazki, beharrezko indarra eta eraginkortasunik ez dugun alorretan goiari eutsi behar diogu. Aurre egin behar diogu emakumeen duintasuna, integritatea, askatasuna, segurtasuna eta bakean bizitzeko eskubidea hausten duen orori.

Emakume guztiok batera, emakumeon bidezko aurrerakada eta ahalmentzea sustatu behar dugu. Horrexegatik bateratuko ditugu garapen mota bat eta demokrazia mota bat. Horrexegatik, gero eta emakume gehiagok egin behar dugu bultza, indarrez, eraginkortasunez, etikan eta politikan gure arrastoa utziz. Feminismoaren ikuspegia, haren balioak eta xedeak eraman behar ditugu eguneroko kulturara; herriko kulturara; zirkulu zehatz guztien kulturara; eta gizartearen talde, klase nahiz kategoria guztietara –hasi baserrietatik eta buka hirietan–; emakumeentzat ez ezik, pertsona guztientzat, herrialdearentzat eta mundu osoarentzat ere baliagarriak baitira feminismoaren ikuspegi, balio zein xedeak.

Horrexegatik darabilgu buruan emakumeei gizartean nahiz erakundeetan ahalmena ematearen ideia. Hori lortuz gero, inguratzen gaituen *horren* protagonista izango gara. Horrez gain, politikan aritzeko gai bagara, gizarteak, estatuak, kulturak, pentsaerek eta sortzen diren subjektibotasunek hartuko dute emakumeen giza eskubideen ikuspegia-
ren zantzurik. Gizaki gara, eta baliteke auzi guztietan zailena izatea indar fundamenta-
listek tasun hori onartzea. Horregatik ez dituzte onartzen sexuari eta ugaltzeari buruz
indarrean diren eskubideak, ez eta emakumeek indarkeriarik jasan gabe bizitzeko duten
eskubidea ere. Aurrera egitea da hori feministentzat, baita genero kontuetan emakume-
ek emandako aurrerapauso hauskor eta ahulek kalterik jasan ez dezatela bermatzeko
modu bat ere.

Ekintzak sustatu eta are eragin handiagoa izateko, eremu akademikoak, herritarrak,
artistikoak eta politikoak antolatu beharko ditu politika feministak. Hainbat hamar-
kadatan kontzientziatu dugu jendea; eta pentsatzeko eratan aldaketak nahiz subjektibi-
tateak sortu ditugu. Gure eskarmentuarekin gune berriak sortu ditugu; aldez aurretik
existitzen ez ziren beste batzuk sortu ditugu; eta gure bizimoduak aldatu. Emakumeek
aurrera egin dezatela eta emakumeen nahiz gizonen arteko berdintasuna
sustatu nahi badugu, gizon eta emakumeek elkarren artean hitz egin dezatela lortu
behar dugu. Elkar-ulertze horretara iristeko, hausturetan barrena sartu eta ondoko
hauek izango ditugu ezinbesteko helduleku: emakumeei esleitutako eskubide eta ba-
liabideak; emakumeenganako begirunea bermatzen duten moduak eta erak; edota gi-
zonek uko egitea beren pribilegio eta menderatze-ahalmenei -indarkeriari edo emaku-
meak beren esanetara izateari-. Emakumeen eta gizonen arteko elkar-ulertze horrek
balio izango du, baita ere, gizonezkoen genero-maskulinitatea errotik aldatzeko.
Hainbeste aldatu ere non, bizi demokratikoaren alde jardutearen ondorioz, emaku-
meak berdinkidetzat hartuko dituzten gizonen, eta emakumeei kalte egiteari uko
egingo dioten, bai eta emakumez neurritz kanpo baliatzeari eta emakumeak esplotat-
zeari utzi ere.

“Ernalketaren unetik bizitza bermatzeko” asmoz, Estatuko konstituzioen 18 zuzenketa
onartu dira Mexikon.

Horren moduko gertakari iraingarriak eta beste batzuk gertatzen dira gaur egun ere. Gai-
nera, emakumeen giza eskubideek zuzenbide-esparruan aurrera egin dezatela eta estatu-
politika bihurtzearen kontra daude zenbait. Egoera horretan ere, legeei trabak jartzen
zaizkie; ez dira legeak betetzen. Legeak ezin dira oso-osorik aplikatu: dela prozesuak amai-
tu ez direlako; dela legeak sustatu zituztenen helburuekin eta asmoekin bat ez datozelako.

Zenbait estatutan, gainera, ez da emakumeen giza eskubideei buruzko tokiko legerik;
ez eta horiek aplikatzeko erregelamendurik edo mekanismorik ere. Horrez gain, interes
eta borondate politikorik ez dago. Beraz, ezin daiteke politika publikorik eta gobernu-
politikaririk egin. Emakumeen eskubideen eta emakumeak legearen subjektu bihurtze-
aren kontrako jarrerak izan dira prozesu juridiko eta politikoan, eta, ondorioz, legeak ez
dira aplikatzen. Emakumeen giza eskubideen nahiz herritartasunaren kontrako jarrerak

agerikoak dira: legeak bultzatzeko eta betearazteko ardura dutenek *motelegi* dihardute, plantak egiten dituzte erakundeetan, eta, gainera, hainbat gatazka sortu dira hizpide dugun auziaren inguruan.

Egintza juridikoaren kontrako jarrera ideologiko misoginoa nabarmena da. Hala eta guztiz ere, funtzionario, diputatu, aktibista eta herri-elkarte feministetako kide diren zenbait emakumek sekulako lana egin dute tokiko legeak bultzatzeko eta horiek onar daitezela lortzeko. Beste emakume batzuek, ordea, berandu eta antolakuntzarik gabe arduratu dira legeak lantzeko eta onartzeko prozesuez. Horietako askok, gainera, prozesuotan parte hartu ere ez dute egin. Aukera izanda, ez dituzte kalitatezko legeak bultzatu. Beste horrenbeste egin dute herriko beste protagonista batzuek, emakumeen giza eskubideak eraikitzea ez baita haien xede demokratikoen artean. Are gehiago, giza eskubideen zenbait sustatzailek eta progresistek ez dute interesik edota ez dituzte ezagutzen emakumeen giza eskubideak. Egoera nahasi horren eraginez izan dira urri emaitzak.

Indarkeriarik jasan gabe bizitzeko emakumeek duten giza eskubidea haustea

Aurrera egin badugu ere, emakumeen giza eskubideen nahiz herritartasunaren kontrako jarrera sortu da. Egundaino, gainera, hamazazpi estatutako konstituzioak zuzendu dira, eta beste ekimen batzuk martxan jarri. Zuzenketa horiek egin dira emakumeen giza eskubide guztien ardatz diren sexu- nahiz ugalketa-eskubideak –emakumeen gizatasuna eta herritartasunaren adierazgarri den sexu-kategoria orokorra– banakatu ahal izateko. Zuzenean nahiz zeharka hautsi eta,aldi berean, besterendu zaizkie giza eskubideak emakumeei. Prozesuaren fase horretan, legeak ez daude esplizituki emakumeen sexu- nahiz ugalketa-eskubideen kontra.

Vatikanoko iritzietan oinarritutako zuzenketa horiek bizitzeko eskubidea bermatzen diete “jaiotzeko” direnei, horiek ernaldu edo sortu diren une-unetik. Horrek esan nahi du “sortze” kontzeptuaren ikuspegi erlijiosoa hartu duela konstituzio laiko batek. Aztergai dugun auzi hori, beraz, ez da ideia zientifiko bat, sinismen erlijiosoa baizik.

“Jaiotzeko” den umekiak “jaiotako” haurren eskubide berberak izango dituela adierazi da zenbait konstituziotan. Gainera, umekiari edo fetuari “jaiotzeko” esatea hura pertsonatzat hartzea litzateke, eta “jaiotako” pertsonaren eskubideak hari esleitzea. Mexikon indarrean den eta duela 60 urte onartu zen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren kontrakoa da baieztapen hori, aldarrikapen hartan adierazi baita *“gizaki guztiak aske eta berdin jaiotzen direla...”*. Pertsonak, beraz, jaiotzen diren unetik dituzte giza eskubideak. Jaio aurretik, ordea, emakumearen giza eskubideak bermatu behar dira.

Emakumeari oinarritzko eskubideak kendu eta ernalketaren produktuari ematen badizkiogu, emakumeak gizatasunetik kanpo izango dira. Beraz, ernalketaren produktuari jaiotako pertsonaren kalitatea, gizatasuna eta giza eskubideak ematen badizkiogu, emakumeen

duintasunaren, askatasunaren, autonomiaren, osasunaren, garapen pertsonalaren eta bizi-kalitatearen kontra arituko gara. Baita genero-berdintasunaren kontra ere.

Ezin onartuzko kontraesana dakar berarekin ernalketaren produktuari eskubideak aitortzeak: giza eskubideak izango lituzke XX produktu genetikoak. Aitzitik, pertsona eta zuzenbidezko subjektu diren jaiotako emakumeen eskubideak, gizatasuna eta subjektu juridiko izaera urratuko liriateke.

Kontzepzio horren eraginez, emakumeak behartuta daude berezko prozesuak gogoz kontra bizitzera, eta askatasunez bizi behar lituzkete prozesu horiek. Emakumearen, haren nahiaren eta erabakitzearen eskubidearen gainetik ahalmena ematen zaio emakumeen gorputzean eta bizitzan gertatzen den haurdunaldiari. Menderakuntzazko harreman politikoaren bidez, emakumea gauza bihurtzen da, eta ernalketaren produktua *nagusi* da haren gainetik. Produktuak, ondorioz, emakumearen gizatasuna eta herri-tartasuna ezeztatzen ditu. Horregatik, ernalketaren emaitzari eskubideak eta ahalmenak ematen bazaizkio, etsaitasuna sortuko da emakumearen eta produktuaren artean.

Laburbilduz, sexu-objektu bihurtzen da emakumea, giza subjektibitate gabe; eta emakumearen ekintza baten ondoriozko produktua babesten da. Emakumearen sexualitatearen fruitu den eta autonomoa ez den produktua subjektutzat hartzen da.

Aipatu ere ez da egiten gizonak mintzagai dugun besterentze horretan parte hartzeko eskubidea dutela. Horrez gain, ez gizonak ezta haien erakundeak ere ez dira ageri zitalkeria honen subjektu politiko bezala. Ikuspegi erlijiosoan oinarritutako gatazka moral baten aurrean gaude. Emakumeari gizatasuna erantzi; eta hura produktuari jantzi. Gatazka horretan emakumea da gaizkia; erakundeek, beren aldetik, gaiztake-riak egin ditzala galarazi behar diote emakumeari. Erakundeen egitekoa, beraz, biak salbatzea da.

Mexikon ez da izan emakumeen kontrako ekintza juridiko hain handirik. Are gehiago, iraganean, haurdunaldia eteteko zioak zehaztu eta jaso ziren legetan. Mexikoko estatu-ko konstituzioetan sekula ez da jaso mintzagai dugunaren moduko izaera misogino eta fundamentalista duen politika sexual patriarkalik.

Aitzitik, aurreko legetan –zatika bada ere– aurrera egin zen emakumeen zenbait eskubidetan. Horixe izan da zuzenbide hegemonikoaren eta emakumeen arteko harremanaren ezaugarri nagusia. Estatu laikoa eta laizismoa kulturen bultzatzen duen jorari esker zenbait aurrerakuntza izan dira. Hala ere, erantzun politikoa da zuzenketen bolada hori eta baliteke haren bidez gelditu nahi izatea emakumeen herritartasunaren eta gizatasunaren eraikuntza juridiko-politikoaren alde emandako pausoak. Herritartasuna eta gizatasuna ez ukatzean oinarritu behar da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun substantiboa. Emakumeak subjektu juridikoak eta politikoak dira. Hor-taz, haien generoa aitortu beharra dago, eta haien kontrako edozein indarkeria eta diskriminazio gaitzetsi.

Garaiz gaude gaur egun bizi dugun oldarraldia eteteko; gure ordena juridikoaren eraldaketa geldiarazteko; Mexikon emakumeen eskubide konstituzionalak berresten laguntzeko; hizpide dugun ekintza konstituzioaren kontrakoa dela erakusteko; berriro ere horrelakorik gertatu ez dadin saiatzeko; eta kendutako eskubideak emakumeei bueltatzeko.

Harritzekoa da zer nolako zuzentasunez eta azkartasunez aritu diren Estatuko hamazazpi kongresu, emakumeen erabakitze eskubidearen kontrako legeak egiteko. Eskubide hori, bidenabar, Errepublikaren Konstituzio Nagusiaren 4. artikuluan jasota dago. Ga-Gaiari atzera helduz, azkartasun hori harritzekoa da, batez ere, kontuan hartzen badugu berantasunez, profesionaltasunik gabe eta zuzentasun juridikorik gabe jardun dutela zenbait kongresuk Emakumeak Indarkeriarik Gabe Bizitzeko Lege Orokorrekin bat etorri behar duten tokiko legeak lantzeko orduan.

Konstituzioaren zuzenketak estatu bakoitzeko emakumeen kontrako erakunde-indarkeriatzat har daitezke. Zuzenketa horien bidez, gainera, desberdintasun egoeran izango dira berriz ere emakumeak Mexikon. Emakumeen giza eskubideen eta demokraziaren kontrako eraso dira zuzenketa horiek.

Aipatu berri dugun lege horren 18. artikuluan, erakunde-indarkeria definitzen da: *“edozein gobernutako zerbitzari publikoen egintzak edo ez-egiteak, baldin eta haien ondo-rioz beraien giza eskubideak betetzeko aukera galarazten bazaie emakumeei, edo ez bazaie aukerarik ematen era guztietako indarkeriak prebenitzeko, hartzeko, ikertzeko, zigortzeko eta ezabatzeko politika publikoetz baliatzeko”*.

Bi urte luze iraun du mintzagai dugun legegintza-prozesu horrek. Oraindik ere, Guana-juato estatuko kongresuak legeak egin behar ditu. Zenbait erakundetan, gainera, ez da egin Legearen erregelamendua, ezta hura aplikatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ere. Are gehiago, herrialdean gaur egun diren arazo larriei aurre egiteko beharrezkoak diren premiazko politikak ez dira ezarri. Zigor-kode, kode zibil eta prozedura-kodeetan ez da zuzenketarik egin. Legeak ez dira jendarteratu, emakumezkoek beren eskubideen berri izan ez dezaten. Estatuetak gobernuetak funtzionarioek, udal-funtzionarioek, epaileek eta ministerio publikoetako langileek ez dute Legea ezagutzen. Lege hori, bidenabar, Estatuko hiru botereen politikak lotzen dituen zeharkako estatu-politika da, eta, ezagutzen ez dutenez, funtzionarioek ezin dute hura aplikatu.

Sinergia feminista bultzatu behar dugu, non eta erakunde akademikoak, emakumeen herri-erakundeak, erakunde feministak nahiz giza eskubideen aldeko erakundeak bilduko dituen elkarrizketa-prozesu anitz eta parte-hartzailearen baitan.

Mintzaldi bortitzak, ohitura bortitzak

Gero eta bortitzagoak dira gobernuaren mintzaldiak eta mintzaldi hegemonikoak. Mexikon nonahi da guda. Jende asko trintxeran sartuta dago: demokratak, herri- na-

hiz giza eskubideen aldekoak, eta abar. Lanean edo planak egitean, estrategiak bete eta etsairen bat suntsitu beharrean dira asko. Gobernu federala borrokan da zerbaiten edo norbaiten kontra: narkotrafikoaren kontra, krimen antolatuen kontra, mafien kontra eta hainbat lazeriaren kontra. Analfabetismoaren eta pobreziaren kontra borrokatzeko, adibidez, txiroek ordaindu beharreko hainbat zerga diseinatu dira. AH1N1 birusaren eta gripearen kontrako borroka da ere. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borroka ere bada. Gobernuaren politikak ez dira eraikitzaileak, gerra-egileak baizik. Joera autoritario, matxista eta patriarkalaz gain, gobernu-ohitura bortitzak, militaristak eta errepresioak gailen dira. Ez da lekurik, beraz, indarkeria prebenitzeko, ezabatzeko, zigorgabetasuna ezabatzeko eta emakumeek justizian izan daitezela ahalbidetzeko politikentzat.

Munduaren alde honetan, ez gara bizi zerbaiten alde; zerbaiten edo norbaiten kontra baizik. Metodologia mehatxari eta arriskutsu horrek biktimak eragingo ditu ziur aski. Hala ere, indarkeria erabili ohi da aurrera ateratzeko. Ez da prebentziorik; erasoan dira nonahi. Arazo nazional handien zio sozialak ez dira zehaztu. Arazo horiek halabeharrezkotzat hartzen dira. Gizarte-gatazka konplexuen edo milioika pertsonen oinarritzko beharren ondorio kaltegarrietako batzuei aurre egin nahi zaie, besterik ez. Ustelkeriaren eta bortizkeriaren egiturak ez dira ukitu ere egin, estatu sozial sakon eta kaotikoa eraiki baita haien gainean.

Bortizkeria hain da handia, non emakumeen kontrako indarkeria ikusezina den. Gizonak gizonen kontra aritzen dira; legezkoak legez kanpokoen kontra; erakundeak gaizkileen kontra; militarrek eta poliziak soldadu iheslarien, ustelen eta mafien kontra. Horiek guztiak "ordena" hausten dutenen kontra. Laguntza-guardia, patruila eta operatibo militarrek polizia lanetan dihardute aspalditik herrialdeko zenbait eskualdetan. Etxeratze-aginduak ere badira zenbait zonatan. Pairatzen ditugu, baita ere, gerra-ekintzak, hilketak, liskarrak, hilketa bortitzak, poliziaren nahiz militarren errepresioa, eta, ondorioz, giza eskubideen urratzea eta zigorgabetasuna. Zuzenbidezko estatu demokratikotik aldentzen ari gara, gero eta gehiago.

Aipatutakoaren isla, gerran ez zeuden 14.000 gizon eta 2.400 emakume baino gehiago hil dituzte bi urtetan. Itxuraz, emakume horien kontra gerran zeuden gizonek hil dituzte nagusiki emakumeok.

Emakumeen giza eskubideen egoera juridikoa

Arestian azaldu bezala, atzerakada izan da emakumeen indarreko giza eskubideetan. Horren aurrean, feministok eskatzen dugu indarkeria, zigorgabetasuna eta bidegabeke-ria amai daitezela. Horrez gain, legezketasun demokratikoarekin hartua dugun konpromisoa berresten dugu, eta zuzenbide-estatu demokratikoa indarrean egon dadila eskatu.

Lanean izan gara hainbat hamarkadaz: mugimendu sozialak, ekintza politikoak, aldaketa sozialak, mentalitate-aldaketak, kultur juridiko eta demokratikoaren sorrera, eta

abar. Zailtasunak gaudituz, hainbat lege egin ditugu urte horietan. Lege horiek, hala ere, ez dira guztiz aplikatzen; dela horiek aplikatzeko prozesuak amaitu gabe daudelako; dela prozesu horiek ez datozelako bat legeen sena eta helburuekin. Oztopoak, plantak eta *motelkeria* artean direlako.

Zenbait erakunde eta kritikariren iritziz, legeetako batzuek ez dute ezertarako balio. Horrela deritzotenek, hala ere, ez dute kontuan hartzen lege horiek erakundeetan aplikatu ahal izateko prozesuak nahiz mekanismoak politikoki oso konplexuak direla. Ez dakite, ezta ere, era askotan sor daitekeela lege horiek zaintzen dituzten eskubideak eskatzeko beharra.

Oztopo handiak aurkitu ditugu emakumeen eskubideen alde eta emakumeak subjektu juridiko bihurtzearen alde egiteko orduan. Horretatik, hizpide ditugun legeak ez dira behar bezala aplikatzen prozesu juridiko eta politikoan.

Mexikon, pertsona guztiek ez dute uste emakumeak gizatiarrak direla eta emakumeek giza eskubideak dituztela. Gatazketan, *motelkerian* eta erakundeen plantetan nabari izan da joera hori. Zenbaitetan, gainera, arauak betetzeari uko egin diote, argi eta garbi, gobernuak eta justiziak.

Nabarmendu beharra dago, baita ere, zenbait estatuk ez dutela tokian tokiko legerik, lege-erregelamendurik eta lege-mekanismorik. Horregatik, estatu horietan ezin daitezke gauzatu politika publikoak nahiz gobernu-politikak.

Zenbaitetan, herri-erakunde feministok eta emakume-erakundeok berandu, tokian-tokian eta antolaketarik gabe aritu gara legeak egiteko eta onartzeko prozesuetan. Askotan, gainera, ez dugu parte hartu ere egin. Hau da, ez dugu mintzaldi politikoa antolatu, kalitatezko legeak eta politikak herritartasunez sustatu ahal izateko. Beste protagonista batzuek ere ez dute horrelakorik egin, batez ere, haien nortasun demokratikoaren baitan ez delako emakumeen giza eskubideak eratzeko kezka.

Kontserbadoreen oldarraldi patriarkal eta autoritarioaren bidez, ondoko hauek galarazten saiatu dira: emakumeen gizatasuna juridikoki eta sozialki sortzeko erronkan aurrera egitea; generoak bereiztearen –ez, ordea, horietako bat ezeztatzearen– bidez emakumeen eta gizonen arteko berdintasun substantiboa lortzea; emakumeak subjektu juridiko eta politikotzat hartzea, emakume eta herritar izateagatik; eta emakumeen kontrako indarkeria eta diskriminazio oro ukatzea. Horiek guztiak ezinbesteko baldintza dira emakumeak herritar oso izan daitezen.

Emakumeen giza eskubideen zuzenbide-esparrua Mexikon

2000. urteaz geroztik onartutako bost legetan giza eskubideen eta, bereziki, emakumeen giza eskubideen ikuspegia aplikatu da. Lege hauek dira:

- Haur zein Neraberen Eskubideak Babesteko Lege Orokorra. 2003.

- Diskriminazioa Prebenitzeko eta Errotik Ezabatzeko Lege Federala. 2003.
- Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Lege Orokorra. 2006.
- Emakumeak Indarkeriarik Gabe Bizitzeko Lege Orokorra. 2007.
- Pertsonen Salerosketa Prebenitzeko eta Errotik Ezabatzeko Legea. 2008.

Gizartean sortu diren subjektu berrien berezitasunak ez dira aintzat hartu, eta, ondorioz, bazterketa pairatzen dute beraien berezitasun, ezaugarri eta nortasunengatik. Goian aipatutako lege horiek, beraz, egoera hori gainditzeko sortu dira.

Ikusmolde moderno androzentriko eta eurozentrikoak *nagusitasunezko* definizioen laburpentzat zuen subjektua. Beraz, subjektu berriak sortu izanak aldatu egin du ikuskerara moderno hori.

Hainbat subjektu aintzat hartu dira. Horrez gain, historiako subjektuen, zuzenbidearen, subjektu sozialaren, herritartasunaren subjektuaren, subjektu sexualaren eta desioaren subjektuaren ezaugarritzat hartu dira bai desberdintasunak, bai berezitasunak, bai dibertsitatea, baita aniztasuna ere. Horren guztiaren eraginez, aldatu egin dira norbanakoei, emakumei, gizonei, klase sozialei, talde etnikoei, generoei, sexuei, adin-taldeei, belaunaldiei eta talde nazionaleri buruzko ideia estereotipatuak.

Emakumeok, emakume izateagatik, gure klaseagatik, etniagatik edota sexu-aukerarengatik, adinagatik, gaitasunengatik, behar espezifikoenagatik eta sinesteengatik baztertzeko gaituzte. Lehen aipatutako bost legeen xedea da, beraz, bazterketa hori ezabatzea, baita emakume eta gizonen arteko desberdintasuna nahiz genero indarkeria ere.

Oraindik orain, gure herrialdeko gizartean, estatuan eta kulturaren, egitura patriarkalak gailen dira. Emakumeen kontrako indarkeria, desberdintasuna eta diskriminazioa tratu, harreman nahiz jokabide ohiko, onargarri eta gizartean nahiz erakundeetan etenik gabe berritzen ari diren jokamoldetzat dauzkate egitura horiek. Hizpide ditugun legeen bidez, beraz, emakumeen giza eskubideak bermatu, babestu eta galdagarri bihurtu nahi dira. Arrasto patriarkal horrek ez du aukerarik ematen emakumezkoen ongizatea bermatzeko, eta garapen-aukerak nahiz parte-hartze demokratikoa galarazten ditu. Emakumei ez die aske izaten uzten.

Hainbat hamarkadatan gauzatutako zenbait prozesu partzialen bidez, emakumeen eta gizonen ikuspegi moderno eta demokratikoak aurrera egin du, nolabait, Mexikon nahiz mundu osoan. Horrela, herri-, erakunde- nahiz norbanakoen mugimenduei esker, goian aipatutako lege horiek onartu eta indarrean sartu ziren.

Hala eta guztiz ere, lege horiek sustatu eta bultzatu ditugunok ere ez dugu ezagutzen haien edukia, eragina edo ezta antolamendua ere. Edo, ezagutzen baditugu, banaka hartzen ditugu, elkarren artean loturarik izango ez balute bezala.

Emakume gehienek ez dute lege horien berri; ez dira beraien eskubideen jakitun. Legeon zabalkuntza oso mugatua izan da, lege horiek ez baitira itzuli emakume indigenek hitz egiten dituzten 56 hizkuntza prehispanikoetara. Erakundeek, gainera, ez dute lege horien jendarteratzea nahiz irakaskuntza bultzatu.

Hori dela eta, legeen egiteko pedagogikoa ez da bete, eta emakumeen herritartasun-kontzientzia ere ez da garatu. Kultur juridiko eta demokratikoak ez du oinarritzko tresnarik.

Legeen egiturazko eduki antolagarriak

- Emakumeei, legez eta juridikoki, giza eskubideak ematea eta eskubide horiek haien herritartasunean barneratzea.
- Emakumeen bizitza mugatzen duten indarkeria, diskriminazioa eta desberdintasuna ezabatzea. Faktore horiek bizitza pertsonala okertzen dute, Mexikoko gizartean demokraziaren aurkako arrasto nabaria uzten dute eta demokrazia nahiz gizartearen garapena oztopatzen dute.
- Eskubideak bermatzea Estatuaren erantzukizuna dela diote lege horiek guztiek. Lege horien bidez, gainera, hainbat mekanismo legal nahiz juridiko ematen zaizkio Estatuari, estatu-politikak ezarri, oztopoak ezabatu eta emakumeentzako aukerak, ondasunak, baliabideak eta eskubideak izateko bideak sor ditzan.

Estatuak emakumeen giza eskubideen indarraldia berma dezan, argi dago Estatuaren funtzionamendua eta estatu-erakundeak berriro beharko direla. Hortaz, aldaketa paradigmatico hori egiteko gai izango den herri-mugimendu handia beharrezkoa da, emakumeen giza eskubideak babestu eta sustatuko dituen.

Aurten, hogeita hamar urte betetzen dira Emakumeen Kontrako Diskriminazio Oro Ezabatzeko Biltzarra egin zenetik (CEDAW). Hiru hamarkada horietan, gure eskubideen alde diharduten mundu osoko milioika emakumeen erreferente bihurtu da CEDAW; gobernagarritasun demokratikoaren aldeko arau bihurtu da; emakumeen, herrialdeen eta mundu osoko erakundeen aurrerapausoak ebaluatzeko adierazle multzo bihurtu da; demokraziaren, garapenaren eta bakearen hainbat ikuspegi komunitate berean elkarrekin egotea ahalbidetzen duen arau bihurtu da.

Horrez gain, emakumeen eskubideak giza eskubide direla jaso zen Vienako adierazpenean, eta emakumeen eskubideak aitortu ezean giza eskubiderik ez dela izango. Emakumeen gizatiartasuna aintzatesteko eta emakumeen duintasuna, integritatea, segurtasuna eta askatasunarekiko begirunea bermatzeko asmoz, egiturazko aldaketak egin behar dira. CEDAW biltzarrean eta Vienako adierazpenean, hain zuzen ere, egiturazko aldaketa horiek sustatzeko urratsak zehaztu ziren.

“Gizatiar da gure hizkuntzako hitzik ederrena. Paradigma honek mundua nola, halaxe berriro du feminismoak gizatiar hitza. Mundua ulertzeko gune historiko eta

sinbolikoaren erdi-erdian da gizatiar hitza. Izenlagun hori, gainera, egundaino ezagutzen dugun genero-kategoriez bestelako bat izendatzeko erabiltzen da. Gizatiarra, gizona, emakumea. Adigaiak aztertu, banakatu, ikasitakoa ahaztu, berritu eta bere-ari eusten dioten hainbat emakumek erabili dute gizatiar hitza. Gure bizitzetara eta gure munduari buruz hausnarketa egiteko sortzen ditugu gauzak⁴.

⁴ Lagarde, M. (1996): "Identidad de género y derechos humanos: La construcción de las humanas"; ondoko idazlan honetatik hartua: Guzmán, L. eta Pacheco, G. (1996): *Estudios Básicos de Derechos Humanos* IV. 85-25. San José de Costa Rica, Instituto Interamericano de Derechos Humanos.



Zorrak eta krisia: hurbilketa feministak hegoaldetik

Magdalena León T.

Ekonomia Eraldatzen Latinoamerikako Emakumeen
Sarearen (REMTE), Ekuador



Testuingurua

Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) hainbat ezusteko eman dizkigu azken hamarkadetan, oroitzapen latzak ekartzen dizkigutenak guztiak ere. Dena dela, une honetan ez genituen, inondik ere, beste bi hauek espero:

- Erakundea berriz osatzea, desagertzeko zorian utzi zuen krisi etiko eta finantzarioaren ondoren. Gainera, beste garai bateko handikeriaz datorkigu orain ere iparraldeko herrialdeak mendean hartzeko adina aginpidearekin eta ahalmenarekin (nahiz eta herrialde horiek iparraldearen barruan hegoalde moduko bat osatu).

NDF 1944. urtean sortu zen, herrialdeei kanpoko gorabeheren eta krisien aurrean ikuspegi finantzariotik laguntzeko helburuarekin, eta neoliberalismoaren adar eragilea ez ezik, krisiaren faktore ere bihurtu zen horrela. Azken urteetan erakundearen profilarren gainbehera etorri zen, ezin kontrolatu zituen egoerek gainezka egin baitzioten, Argentinaren egoerak besteak beste. Eta murriztu egin zen erakundearen sinesgarritasuna, baina ez bakarrik kritiko “naturalen” artean, baita gobernuen eta finantzen eta banketxeen alorrekoen artean ere. Hainbat herrialdek, independentzia handiagoa izateko, aurrez ordaindu zituzten beraien zorrak (Indonesia, Argentina, Brasil, Ekuador); era horretara, diru sarrerak galdu zituen, arazoak izan zituen kostu operatiboari zegokionez, eta barne egokitzapenera egokitu behar izan zuen bere agenda edo berrikuntzak bilatu behar izan zituen barne krisiari aurre egiteko. Erakundearen krisia zilegitasun, aurrekontu eta nortasun krisia izan dela esaten da.

- Hondar komun moduko bat sortzea, Latinoamerikarako eta Europarako esperientziekin, “maila berean jartzea” helburua izango duten errezeta neoliberal aldaezinekin, eta bi hitz bakarrekin garrantzi handiko kalte sozialak eta ekonomikoak eragiteko gauza izan den formulaz baliatuta: *merkatu gehiago*. Ikusiko dugunez, formula hori ikuspegi feministen kontrako muturrean kokatzen da.

Azken boladan, aldaketei adi dauden hainbat begiradek Latinoamerika bestelako¹ ikuspegi batez ikustera eramán dute. Ikuspegi horrek kontuan hartzen ditu gaur egungo sintesi historikoko garaian aurrera egiten duten egiturazko eta zibilizaziozko eraldaketa irtenbideak. Orain eman lezake begi gehiago daudela adi, baina ereduaren krisiak eragindako baldintzak berdintzeko joera gaizto horrek irteeren krisiarekin bat eginik birziklatu ditu NDFa eta haren errezetak.

Zein da orain ikusten den Latinoamerika hori? Askotarikoa da, konplexutasun berriak erakusten dituena, zeinetan nabarmentzen den aldaketetarako inflexioa edo haustura hainbat herrialdetan. Aldaketa horien ñabardurak, irismenak eta izenak askotarikoak dira, hasi post neoliberalismotik eta iraultza boliviarrak, iraultzaile, demokratiko eta kultural eta herritarretaraino, izen edo abizen berriak bilatzen dituzten eraldaketa proiektuen esparruan: XXI. mendeko sozialismoa, hirugarren milurteko sozialismoa, ongi bizitzearen sozialismoa, *biosozialismoa*, etab.

Bilaketa horiek guztiek badute ezaugarri berritzaile bat, hain zuzen ere, hainbat bidetatik emakumeen esperientziara eta pentsamendu feministara hurbiltzen ari direla, haren erradikalitateari dagokionez, hau da, zalantzan jartzen dira nagusi den kapitalismoaren oinarriak, egiturazko premisak, eta bestelako antolamendu bat proposatzen da, zeinetan hobetsi egingo den bizitzaren erreprodukzio zabaldua kapitalaren erreprodukzio zabalduaren aurrean.

Nola adierazten da feminismoaren ikusgaitasun berri hori, zer kokapen berri dute beraren tesiek indarrean diren aldaketetarako egiturazko proposamenetan? Horren erakusle soil bat izan liteke lehendakariak beren hitzaldietan gai feministak eranstea. Esate baterako, Hugo Chávezek azken denboran “sozialismo feminista” baten beharra aipatzen du, eta Rafael Correak, berriz, neoliberalismoari egiten dizkion kritiketan, etxeko lanari ez zaiola baliorik ematen salatu du, eta zalantzan jarri ditu teoria ekonomiko konbentzionalaren ahanzturak eta joera merkantilistak. Hori ez da lehenago inoiz gertatu, eta sineste sendoen ondorioa dela dirudi, izan ere, “kalkulu politikoari” zorrotz erreparatuz gero, ez dago argi feminismoaren eta haren oinarrien aipamenei lehendakariari irabaziak ekarriko dizkietenik.

¹ Mugimendu eta pentsamendu feministaren kasuan badira beste ñabardura batzuk harreman horretan, izan ere, hainbat mendez geroztik, lotura eta interakzio solidarioek lotu egin dituzte Latinoamerika eta Europa. Ekonomia feminista garaikidean, esate baterako, gure gogoetek eta aurkezpenek beti izan dituzte oinarrian “klasikoen” funtsezko ekarpenak: Cristina Carrasco (txiletar/katalana) eta Lourdes Benería (katalana), besteak beste.

Aipatutako hori guztia sinbolikotzat har badaiteke ere, garrantzi bereziko gertaeratzat hartzea komeni da. Adibidez, Boliviako eta Ekuadorreko konstituzio berriek gizartea, estatua eta Ondo Bizitzearen ideia jartzen dituzte ekonomiaren ardatz antolatzaile gisa. Ondo Bizitzearen ideiarekin arabera, bizitzaren erreproduzioak du lehentasuna. Konstituzio horiek beraiek, Venezuelakoarekin batera, jauzi historikoak eman dituzte aniztasun ekonomikoaren aitorpenari eta bulkadari dagokionez, izan ere, produkzioa eta estatus ekonomikoa antolatzeko hainbat modu erantsi dituzte, lan modu desberdinak erreproduzitzeko, ikusgai bihurtzeko eta babesteko, hau da, zaintzaren ekonomiaren aipamen zuzenak dira, besteak beste.

Bestalde, integrazio alternatiboko proiektuek, Gure Amerikako Herrientzako Boliviar Aliantza-Herrien Merkataritza Hitzarmena (ALBA-TCP) esate baterako, bat egiten dute ekonomia feministaren printzipioekin: solidaritatea, elkarrekikotasuna, osagarritasuna, lankidetzak; bizi premien arretari ematen diote lehentasuna; eta emakumeen berdintasun ekonomikoarekin lotura duten agendak hartzen dituzte kontuan.

Esparru ezezaguna da, beraz, Latinoamerikako proposamen feministarentzat, proposamen horren ikuspegian funtsezkoak izan diren kritikekin eta planteamenduekin lotura duten egiturazko definizio berrien arabera egituratzen baita.

Zorrak eta krisia

Europar azken egunotan agertutako hainbat prentsa titularrek eta adierazpen ofizialek izugarriko antzekotasuna dute hiru hamarkadatan Latinoamerikan errepikatu izan diren beste hainbatekin. Gaur egun Espainiarentzat proposatzen dena aurretik ere nozitu al dugu? Kasuan kasuari dagozkion aldeak eta xehetasunak gorabehera, bai, aurretik bizi izan dugu *merkatu gehiago* formula, egiturazko doikuntza, merkatu askean ardatza duen globalizazio programatua; eta horrekin batera, alternatibak erresistentziak eta eraikuntzak.

Emakumeentzat ondorio sakonak dituzten esperientzia horien eremuan, eztabaida eta proposamen feminista berriak sortu dira. Horietatik hainbat alderdi atera ditugu, zorrarekiko eta finantzekiko harremana eta subiranotasun finantzarioaren bilaketa –beste subiranotasun batzuei eta egiturazko aldaketei lotuta– aipatzen dutenak.

Eztabaida eta proposamen horietan aurrera egiteko, ekonomiaren kritika feministaren oinarriko osagaiak etengabeko erreferentzia puntu eta oinarri izan dira. Hain zuzen ere, NDFaren errezetekiko oinarriko aldea markatzen duten gaien muina dira. Labur-labur, honako hauek dira oinarriko osagai horiek:

- Ekonomian ondasunen eta zerbitzuen produkzio eta zirkulazio oro sartzen da. Kapitalismoan merkatuko zein merkatuz kanpoko harremanen esparruan gertatzen da, eta harreman horiek pilaketa eredu baten inguruan daude antolatuta. Eredu horrek bizi iraupeneko eta erreproduzizio logikak hartzen ditu bere baitan, baina ez du horiek ezabatzea lortu.

- Produkzioaren eta erreprodukzioaren eremuak modu berean dira ekonomikoak, eta elkarri lotuta daude.
- Ekonomiak ez du etekinak eta onurak maximizatzeko lehiatzen diren banako independente eta berekoien arabera funtzionatzen (ustezko arrazionaltasun ekonomiko ez da merkatuan bertan ere gertatzen).

Ekonomiak banako eta talde mendekoen eta elkarren mendekoen harreman konplexuak antolatzen ditu, eta horietan bat egiten dute lankidetzak, solidaritateak, elkarrekotasunak eta kapitalismoan lehiakortasunak, kontraesanekin beti ere.

Merkatu gehiago formulak ondorioz dakar aberastasunen eta bizitza baliabideen pribatizazioa bai kuantitatiboki bai kualitatiboki zabaltzea, jabetzaren kontzentrazio handiagoa eta transnacionalizazioa; beste jardunbide eta logika ekonomiko batzuekiko ezjakintasuna eta balioespena nabarmentzen du, bereziki emakumeak protagonista diren kasuetan; are gehiago murrizten du emakumeek erabaki ekonomikoak hartzeko dituzten aukerak, eta inposaketa bizi iraupeneko dinamiken eta baldintzen kontura egiten da.

Era horretara, erreprodukzioaren eremutik produkzioaren eremura isurtzen dira ezkurtuko diru laguntzak, bizi irauteko, bizitza zaintzeko eta eusteko lanean jatorria dutenak; lehiakortasunaren printzipioetan eta banakako etekinen maximizazioetan oinarritzen ez diren dinamika, baizik eta, alderantziz, elkartasunaren, lankidetzaren, taldearen onuraren logiketan oinarritzen direnak, baita hori guztia genero eta gizarte mailen asimetriaren eta desberdintasunen erdian gertatzen denean ere.

Eskema neoliberalaren barruan ezarri diren zorduntze sistemak dinamika horietan kokatzen dira, eta orobat kokatzen dira lehiakortasunean eta norberaren etekinean zentratutako finantza merkatu globalizatua, espekulatiboa eta kontzentratzailea elikatzen duten baliabide likidoak, monetizatuak, ateratzeko aukeran; merkatu hori, hori bai, lehiakortasunean eta etekin partikularrean zentratua da.

Ikuspegi horretatik adierazten dugu sortu dela emakumeekiko zorra. Baina nola sortu da? Nola ordainduko da zor hori?

Galderek eta erantzunek osoko begiradak egitera bultzatzen gaituzte, sektoreko irakurketetatik eta ekonomiaren eta emakumeen gaineko zorraren eraginei mugatutako irakurketetatik kanpo; izan ere, era horretara baino ezingo ditugu ikusi emakumeek eragile ekonomiko gisa dituzten egiturazko erlazioak, horien ekarpenak, aurrez aurre dituzten desberdintasunak eta bidegabekeriak, eta horrela baino ezingo dugu sistema ekonomikoa osotasun gisa hartu.

Azken hamarkadetan, hiru prozesu konbergente hauei esker ikusgai egin da zorra-emakumeak harreman berezi hori:

- Emakumeak aktore ekonomikoak direla baieztatu da, modu sistematikoan eremu sozialean kokatu dituen eta, ondorioz, ekonomiaren alorretik datozen eraginei lotu dituen –baina ez gertaera ekonomikoen protagonista gisa– eskema gaindituz. Kanpo zorra, generoaren ikuspegitik neutralizat hartua, gizartean eragiten duelako baino ez da jendearekin lotu, eta, era horretara, profil ekonomikoa ez duen harremana eratu da.

Irakurketa hori sendotu egin zen alderdi ekonomikoa eta soziala apetaren arabera bereizteko jarduera neoliberalaren ondorioz. Eragiketa horren eraginez, modu sistematikoan sailkatu ziren pobreziaekin, erreprodukzioarekin, emakumeekin eta generoekin zerikusia zuten gaiak alor sozialean, eta finantzekin, inbertsioekin eta aberastasunekin zerikusia zutenak, berriz, alor ekonomikoarekin lotu ziren². Apetaren araberrako bereizketa horrek hainbat ondorio izan ditu, besteak beste, fenomeno horiek modu independentean aztertu dira, edo ez dira eraginen arabera ia lotu, eta, ondorioz, ez da era horretara sailkatutako arazoak arinduko dituzten politika sozialak bilatzeko ahaleginik egin, arazo horiek eragiten dituzten politiken eta harreman ekonomikoen funtsa ukitu gabe.

Gizarte zorraren ikuspegia lagungarria izan zen erakusteko zorraren ordainketak nolako murrizketak eragiten dituen gastu eta inbertsio publikoan, eta, horrela, nola mugatzen diren hainbat eremutako tituluak eta estaldurak, hala nola, osasunaren, hezkuntzaren, gizarte babesaren eremuetakoak; eta horrek modu berezian eragiten du zerbitzu horien kalitatean, eta baita emakumeek, neskek eta mutilek zerbitzu horietara duten sarbidean ere. Edonola ere, ekarpen ekonomikoak kontuan hartzen ez zirenez –maila handi batean, ez dira diru ekarpenak–, ezin hauteman zitekeen gastu horiek haien lanak sortutako aberastasunaren itzulera partziala irudikatzen dutela; aberastasun hori, hortaz, ikusezina eta desjabetua bihurtzen da zorraren logika gaiztoan.

Ikuspegi hori zorduntze ereduan inplizitu dauden produkzio, erreprodukzio eta banaketa alderdietara zabalduz gero –finantzaren eta aurrekontuen alorrari hertsiki dagokionaz haratago–, hobeto antzeman liteke nola sortzen den zorra, nola gastatzen den, norik ordaintzen duen eta nori egiten dion mesede, bai zuzenean bai zeharka. Era horretara, lehenengo egiaztapen orokorra da emakumeak hartzekodunak garela. Bada pilatutako zor bat, saritu gabeko ekarpen ekonomiko gisa (ordaindu gabeko lana bereziki), eta horiek osatzen dute zorduntze eredu neoliberalaren (eta aurreko hainbat modalitateen) ezkutuko kostuen parte bat.

- Zorraren aurreko ikuspegiaren eta tresnen barne bilakaera. Ikuspegi eta tresna horiek finantzaren eta gizartearen dimentsioa (gastuaren baldintzen arabera hartua) gainditzen

² Eskema hori bera dago NDFaren proposamenaren atzean, zeinak gaur egun irudikatzen duen espainiar kutzak banketxe bihurtu behar direla; era horretara, bereizi egiten da “alderdi soziala”, fundazio batek landu behar duen alderdi gisa, eta “alderdi ekonomikoa”, “negozioaren” alderdi funtsezkotzat hartzen dena eta kapitalen merkatu baten arauen arabera bideratu behar dena.

duen konplexutasuna eta osotasuna dute, gaur egun. Hainbat erlazio espezifiko berri agertu dira: jatorrizko herriekiko *zor historikoa*, hainbat mendetako harrapaketa ondoen; *zor ekologikoa*, besteak beste, planetako bizitzaren hondamendiaren eta harrapaketa ondoen sortua. Horrekin batera, zorraren “legitimotasunik ezaren” tesia sortu da, eta baita hori ikuskaritza integraletan aplikatu behar diren tesia ere; hau da, alderdi kontraktual, juridiko eta teknikoez gainera, herrialdeen eta herrien bizitza ekonomikoan, ekologikoan, politikoan, sozialean eta kulturean duten eraginaren, kostuen eta ondorioen multzoa ere aztertzen da. Ikuspegi horren arabera, herrialde baten bizitzako harreman eta eragile guztiak garrantzizkoak bilakatzen dira, eta derri-gorrezkoa bihurtzen da generoaren ondorioei erreparatzea.

- Integrazio alternatibo baten bilaketa, eta horren barruan, finantza arkitektura berri baten bilaketa. Subiranotasunaren ikuspegiak, esparru horretan bere onera itzuli eta esanahi berri bat hartzen duenak, zentzu plurala du: nazionala, eskualdekoa, elikagaiei dagokiona, energetikoa. Elkartasunaren, elkarrekikotasunaren eta lankidetzaren printzipioak erdian ageri dira; ondorioz, postulatu feministek balioa hartzen dute ekonomian, eta bizitzaren erreproduzioari eta zaintzari (horren adierazpen ugarietan) eusten dioten harreman eta jardura guztiak aintzat hartzeko aukera berriak sortzen dira. Entitate eta mekanismo berriek, hegoalde-hegoalde harremanetan finkatzen direnek, ezingo dituzte, berdintasuna bideratzeko orduan, parekotasun irizpideak alde batera utzi beraien politiketan, eta ALBaren Bankuan gertatzen den bezala, oinarrizko premiekin, bizitza mantentzearekin, taldeko eskubideekin lotura duten jardueri emandako laguntzak hartu beharko dituzte ardaztat.

Emakume hartzekodunen ideia, hortaz, ekarpenekin lotzen da, eta ez besterik gabe gabeziekin edo mugekin; ekarpenak eratzen dituzten diru-sarrerekin edo bidegabekeria ekonomikoekin lotzen dira, ez besterik gabe murrizten diren edo egiten ez diren gastuekin.

Nola ordain daiteke emakumeekiko zor hori? Diru baliabideak eman behar zaizkie, jabetzaren egitura aldatu behar da emakume jabe gehiago egon daitezen? Edo bizitzari eman behar zaio lehentasuna ekonomiaren ardatz gisa, hau da, aldatu eta eraldatu behar al dira eskema kapitalista eta haren zutarriak, besteak beste jabetza?

Posible al da berehalako eskabideak eta egiturazko eraldaketa ekarriko duten estrategiak uztartzea? Erronka handiak dira, zalantzarik gabe, oraina eta utopia handiak nahitaez lotuko dituen agenda ekonomikoaren testuinguruan. Eta hori horrela da, bereziki, dagoeneko sistemaren eta zibilizazioaren krisizat hartzen den krisiaren eraginez, ezaugarri horrek maila garaian jartzen baitu alternatiben irismena.

Berriro ere, Latinoamerikan aurretik izandako krisiekin gertatu bezala³, Europako krisia zorraren krisi gisa, edo hark eragindako krisi gisa, azaldu da 2010ean. Era horretara mugatzen da, nolabait, hasieran krisi sistemiko eta integraltzat onartzen zena.

³ Modu ofizialean krisizat hartutakoak eta gertaera episodikotzat hartuak aipatzen ditugu, izan ere, beste ikuspegi batetik, biztanleriaren parte bat etengabe ko krisi moduko batean bizi da.

2008. urteaz geroztik, dezentetan errepikatu da krisia aukera bat ere badela edo hartaz balia daitekeela, orain dela hainbat hamarkadaz geroztik gogora ekartzen den txinatar jatorriko ideia horren erabilera berretsiz.

Zertarako aukera, ordea? Formula hori erabiltzen dutenen arabera da erantzuna. Kasu batzuetan, negozioak egiteko aukera izan da: espekulazio biziak, beldurraren giroak eta kaosak etekinak eta irabaziak lortzeko balio dute. Logika hori bera dago banke-txeei eta finantza erakundeei, eta beste era batzuetakoei, emandako baliabide publikoko kopuru izugarrien atzean ere. Ikuspegi neoliberaletik, Estatu zintzoa eta beharrezkoa bihurtzen da kasu horietan, hau da, beraren mekanismoez eta baliabideez baliatzen dena baliabide publikoen oso kopuru handiak enpresaren eremu pribatura eskualdatzeko, hain zuzen ere, huts egin duen, eraginkorra izan ez den eta iruzur egin duen eremu horretara beretara eskualdatzeko.

Beste kasu batzuetan, NDFren kasuan esaterako, krisia aukera bat da munduko ekonomiaren alorrean erabakiak hartzeko eta kontrolatzeko espazioa berreskuratzeko, beraren likidezia funtsen eta inbertsioak sustatzeko errezeten bitartez, “negozioetarako giroa”, eta, oraintsuago, egiturazko egokitzearen formula berpiztuaren bitartez.

Gehientzat, ordea, krisi hau funtsezko aldaketak sustatzeko, egiturazko aldaketak egiteko, azken aukera da. Gaizki dabilen sistema bati, positiboa ez den sistema bati, pertsoneri zein taldeei kalteak eragiten dizkien sistema bati, irtenbidea aurkitzeko aukera da. Gizadia eta planeta bera hondoratuta ere bere burua berriro osatzen saiatuko den sistemaren aurrean, alternatiba bideragarri laguntzaz jardun behar da, ez dago beste irtenbiderik.

Aldaketarako erronka horien aurrean, nagusi diren erreskate politiken irizpideek eta formulek arrisku bat badutela ikusten dugu: zenbat galderan jartzen dute arreta, eta gutxiago zer eta nola galderetan.

Oinarrizko erronka da, hain zuzen ere, bizi iraupeneko ekonomiari gainjartzen zaion eta alderdi monetarioan arreta jartzen duen eta hura helburu eta bitarteko duen ekonomiatik ateratzea, hura bereganatu eta ito egiten baitu. Eta, aldi berean, bizitzaren oinarrizko osagaiak harrapatzen eta hondatzen dituen produkzio, merkaturatze eta kontsumo eskemak gaingiditu behar dira.

Beharbada ez da gaur egun adina hitz egin diruaz, eta ez da inoiz erreskateetarako horrenbeste diru kopururik mugitu. Eta, hala ere, ezinbestekoa da diruaren, finantzaketaren, inbertsioaren garrantzi erlatiboa berriro ere aztertzea. Balio handiegia eman zaie diruari eta inbertsioari, eta ekonomiaren lekua hartzera iritsi dira, ekonomia osotasun bezala hartuta. Eta horren aurrez aurre, lana era sistematikoan gutxietsi da, bai alderdi materialetik bai sinbolikotik⁴.

⁴ Lanaren gutxiespena egiturazko doikuntzari dagozkion lanaren malgutasunaren eskemetan ere azaltzen da, lanaren kostuak gutxitzeko eta inbertsioak sustatu eta babesteko baliabide gisa aplikatuta. Latinoamerikako emakumeengan lortutako emaitzak, lan esplotazioari eta zaintzaren gainkargari dagokionez, agerikoak izan dira.

Gaur egun likideziari eta maileguari buruz dauden kezken ondorioz, behin eta berriz ekin zaio diruaren gehiegizko balio horri, eta horrek arrisku bat dakar berarekin, hain justu, bizitzaren merkaturatzea bultzatu duen eskeman gehiago sakontzea. Merkatuari hainbat aberastasun modu, ekonomiaren hainbat logika, lotzeko mekanismo bilakatu dira finantzak.

Baliatzen ari diren salbamendu finantzariako formuletan⁵ –iparraldean baliatzen ari direnetan bereziki– enplegua aipatzen da, lanpostuak salbatzeko betebeharra adierazten da, baina aipamen hori aitzakia bat da, beste ezer baino gehiago, sektore ezeraginkor edo espekulatibo berberetara dirua bideratzen jarraitzeko aitzakia, hain zuzen ere.

Formula horietatik urrun, “aukerei” dagokienez, hau izango litzateke funtsezkoa aldatzeko azken aukera. Era horretara, ezin atzeratuzkoa bihurtu da produkzio egitura aldatzea eta oinarriko premien arretara, gizakien eta planetaren bizitza iraunkortzera bideratzea; eta horrekin batera, lanaren antolamendua aldatzea, lanaren forma guztiak ezagutuz eta babestuz, ekonomiaren oinarria baitira –eta ez bakarrik haren mendeko–, eta lana eta zaintzarako premiak lehentasunezko lekuan jartzea.

Subiranotasuna eta arkitektura finantzario berria

Arkitektura finantzario berri baten premia aurreko mendearen bukaeraz geroztik agertzen da nazioarteko agendan, eztabaidan den tesi bat bezala bere joerei dagokienez; baina 2008ko krisiak presakoa bihurtu zuen.

Latinoamerikako hainbat herrialdetan, proposamenak eta subiranotasun finantzarioaren eraikuntza eskutik doaz, eraiki nahi den subiranotasun anizkunaren alderdietako bat bezala: elikadura, ekonomia, energia, informazioa, etab.

Zer hartu behar da subiranotasun finantzariotzat? Ez dago oraindik definizio biribilik, baina asko aurreratu da subiranotasun horren zenbait osagai identifikatzeko zereginen⁶.

Subiranotasun finantzarioak berarekin dakar:

- herrialdeko baliabideen erabilera lehenestea, herrialdeak planifikatutako helburuak lortzeko;
- erabakiak modu autonomoan hartzea, inposaketarik gabe, baliabide finantzarioak eskuratu, erabili eta kontrolatzeari dagokionez;

⁵ Salbamenduetan politika publikoko neurri ohiz kanpokoak hartu behar dira, eta, bereziki, baliabide publikoak behar dira enpresek eta negozioek behea jo ez dezaten, hirugarrenen interesak gordetzeko argumentuarekin edo aitzakiarekin, eta baita egonkortasun ekonomikoa gordetzeko aitzakiarekin ere, behea joz gero kaltetu egingo bailirateke.

⁶ 2008an Ekuadorreko konstituzio berriranzko proposamenaren barnean landuak.

- produkzioaren eta ongizatearen alorreko helburu kolektiboentzat erabilgarria izango den finantza sistemara eramango gaituzten erakunde eta arau nazional zein eskualdekoak existitzea eta abian jartzea, nazioarteko harreman garden eta solidarioen esparruan;
- subiranotasun finantzarioak bazterrean uzten ditu herrientzat, pertsonentzat edo naturarentzat ondorio negatiboak izan ditzaketen modalitateak edo ekintzak.

Subiranotasun finantzarioaren ideia horretan aldatu egiten da diruaren garrantzi erlatibo-boa, eta produkzioarekin, ongizate kolektiboarekin eta bizitzaren eta naturaren zaintzarekin lotura duten helburuak lortzeko baliabide izatera igarotzen da diru hori bera.

Osagai horietatik abiatuta hurbil gaitzke emakumeen subiranotasun finantzarioa. Gogoan hartu behar da finantza neoliberalentzat emakumeak ez zirela ikusezinak, alderantziz, mikrokredituetan oinarritutako joerak zordun on eta ordaintzaile on horien nitxoetara bideratu ziren, beraien jardura ekonomikoak nazioarteko kapital finantzarioaren kontrolpera eta logikapera lotzeko helburuarekin. Zer eta nola produzitu, edo zer jardura garatu, definizioei lotutako mailegu txikien fluxuak dira oro har, “ekintzailtza” izendatzaile komunaren arabera zabaldu den printzipio eta imaginario enpresarialekin.

Aldi berean, baina beste matrize batean, ugaltu egin dira emakumeak protagonista dituzten beste herri finantza esperientzia solidario batzuk; aurrezki kutxa txikiek eta ugariak, zenbait banketxe komunalek bertako baliabideak mugitzen dituen finantza ehuna osatzen dute, produkzio, zaintza eta kontsumo premiei erantzuteko, eta baita konnotazio ekonomikoa ikusten ez zaien gertaerei erantzuteko ere, esate baterako, komunitateko eta familiarterako festak. Horietan osatzen edo goستن dira lana eta beste baliabide batzuk partekatzeo kidetasun oinarriak, elkarrekikotasun eta lankidetzaren printzipioetan oinarrituta (eta horiek finantzatzeko, mailegu horiek ezean, funtsezko aktiboak utzi behar izan dira, esate baterako abereak).

Hortaz, bai herrialdeentzat bai taldeentzat eta pertsonentzat subiranotasun finantzarioa baliabide horien erabileraren zertarakoarekin lotzen da, autonomiaz eta bizitzaren erreproduktioari lehentasuna emateko printzipioaren arabera definitutako helburuetarako baliabide gisa erabiltzeko aukerarekin.

Osagai horietako batzuk eskualdearen arkitektura finantzarioaren atal gisa diseinatzen dira oraintxe bertan. Esate baterako, Hego Amerikako Nazioaren Batasunean (UNSUR) aurreratzen den arkitekturak kontuan hartzen ditu Hegoaldeko Banketxea, Hegoaldeko Funtsa (NDF ordeztuko asmoarekin) eta sukrea (merkataritza tratuertarako kontu unitatea, diruaren erabilera minimizatzea eta herrialdeko dirua erabiltzea bilatzen duena); horrek ondorioz dakar, besteak beste, diruaren eta bere fluxuen garrantzi erlatibo gaitzitea –aurretik esleitutako funtzioak betetzen dituzten beste tresna batzuk hartzen dituelako–, eta, aldi berean, trukerako beste logika batzuei (hain zuzen ere, jendearen ekonomia txikian iraun dutenei eta orain eskualde maila hartzen

dutenei) balioa ematea eta ikusgai bihurtzea.

ALBA-TCParen kasuan –printzipiotzat lankidetzat, solidaritatea eta osagarritasuna adierazten dituen integrazio alternatiboko eskema–, ALBAren Banketxeak, besteak beste, honako funtzio hauek finkatzen ditu:

- Ekonomia, gizartea eta ingurunea garatzeko bideratutako finantza funtza, itzuli daitezkeenak eta ezin itzuli direnak, sustatzea, sortzea eta administratzea.
- Ondasunen eta zerbitzuen salerosketa modu bidezkoan garatzea eta sustatzea.

Finantzatzeko programen eta proiektuen artean gogoan hartzen ditu:

- Herrialdeetako ekonomian giltzarriak diren sektoreetan garapen ekonomikoa sustatzea: ehun produktiboaren produktibitatea eta eraginkortasuna, lanpostuak sortzeko alorra, garapen zientifiko teknikoa, osagarritasuna eta kate produktiboen garapena hobetzera bideratuak.
- Gizarte garapena sustatzea, osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren, gizarte segurantzaren, garapen komunitarioaren, ekonomia sozialaren alorrean.

Zorrari dagokionez, aurrerakuntzak dira eta aurrerakuntza horien esparruan trantsizio bat gertatzen da, eredu neoliberalaren tresna pribilegiatua den zorretik –helburu horretarako eraikitako erakundeen eta botereen bitartez– subiranotasun ekonomiko eta finantzarioaren esparruan finantza baliabideetako zor baterantz. Hori emakumeak zorra ordaintzeko modu bat da, hau da, lehenetsun ekonomikoen definizioan eta baliabideen erabileran zuzenean parte hartzeko baldintzak sortzea, Ongi Bizitzea eta bizitzaren erreproduktzio zabaldua etorkizun alternatiboa duten prozesuei lotuta.



Ikuspegi feministak eta
antikapitalistak krisialdien
aurrean

Sandra Ezquerria Samper
Gizarte Mugimenduei buruzko Ikaskuntzen Zentroa
(CEMS), Bartzelona



Azken bi urteotan, luze-zabal idatzi eta hausnartu da gaur egungo krisiak langileen artean izan dituen eraginei buruz eta krisiari aurre egiteko asmoz gobernuak hartutako neurrien (ez)eraginkortasunari buruz. Ezker politikoa eta soziala bat datoz krisia sistema kapitalistaren kontraesanen ondorioa dela eta izan dela esatean; dimentsio anitzekoa dela eta krisi finantzarioa, ekonomikoa, ekologikoa, soziala eta, besteak beste, zainketen krisia sortu direla adieraztean; herritarren artean eragin larria izan duela azaltzean; eta, bankuak bete-betean erreskatatzean gobernuak hasitako erantzunen logika betikoa izan dela aipatzean: galerak gizarteratzea eta mozkinak pribatizatzea.

Edonola ere, ez da hain modu orokorrean hitz egin krisiak eta gobernuaren erantzunek emakumeen artean eta, batez ere, emakume langileen artean izan dituzten ondorio zehatzei buruz. Zentzu horretan, begirada feministak erakutsi egiten digu emakumeok larritasunez pairatzen ditugula krisiaren eta zenbait arrazoirengatik egindako ustezko eraldaketen ondorioak. Lehenengo eta behin, historian zehar etxeko erantzukizunak eta zainketak geure gain hartu ditugunez, lan-merkatuan geneukan hasierako egoera gizonena baino ahulagoa zen berez. Zaurgarritasun hori, gainera, are larriagoa izan da gaur egungo egoera ekonomikoaren ondorioz, eta gobernuaren erantzunek ez dute inolaz ere kontuan hartu. Hori dela eta, krisiak are ondorio larriagoak ditu emakumeon artean. Bigarrenez, gure joan-etorriak etengabeak izan dira ekoizpen-munduaren eta ugalketa-munduaren artean, eta egoera hori are nabariagoa izan da, azken hamarkadotan kapitalismo patriarkaleko prozesuak azkartu direnean. Hori dela eta, zainketen krisia sortu da, eta emakumeok biktima nagusiak gara. Hirugarrenez, estatuak, merkatuak eta

gizonek erantzun egokirik eman ez dutenez, zainketen krisia arintzeko, transnazonalitzatu egiten da. Horren ondorioz, lanaren nazioarteko banaketa areagotzen da, nazioarteko migrazio-fluxuak azkartu eta emakumetu egiten dira eta sistemaren pisua gero eta gehiago dago hegoaldeko emakumeen lepoan.

(Lanean) sartzen eta (etxetik) irteten uzten digute, baina erdizka baino ez: kapitalismo patriarkalaren gurpil zoroa

Gaur egungo krisiaren hasieratik, era guztietako komunikabideek behin eta berriro nabarmendu dute krisiak jipoi handiagoa eman diela gizonei emakumeei baino eta oraindik ere halaxe gertatzen dela. Alde horretatik, 2008ko higiezinaren burbuilaren eztanda, lekualdaketak eta industriako enplegu-erregulazioko espedienteak (EEE) kontuan hartuta, errazago azaldu daiteke zergatik azkartu den langabezia gizonen artean eta zergatik murriztu diren gizonen zein emakumeen langabezian zeuden aldeak. Nolanahi ere, emakumeen ustezko pribilegio-egoera edo abantaila hori egunkarietako artikulu eta artikulu akademiko askotako izenburua izan den arren, aldeak eta errealitateak modu kritikoa aztertu ez direnez, emakumeen egoera zehatza ezkutuan geratu da berriz ere.

Zentzu horretan, esan gabe doa genero-isuriak batere kontuan hartzen ez dituztela, estatistiken arabera krisian gizonek emakumeek baino ondorio latzagoak jasaten dituztela azaltzen digutenean –edo batzuen eta besteen artean alderik ez dagoela adierazten digutenean–. Isuri horiek ez dira sortzen estatistikak txarto kalkulatu daudelako edo oker irakurtzen direlako, gizon zein emakumeen posizio sozial zehatza eta posizio hori baldintzatzen duten prozesu patriarkalaren kontuan hartu gabe diseinatu dituztelako baizik. Kalkuluetako emaitzak neutroak bide dira, baina zenbakiak askoz errealitate konplexuagoak ezkutatu dituzte euren atzean¹.

Lehenengo eta behin, gizonen langabezia azkartzeko prozesuari berriro helduta, prozesu horren ondorioz gero eta familia gehiago daude emakumeen soldataren menpean, eta, oro har, txikiak izan ohi da, bi ezkontideen soldata kontuan hartuta. Horrez gain, emakume asko laneratu egin behar dira, nahiz eta adin nagusian egon eta ordaindu gabeko zainketa-ardura ugari eduki.

¹ Esate baterako, iraupen luzeko edo babesik gabeko langabeziari buruz egindako zenbait azterketaren arabera, 30 eta 64 urte arteko gizonak dira horrelako egoeran egon ohi direnak. Hala ere, horrek ez du esan nahi emakumeak gizonak baino gutxiago daudela diru-laguntzarik gabeko langabezia-egoeran. Gizonak emakumeak baino sarriago daude babesik gabeko langabezia-egoera horretan, lehen esan dugunez, nagusi direlako lan-merkatuan, besteak beste. Halaber, babesik gabeko gizon eta emakume langabetuen prozesuak desberdinak dira: gizonak “aktibo” izaten jarraitzen duten bitartean, emakume asko “aktiboek” multzotik irteten dira eta “ez-aktibo” bihurtzen dira: erretiratuak, etxeko andreak, elbarriak... Etxeko andreak, gainera, inolako soldatarik, lan-bermerik eta berme sozialik jaso gabe lan egiten dute etxean eta zainketaren arloan. Emakumeak, beraz, etxeko andreak edo “ez-aktibo” bihurtzen dira, gizonak babes sozialeko kuota agortu duten iraupen luzeko langabetzat hartzen dituztenean. Hori dela eta, ez da egiaztatzen iraupen luzeko langabeziak jipoi handiagoa ematen diela gizonei emakumeei baino, babestutako langabetuen kalkuluan eta kontzeptualizazioen genero-isuri handia dagoela baizik.

Bigarrenez, 2008ko udazkenean higiezinaren burbuilaren eztanda eta automobilgintza-
ren krisia nagusi izan baziren ere, 2009ko udaberrian eskulan-eskariaren beherakada
zerbitzuen sektorerara ere iritsi zen, eta emakumeen %80k baino gehiagok sektore horre-
tan lan egiten dute. Hori dela eta, harrezkero, emakumeen langabeziak ere gora egin
zuen nabarmen. Alde horretatik, azpimarratu behar da emakume langabetuen egoera
gizonena baino txarragoa izan ohi dela, gure diru-laguntzak txikiagoak eta laburragoak
direlako, gure lan-baldintzak ere txarragoak izatean.

Hirugarrenez, estatistiketatik haratago, krisia baino lehen eta bitartean emakumeen
lan-baldintzak nolakoak izan diren hartu behar da kontuan, lan-merkatuan dugun ego-
era gizonena baino ahulagoa eta ezegonkorragoa izan delako beti. Iraganean, feminista
askok emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak emakumeok lan-mundu
“emankorreen” sartzean konponduko zirela iragarri bazuten ere (Boserup 1970; Ko-
llontai 1975), historiaren bilakaerak egiaztatu du gure emantzipazioa ezin zitekeela
hain formula “errazetik” etorri. Izan ere, emakumeak modu orokorrean laneratzean, fa-
miliaren munduan bizi dugun “zapalkuntza pribatua” ez da desagertu, eta, horrez gain,
“zapalkuntza publikoa” edo esplotazio zehatza jasan behar dugu lan-munduan. Gaine-
ra, sistema kapitalista patriarkalean sendotutako lanaren banaketa sexuala hartzen du
sustrai eta aitzakiatzat. Hori dela eta, etxeko lanen eta ordaindu gabeko zainketa ikuse-
zinen ardua daukagu, eta erabat baldintzatzen du lan-munduan daukagun agerpena
-egoera hori are larriagoa da emakume gazteen, emakume etorkinen eta *guraso bakarre-
ko* emakume familia-buruen artean.² (Harcourt 2009; Larrañaga 2009; Otxoa 2009;
Pérez Orozco 2009).

Gaur egun, biztanleen erdiok emakumeak bagara ere, biztanle aktiboen erdiak baino
gutxiago gara, eta, hala ere, langabetuen erdiak ere bagara. Horrez gain, lanaldi osoko
langileen eta ordainpeko prestazioetako onuradunen erdiak baino gutxiago gara ema-
kumeak. Gainera, jasotzen dugunean, iraupena laburragoa da eta ez dugu gizonek bes-
te kobratzen. Lanaldi mugatuko langileen artean, ordea, emakumeen kopurua %80koa
da, eta inolako pentsiorik jasotzen ez duten pertsona ez-aktiboen proportzioa ere berbe-
ra da emakumeen artean. Era berean, amatasunagatiko lan-bizitza etena eta autonomia
mugatuko pertsonen zainketa ere hartu behar dira kontuan. Bestela esanda, emakume-
on artean askoz ugariagoak dira behin-behinekotasuna, lanaldi mugatuko kontratuak
eta azpiokupazioa³. Bestetik, Espainiako emakume okupatuena batez besteko soldata gi-
zonena baino %26 txikiagoa da, lan-merkatuko bereizketa bertikal zein horizontaleko

² Erkatuz gero, oso argigarria da Teresa Amottek eta Julie Matthaek (1996) 1929ko, 70eko hamarkadako eta
90eko hamarkadako krisiek emakume iparramerikarren artean izan zuten eraginari buruz egiten duten azter-
keta. Nahiz eta gehienetan emakumeen langabezia-tasak gizonenak bezain handiak izan ez, emakumeen lan-
baldintzak gizonenak baino askoz latzagoak izan ziren.

³ Nahi gabeko lanaldi mugatuak dira, eta, sarritan, *okupazio anitza* sortzen da euren ondorioz. Dena dela, azter-
tu egin beharko litzateke zer neurritaraino diren benetakoak nahierakotzat hartutakoak. Isabel Otxoak
azaltzen duenez (2009), sarritan emakumeek ez dute gutxiago lan egiten zaindu egiten dutelako. Izan ere,
zainketan espezializatzen dira, kanpoan ezer eskaintzen ez dietelako.

biktimak gara oraindik eta emakume haurdunak zein amatasunagatiko lanaldi-murrizketadun emakumeak baztertu egiten dituzte. Azkenik, emakumeok gizonak baino agerpen handiagoa daukagu ezkutuko ekonomian, eta, horren ondorioz, ez dugu lan eta gizarte arloko eskubiderik (Sales 2009; Ezquerria eta Varela 2010).

Laura Salesek Fundació Surtentzat egindako txostenean adierazten denez, gizon eta emakumeen langabezia-tasen arteko aldeak sinpletasunez aztertzen baditugu, krisiak emakumeen artean izan duen eraginari buruzko interpretazio okerrak egin daitezke -eta, batzuetan, halaxe gertatu da-: krisiak emakumeen lan-egoeran eraginik izan ez duela, lan-merkatuan genero-berdintasuna lortu dela, okupazioa emakumetu egin dela eta emakumeen mesederako eta gizonen lanpostuen kalterako izan omen dela eta, horren ondorioz, genero-berdintasunerako politikarik ezarri behar ez dela. Esan gabe doa ondorio horiek benetakoak ez direla, oso kaltegarriak izan daitezkeela eta eragin larriak sortu ditzaketela.

Feminismoak edo, hobe esanda, feminismoek ezin dute onartu sinplifikazioaren aldeko azterketak zalantzan jarri gabe orokortuak izatea, isolatutako datuetan oinarrituta emakumeek krisiaren aurretik lan-merkatuan nolako egoera zuten eta nolako ondorioak jasan dituzten kontuan hartzen ez badute. Zapalkuntzen lehia hutsetik edo estatistika ofizialen azaleko irakurketatik haratago joan behar da gure kritika. Salesek nabarmentzen duenez, emakumeek ez dute gizonen baldintza berberetan lan-merkatuan parte hartzen. Beraz, “langabeziari zein okupazioari buruzko datuak aztertzean, ezinbestekoa da emakumeen okupazioaren kalitatea eta lan-merkatuan emakumeak ahultzen dituzten inguruabarrak kontuan hartzea” (Sales 2009), krisia baino lehen eta bitartean.

Gobernuaren erantzunak: betikoak

Espainiako Alderdi Sozialistaren (PSOE) gobernuak krisiari emandako erantzunetan, ez da generoaren ikuspegia kontuan hartu langabezia-tasak irakurtzeko orduan. Jarrera hori, beraz, ez dator bat parekotasuna zein berdintasuna defendatzen dituen alderdiarekin. Hasieran, neurri (neo)keynesiarrak hartu behar zirela aipatu zuten, eta kapitalismoa bera birsortu beharra zegoela ere esan zuten. Edonola ere, kutsu soziala eman badiete ere, argi eta garbi dago Zapateroren gobernuaren apustuak neoliberalak izan direla eta oraindik ere badirela eta herri-sektoreen interesen aurkakoak direla. Era berean, eredu ekonomikoa aldatzeko benetako borondate politikoaren ondorioz sortu ez diren larrialdi-neurriek ekologiari eta ekonomiari begira iraunkorrak ez diren sektoreen erreskatearen aldeko apustua egin dute. Gainera, krisia baino lehen eta bitartean genero-desberdintasunak aitortu ez direnez, desberdintasun horiek berregin eta betikotu egiten dira ezinbestean.

Krisiaren hasieran, finantza-erakundeak diru publikoaren bidez erreskatatu zituzten bete-betean, eta, aldi berean, ohiko neurri ekonomikoak ere hartu zituzten; esate baterako, interes-tasen jaitsiera. Handik gutxira, enplegua eusteko eta suspertzeko neurri zuzenak eta zeharkakoak aurkeztu zituzten; esate baterako, Espainiako Ekonomia eta

Enplegua Suspertzeko plan ospetsua edo 2000E Plana⁴. Lehenengoa ekonomia suspertzeko plan izarra zen, eta inbertsio sozialak aipatzen ziren bertan. Praktikan, ordea, azpiegitura fisikoen aldeko apustua egin zuten, enpleguan eragin handiagoa izango omen zutelakoan. Hona hemen horren inguruko galderak: Noren enplegua? Nolako enplegua? Denok dakigunez, eraikuntzaren sektorean dago erantzuna. Sektore horrek, hain zuzen ere, ez-iraunkortasun ekonomiko, sozial eta ekologiko handia dauka, eta gizonen sektorea dela esan daiteke, gizonen %16k eta emakumeen %1,9k lan egiten baitute bertan. Isabel Otxoak azaltzen zuenez (2009), krisiaren lehen urtean enplegua sortzeko txertatutako 11.000 milioi euroetatik, gehienak sektore horretara joan ziren. 400 milioi euro baino ez ziren *menpetasunera*⁵ joan, eta, hala ere, diru-kopuru txiki horren zati handi bat azpiegiturretan inbertitu zen. Bestetik, finantziario guztia baldintzapean esleitu zen, eta inbertsioak oso epe laburretan egin behar ziren derrigorrean. Dena dela, ez zen inolako betekizunik ezarri, kontratazioetan emakumeak egon behar ziren zehazteko.

Inbertsio sozialak, hau da, umeentzako atentzioaren orokortasuna edo Menpetasunari buruzko Legearen garapena lehenetsi izanez gero, enplegu iraunkorra sortuko zen, eta, aldi berean, eragin zuzena izan zezakeen emakumeen zein gizonen ongizatean, une latzak bizi dituztenean. Borondate politiko eraldatzailea “besterik” ez zen izan behar. Alde horretatik, gobernua hartutako erabakietan, argi eta garbi ikusten da nolako enplegua sustatu nahi izan duten eta nolako lehentasun ekonomikoak eta (ez) sozialak zehaztu dituzten garapen zein hazkuntzarako ereduaren bidez.

Krisiaren bigarren unean, zerga-krisia nagusi izan da neurri batean. Washingtongo, Bruselako eta Nazioarteko Diru Fountseko jarraibideen arabera, badira zenbait hilabete gobernua Zorroztasun Planaren ezarpena iragarri duela. Gobernuaren aurreikuspenak kontuan hartuta, 50.000 milioi euroko murrizketa egin liteke gastu publikoan, 2011. urtetik 2012. urtera. Murrizketa horiek gastu sozialean inolako eraginik izango ez zutela behin eta berriro adierazi arren, *Artazi-ebakiaren*⁶ iragarpenak ageri-agerian utzi du gastu soziala bera izango dela kaltetuena. Horrez gain, *Artazi-ebakiak* ondorio larriak eragingo ditu honako hauexen artean: langileak, aitak, amak, pentsiodunak eta, besteak beste, lankidetzarako laguntzaren jasotzaileak. Azken hamarkadotako historian oinarritutako esperientziari erreparatuz gero, argi dago zorroztasun-planetan oinarritutako berregituraketa ekonomikorako neurriek oso eragin larriak dituztela emakumeen artean, honako hiru arrazoi hauengatik:

Lehenengo eta behin, sektore publikoan dugun ordezkari larregizkoa da, baina, batez ere, irakaskuntzan, osasunean edo gizarte-zerbitzuetan. Lanpostu publikoak murriztu,

⁴ 2.000 euroko laguntza, ibilgailua erosteko.

⁵ Autonomia mugatuko pertsonak euren etxean zainduak izateko laguntzak.

⁶ 2010eko udaberrian, Espainiako gobernua murrizketak egin zituen gastu publiko sozialean: administrazioko langileen soldaten murrizketa, nazioarteko lankidetzarako gastuaren murrizketa, pentsioen izozketa, “sein-txekearen” desagertzea eta menpetasunagatiko prestazioetako atzeraeraginaren desagertzea, besteak beste.

kanporatu edo azpikontratatu egiten direnean, emakumeok gara kaltetuenak. Bigarrenez, ekonomiaren aldetik biztanle zaurgarrienak garenez, emakumeon artean are eragin handiagoa dute zerbitzu publikoetan eta prestazio sozialetan egindako murrizketek. Hirugarrenez, berriro ere, betiko moduan, emakumeok gastu publikoaren murrizketa ordezkaturiko dugu inolako soldatarik gabe etxean garatzen dugun lan ikusezinaren bitartez (Harcourt 2009).

Helburua ez da sistemak eta bere krisiek gizon langileen eta beste biztanle-sektore batzuen artean dituzten eraginak gutxiatea eta arintzea, oraindik ere emakumeok bigarren mailako herritarrak eta langileak garela agerian jartzea baizik, inguruko isiltasuna itzela da-eta. Estatistika ofizialek diotena diotela ere, gaur egungo krisiak emakumeon bigarren mailako agerpen hori betikotu eta larriagotu egiten du, baita lan-merkatuan bizi dugun larregizko esplotazioa ere. Horretarako, gainera, inguruko en zainketetan omen daukagun ardura erabiltzen dute aitzakiatzat. Gobernuaren erantzunen asmoa ez da joera horri aurre egitea. Are gehiago, Estatuak zati batez onartutako zenbait ugalketa-zeregin itzuli zaizkie emakumeei, eta, horren ondorioz, arrazoia, aitzakia eta/edo koartada egokia izango dute, emakumeok lan-merkatuan dugun kokapena periferikoa izan dadin.

Kapitalismo patriarkalak eta kapitalismo hori kudeatzen duten elite politikoez gorpil zoro horretara garamatzate: emakumeok erdizka sartuko gara lan-merkatuan, etxetik ere erdizka irten garelako, eta bi prozesuak elkarren artean indartuko dira etengabe.

Zainketen krisia: oreka ezegonkorraren amaiera

Diskurtso ofizialetan aurkakoa iragarri arren, gaur egungo krisiak emakumeen artean izan dituen zenbait eragin izan dira orain arte aipatutakoak. Nolanahi ere, emakumeok 2008. urtea baino lehen geunden krisian. Nolabait esateko, betidanik egon gara krisian, baztertu egin gaituztelako eta bigarren mailako agerpena izan dugulako ordainpeko lan-munduan, politikan, kulturen eta arlo pribatutik, etxetik eta pertsona zein gauza guztien zaintzaile moduan dugun berezko eta ohiko zereginetik haratago dauden mundu guztietan.

Gure zainketa-lana ezkutuan izan duten arren, historiari begira lan hori sistema kapitalistaren euskarria izan da funtsean. Zainketa ez da ekoizpen-sistemako appendize hutsa, lotura estu-estua izan duelako kapitalismo patriarkalarekin eta haren iraupena zein ugalketa bermatu dituelako (Ezquerria 2010a). Edonola ere, azken hamarkadotan kapitalismoaren beraren kontraesanak azkartu egin direnez, emakumeon lepoan, etxeko lanean eta zainketetan oinarritutako sistemaren oreka ahula apurtu da. Oreka ezegonkor horren amaierari zainketen krisia esan diote. Emakumeak krisi horretako protagonista nagusiak dira, eta krisi horrek modu pribilegiatuan jarri du kolokan sistema kapitalista patriarkalaren bideraezintasuna. Izan ere, berriro gogorarazten digu sistema horren esparruan ez dagoela ongizatearen logikan oinarritutako gizartea eratzerik. Zoritxarrez, zainketen krisiaren ondorioz sistema kolokan jartzeko eta aldatzeko sortutako aukerari

emandako erantzun politiko, ekonomiko eta sozialak erabat etsigarriak izan dira (Pérez Orozco 2006; Larrañaga 2009; Ezquerria 2010b). Alde horretatik, beraz, kapitalismoaren aurkako feministok zer egin ugari dugu oraindik.

Zainketen krisiaren jatorria

Mendebaldeko herrialde askotan eta, euren artean, Estatu espainolean, zainketen krisia hasi zen orain dela zenbait urte. Horren ondorioz, ageri-agerikoa da biztanle-sektore zabalengizatea bermatzeko ezintasun sozial eta politikoa dela nagusi. Egoera hori honako arrazoi hauengatik sortu da: emakumeak oro har laneratu dira, biztanleak gero eta zaharragoak dira eta azken hamarkadotako politika neoliberalen ondorioz atzera egin dugu ongizatearen estatuan. Horrez gain, hiri-hazkuntzarako eredu berriek familien zainketaren antolaketa iraunkorra eragozten dutenez eta gure bizitzak atomizatu eta ezegonkortu egin direnez, menpeko senideak dituzten emakume askok zama eta erantzukizun gehiago dituzte, eta autonomia mugatuko pertsona ugari ez dute behar besteko zainketarik jasotzen.

Hori guztiori dela eta, ageri-agerikoa da historiari begira emakumeek soldatarik gabe eta ezkutuan garatu duten zainketaren antolaera tradizionala iraunkorra ez dela eta oso oso premiazkoa dela erantzukizuna bidezkotasunez eta modu kolektiboan birbanatzea, pertsonen ongizatea bermatu ahal izateko. Nolanahi ere, lehen adierazi dudana bezala, inplikaturako eragile nagusien erantzuna ez da behar bezalakoa izan, eta, horren ondorioz, zainketen krisirako irtenbide faltsuak eskaini direnez, internazionalizatu ere egin dira aldi berean.

Zainketen krisirako irtenbide faltsuak

Azaldutako egoerak zainketa zenbait eragileren artean partekatze eta garatzeko modua berriro diseinatzeko aukera eskaini duen arren, gaur egun ere emakumeen berezko zeregintzat hartzen da, gizartean erabat baztertuta dago eta ez du inolako zeresanik ez arlo politikoan ez arlo ekonomikoan.

Estatuari dagokionez, azken aspaldian haur-eskolen kopurua ugari da Estatu espainolean, edo Menpetasunari buruzko Legea onartu da. Hori horrela izanik ere, neurri horiek ez dira nahikoak, ez dute lanaren banaketa sexuala kolokan jartzen eta hutsaren hurrengo dira, zerbitzu publikoak pribatizatze, liberalizatze eta desregulatze politikak neoliberalak eten barik ezarri ondoren. Gainera, adierazi behar da gaur egun Estatu espainolak umeen arretarako *per capita* inbertsio txikiena duela Europar Batasun osoan (Navarro 2009). Adibideren bat ematearren, AEBetako baina txikiagoa ere bada esan daiteke, eta, guztiok dakigunez, herrialde horretako ongizate-estatu mendebaldeko mundu osoko urrienetakoa da. Bestetik, beti bezala, enpresa pribatuek ez dute benetako aldataririk onartzen, mozkinaren logikatik urrunduko dituelakoan. Horrez gain, uztartekarako ustezko aukera gehienak eta, euren artean, lanaldi mugatuak bat datoz patronalak lan-merkatua malgutzeko etengabe egin duen proposamenarekin.

Familia-arloari dagokionez, zainketaren funtsezko oinarri-sarea zen familia zabala ahuldu egin denez eta gizonek euren erantzukizunei etengabe uko egiten dietenez, oraindik ere emakumeok gara zainketaren eta ugalketaren hornitzaile nagusiak (Zabala 2008). Aldi berean, gure esplotazioa larregizkoa da lan-merkatuan, eta agerpen bikoitza biderkatu da. Izan ere, Izquierdok adierazi duenez (2003), gero eta argiago dago “agerpen ausentzia bikoitza” dela.

Pribilegiatuenean merkatura jotzen dute merkaturatutako zainketa eta agerpen horiek erosteko, eta, neurri handi batean, ezegonkortasun larrian bizi diren emakume etorkiniek garatzen dute lan hori (Parella 2003). Garai feudalekoak bide diren xedapenetan, 1424/1985 Errege Dekretuak, Estatu espainoleko etxeko lanaren gaur egungo esparru arautzaileak, gauzako prestazioak legalizatzen ditu, eta, besteak beste, ez du idatzizko kontraturako edo langabezia diru-laguntzarako eskubiderik aitortzen. Era berean, oso anbigua denez, zenbait lege-hutsune ditu, eta, horri esker, beste baldintza eskandalagarri batzuen artean, hamabi ordutik gorako lanaldiak egin daitezke era partzalean ordainduta eta irazpen librea doakoa da ia-ia. Zabarkeria horien guztien aitzakia moduan, etxeko lana, ordainpeko beste jarduera batzuen aldean, lan-harreman “berezia” dela adierazten dute. Tamalez, Estatu espainolekoa ez da kasu isolatua, eta etxeko lana ez da inongo herrialdean lan-jardueratzat edo “benetako” lantzat hartzen (Martínez Veiga 1995; López eta Toscani 2006; Castelló 2007; Ezquerria 2008; Zabala 2008).

Horrela, bada, 1424/1985 Errege Dekretuak Estatuaren, merkatuaren eta gizonen zabarkeriak ordezkatzeko dituen lanaren arauketa-falta eta informaltasuna legalizatzen ditu, bai eta emakumeen erdizkako ausentzia edo agerpena ere. Legalizazio horren ondorioz, Estatuak ez du ongizatearen eta zainketaren gaineko erantzukizunik, eta emakume langileen esku uzten ditu itzelezko lan-ezegonkortasun legalizatupean, “arloan publikoaren” atzerakuntza familientzat garestiegia izan ez dadin. Edonola ere, zerk bermatzen du emakumeak baldintza horietan lan egiteko prest egongo direla (ez dugu geure burua engainatuko, gehienak emakumeak dira-eta)?

Zainketen krisiaren internazionalizazioa

Estatu espainolak eta iparraldeko herrialde guztiek ez dute inolako ahalkerik, atzerritar-tasunari buruzko lege xenofoboak eta heterosexistak diseinatzeko orduan. Horien bidez, emakume etorkinak Europako Gotorlekuan eta Estatu espainolean sartzen dira, baina etxeko lanak eta zainketa-lanak egiteko aukera baino ez diete eskaintzen lanaren zein bizitzaren arloan -guztiantzat ezagunak diren baldintzetan-, inork ez dituelako egin nahi (Mestre 2001; Ezquerria 2008).

Egoera apur bat gehiago arakatzuz gero, are konplexu eta maltzurragoa da. Gaur egun, *emakume zaintzaile profano*⁷ etorkinen erreserba-armada dago lan horretarako prest,

⁷ Haro Encinas, J.A. (2000) c.fr. Vega Solís, C. (2009): *Culturas del cuidado en transición. Espacios, sujetos e imaginarios en una sociedad de migración*. Barcelona, Editorial UOC.

hegoaldeko herrialdeetako milioika emakumek bertatik alde egin behar izan dutelako, laurogeiko hamarkadatik iparraldeak eta bertako finantza-erakundeek, Nazioarteko Diru Funtsak, esaterako, inposatutako berregituraketa ekonomikoaren ondorioz. Politika horiek egiturazko Egokitzapenerako Programa ospetsuen bitartez ezarri dira, batez ere. Hori dela eta, biziraupen-nekazaritza desagertu da, ekoizpen-baliabideak zein aberastasuna metatu dira, langabeziak nahiz azpiokupazioak gora egin dute eta hegoaldeko sektore publikoa ito egin da. Prozesu horiek oso-oso ondorio larriak sortu dituzte herrialde horietako emakumeen artean, tradizioari begira agerpen handia izan dutelako nekazaritza txikian eta sektore publikoetan; irakaskuntzan eta osasun-arloan, esaterako. Horrez gain, hemen bezala, bertako aurrekontu sozialak murriztu egin dituztenez, Estatuaren ordezkoko nagusiak dira, pertsona ahulenak zaintzeko orduan.

Euren familiak mantentzerik ez dutenez, askok eta askok Estatu espainolera eta beste leku batzuetara emigratzen dute, beste batzuen seme-alabak eta adinekoak zaintzeko, eurenak senarren, ahizpen, amen edo adiskideen ardurapean uzten dituzten bitartean. Hartara, iparraldeko demokrazia liberaletako ongizate-estatuaren esparruan zainketen krisia konpontzeko borondate politikorik ez dagoenez, hegoaldeko krisi iraunkorra erabiltzen da milioika emakume zaintzaile inportatzeko. Emakume horien diasporak kapitalismo patriarkalaren eta iparraldeko bizitzaren euspenaren arteko kontraesan bateraezina ezkutatzeko funtzioa betetzen du, eta, beste krisi askoren artean, zainketen krisia sakon-sakon larriagotzen du hegoaldeko herrialdeetan. Iparraldeko zein hegoaldeko berregituraketa ekonomikoaren ondorioz, gure gobernuei diruz laguntzen diete, oso-oso baldintza ezegonkorretan bizitzako ugalketa-zereginak hartzen dituztelako euren gain. Horrez gain, sorterriko gobernuei eta ekonomiei ere laguntzen diete “aurrera egiten”, diru-sorta handiak bidaltzen dituztelako, eta, leku askotan, beste edozein dibisa-iturri baino askoz handiagoak dira gaur egun. Izan ere, funtsezkoak dira hainbat biztanleren biziraupenerako (Fulleros eta Lee 1989; Chang 2000; Ezquerria 2007). Halaber, gaur egun hemen dugun zainketa-hutsunea mozorrotzeko asmoz iparraldeko estatuek emakume horien lanari etekina ateratzen dioten arren, ez dute haien ugalketan eta seme-alabetan ezertxo ere inbertitu behar, haien sorterrietan daudelako gero eta txiroagoak eta urriagoak diren administrazio, erkidego eta familien ardurapean. Ironikoa badirudi ere, Estatu zabarretatik ihes egiten dute, antzekoak diren beste batzuei “diruz laguntzeko”.

Lanaren eta eskubideen nazioarteko banaketa gero eta hierarkikoagoa dela kontuan hartuta, emakume horiek gura afariak prestatu, gure oheak egin, gure seme-alabak zaindu eta gure adinekoak zaintzen dituzten bitartean, euren seme-alabak bakar-bakarrik hazten dira urteetan zehar. Gainera, helduak direnean, askok mugak gurutzatzen jarraitzen dute, eta euren senideak uzten dituzte atzean, euren amak ordezkatzeko eta beste pertsona batzuen zerbitzariak izateko. Halakoetan, euren familiak ere uzten dituzte atzean (Parreñas 2001; 2005). Hori dela eta, “zainketaren nazioz haraindiko katea” gurpil zoro dramatiko da, kapitalismo patriarkalaren iraupena bermatzen du eta bere izaera baztertzailea ezkutatzen du.

Estatuak eta enpresek krisiari eman dizkioten erantzunak ere ez dute etxeko lanen banaketa sexuala aldatu, ezta zentroko ugalketa-lana antolatzean kontuan hartutako gizarte-mailaren osagaia ere. Hain zuzen ere, egoera are konplexuagoa da horren ondorioz: azaldutako kontraesanak konpontzeko, gizonak ez dira oro har eta berdintasunez inplikatu zainketaren lanean, Estatuaren zainketa-lana ez da indartu eta, zer esanik ez, sistema ekonomikoa ez da “gizatiartu”. Espainiako etxeetan, milaka emakume etorkin ugalketa-eskulan moduan sartzean, bertoko emakumeen zapalkuntza patriarkala moztortzen da, sarritan familiako genero-rolak aldatu beharrean euren rolaren zati bat eskuordetzen dietelako haien jatorri nazional, posizio sozio-ekonomiko eta egoera administratiboagatik menpetasun-egoeran dauden emakumeei. Lanaren banaketa sexuala eta horrekin lotutako genero-zapalkuntza lekualdatu egin dira, eta, orain, “ordezko” emakumeen lan-esplotazioan eta arraza-bereizkerian daude kokatuta, oso-oso segmentatuta dagoen lan-merkatuan (Ezquerria 2010). Hartara, ugalketaren eta zainketen krisiak agerian jarritako kontraesanez ez dute erantzunik aurkitu gizartearen antolaeran generoaren zein gizarte-mailaren arloan dagoen isuria kolokan jartzean. Izan ere, kontraesan horiek kudeatzeko orduan, “irtenbidea bera kanporatu, *etnifikatu* eta internazionalizatu” egiten denez, berriro ere Estatuak, merkatuak eta gizonak ez dute inolako erantzukizunik. Era berean, desberdintasun-ardatz berriak agertzen dira, eta lehendik zeudenak areagotzen dira.

Ondorioa

Alde horretatik, kapitalismoaren aurkako ikuspegi feministak agerian uzten du emakumeon artean oso ondorio latzak izan dituztela krisiaren eta zenbait arrazoirengatiko usteko eraldaketen eraginek. Historiari begira, etxean eta zainketen arloan ditugun erantzukizunekin bat egitean, lan-merkatuan hasieran geneukan egoera gizonena baino ahulagoa zen berez. Ahulezia hori gaur egungo egoera ekonomikoaren ondorioz larriagotu denez eta gobernuaren erantzunak kontuan hartu ez dutenez, krisiak are ondorio larriagoak ditu emakumeon artean. Ekoizpen eta ugalketa munduen artean egiten ditugun joan-etorriak etengabeak dira, azken hamarkadotan kapitalismo patriarkaleko prozesuak azkartu egin direlako. Hori dela eta, zainketen krisia sortu da, eta emakumeok biktima nagusiak gara. Estatuak, merkatuak eta gizonak behar bezalako erantzunik eman ez dutenez, zainketen krisia internazionalizatu egin da. Horren ondorioz, lanaren nazioarteko banaketa sakonagoa da, nazioarteko migrazio-fluxuak azkartu eta emakumetu egin dira, eta sistemaren pisua gero eta sarriagotan dago hegoaldeko emakumeen lepoan.

Krisiari, sistemari eta emakumeok bertan dugun kokapenari begirada orokorra emanez gero, argi eta garbi dago lan-mundua, zainketaren mundua, immigrazioa, iparraldeko emakumeen zapalkuntza, hegoaldeko emakumeen esplotazioa eta herrialdeen zein emakumeen arteko nazioarteko desberdintasunezko harremanak hartu behar direla kontuan, baina, aldi berean, ezinbestekoa da elementu horiek guztiak prozesu bereko osagaiak direla ikustea: beraren ekuazio ulertezinetan bizitza eta zainketa kontuan hartu

gabe metaketaren zein mozkinaren logikan oinarritzen den kapitalismo patriarkal eta arrazistaren aurrerakuntza itzela. Hori guztiori dela eta, emakume, langile eta zaintzaile moduan daukagun errealitatearen bereizgarritasuna eta geure aniztasuna zein ugaritasuna hartu beharko ditugu kontuan, egoera horri aurre egiteko beharrezkoak diren erantzunak egituratu ahal izateko.

Bibliografia aipua

- Amott, T. eta Matthaei, J. (1996): *Race, Gender, and Work. A Multi-Cultural Economic History of Women in the United States*. Boston, South End Press.
- Boserup, E. (1970): *Woman's Role in Economic Development*. New York, St. Martin's Press.
- Castelló, L. (2007): *Les formes de gestió del treball domèstic assalariat a l'Estat Espanyol*. Departament de Sociologia de la Universitat Autònoma de Barcelonan aurkeztutako tesina.
- Chang, G. (2000): *Disposable Domestic*. Cambridge, South End Press.
- Ezquerria, S. (2007) "Hacia un análisis interseccional de la regulación de las migraciones: la convergencia de género, raza y clase social", hemen: Santamaría, E. (ed.) (2008): *Los retos epistemológicos de las migraciones transnacionales*. Bartzelona, Anthropos.
- Ezquerria, S. (2008): *The Regulation of the South-North Transfer of Reproductive Labor: Filipino Women in Spain and the United States*. Eugene, University of Oregon.
- Ezquerria, S. (2010a): "La crisis de los cuidados: orígenes, falsas soluciones y posibles oportunidades". *Viento Sur*, 108. zk.
- Ezquerria, S. (2010b): "A propósito de la crisis ¿qué pasa con la de los cuidados?" *Diagonal*, 121. zk.
- Ezquerria, S. eta Varela, R. (2010): "La crisis desde una perspectiva de género: el caso de la Reforma Laboral". *Diagonal*, 126. zk. (prentsan).
- Harcourt, W. (2009): El impacto de la crisis en las mujeres de Europa Occidental. AWID. Hementxe dago ikusgai: <http://www.awid.org/eng/About-AWID/AWID-News/Briefs-The-Impact-of-the-crisis-on-Women>.
- Fulleros, A. eta Lee, L. (1989): *The debt crisis. A treadmill of poverty for Filipino women*. Manila, Kalayaan.
- Izquierdo, M. J. (2003): "Del Sexismo y la mercantilización del cuidado a su socialización: hacia una política democrática del cuidado". "Zaintzea ez da erraza: zainketaren kostuak eta onurak" SARE Nazioarteko Biltzarrean aurkeztutako txostena. Donostia. Emakunde eta Europar Batasuna/Europako Gizarte Fondoa.
- Kollontai, A. (1975): *Autobiografía de una mujer sexualmente emancipada*. Bartzelona, Anagrama.

- Larrañaga, M. (2009): "Mujeres, tiempos, crisis: Combinaciones variadas". *Revista de Economía Crítica*, 8. zk.
- López, J. eta Toscani, D. (2006): *Los trabajadores al servicio del hogar familiar. Aspectos laborales y de seguridad social. Propuestas de reforma*. Albacete, Bomarzo editoriala.
- Martínez Veiga, U. (1995): *Mujer, trabajo y domicilio*. Bartzelona, Icaria.
- Mestre, R. (2001): *Feminisme, dret i immigració: una crítica a la llei d'estrangeria*. Valentzia, Zuzenbide, Moral eta Politikaren arloko Filosofia Saila. Valentziako Unibertsitatea.
- Navarro, V. (2009): "Impacto del clasismo y el machismo". *Público*, 2009ko uztailaren 30a.
- Otxoa, I. (2009): "Anticapitalismo: algunas razones desde el feminismo". *Viento Sur*, 104. zk.
- Parella, S. (2003): *Mujer, inmigrante y trabajadora: la triple discriminación*. Bartzelona, Anthropos.
- Parreñas, R. (2001): *Servants of globalization. Women, migration and domestic work*. Stanford, Stanford University Press.
- Parreñas, R. (2005): *Children of global migration. Transnational families and gendered woes*. Stanford, Stanford University Press.
- Pérez Orozco, A. (2006): "Amenaza tormenta: la crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico". *Revista de Economía Crítica*, 5. zk.
- Pérez Orozco, A. (2009): "Feminismo anticapitalista, esa Escandalosa Cosa y otros palabras". 2009ko abenduan Granadan egindako *Estatuko Jardunaldi Feministetan* aurkeztutako txostena.
- Sales, L. (2009): *Informe de Recerca. Dones en crisi*. Bartzelona, Institut Català de les Dones.
- Vega, C. (2009): *Culturas del cuidado en transición. Espacios, sujetos e imaginarios en una sociedad de migración*. Bartzelona, UOC editoriala.
- Zabala, B. (2008): *Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento*. Tafalla, Txalaparta.



Emakume maiak:
historia, oreka eta autonomia

Carmen Álvarez Medrano
Kaqla Emakume Maiak, Guatemala



Emakume maiok gogoan dugu unibertsoaren eta planetaren alabak garela, Lurraren bi-hotza, unibertsoaren existentzia eta gurea posible egin zuen eta egiten duen energiarena, baina aitortu behar dugu ahaztu egin dugula planeta honetan bizi garela gutxienez beste 30 milioi espezierekin batera, planeta hau gure etxea dela, guztiona, bizitza-sarearen zati garela eta planeta hau txikia dela, hauskorra, eta zaindu egin behar dugula.

Gaur egungo zibilizazio nagusiari dagokionean, badaude zenbait alderdi oso arriskutsu, ezinbestean ezabatu beharko liratekeenak, hain zuzen ere, dirua eta boterea izateko desira, kontsumo konpultsibo, hondatzaile, arduragabe eta gaiztoa.

Testuinguru jakin bat dugu abiapuntu: planetako klima aldatzen ari da eta aldaketa horrek dagoeneko eragin argia du gure bizitzan¹, emakumeen aurkako indarkeria, eta delinkuentzia orokorrean, areagotu egin da, eta Estatuko instantziek herri indigenen eskubide kolektiboak oztopatzen jarraitzen dute.

Gainera, zapalkuntza historikoen eta barneko gerra honek eragindako zauri sozial, emozional, fisiko eta espiritualak irekita dituzte oraindik herritar gehienek, eta zehazki emakume maia eta herri indigenek. Orokorrean gizarte patologikoki gaixo batean bizi

¹ Temperatura aldaketa zakarrek, erauntsien maiztasunak, euria egiteko moduan izandako aldaketek eta abarrek ondorio larriak dituzte landare-estalkian eta lurzoruetan, labore eta uztetan. Ur-emariak urritu egin dira eta azken urteetan handitu egin da zaborrek eta agrotoxikoen eragindako kutsadura; izadiaren historian aurrekaririk ez duen eran areagotu da baliabide hidrikoen gaineko presioa.

gara, non indarkeria areagotu egin baita, eta, ondorioz, gizonak, emakumeak eta haurrak behartuta daude bizitzari aurre egiteko jokamolde eta jarraibide berriak hartzera, eta horiek ez dira izan beti zintzo eta egokienak.

Gaur egun erkidegoko buruzagi eta erakunde indigenentzat erronka politiko, historiko, kultural, sozial eta ekonomikoa da gure errealitatea eraldatzea gu geu ardatz hartuta, gure oinarrizko giza beharrezanetatik abiatuta, gure jakintzen berreskuratzean oinarrituta, gure esentziazatik, gure kultura eta mundu ikuskeratik, non herri bakoitzak autodeterminazio eta autogobernurako boterea izango baitu, bakoitzaren beharrezan, ezaugarri, interes eta mundu ikuskeraren arabera, betiere, aintzat hartuta espezie bat gehiago garelako planetan eta bizitza-sarean.

500 urteko zapalkuntzaren eta 36 urteko barne gerra horren testuinguruan, kaltetuenak emakume eta haur maiak izan gara. Isiltasuna gailendu zen biziraupenaren alde: ez begirik ikusteko, ez ahorik hitz egiteko; isiltasuna nagusi pobrezia, bereizkeriaren, arrazakeriaren eta sistema patriarkalaren aurrean. Beldurra arma sotila eta boteretsua izan da, izan ere, gerra amaitu zen arren, beldurra gure gorputz eta espirituetan geratu zen. Zapalkuntzen internalizazioak eta alienazioak belaunaldi berriengan eragin dute gehienbat, maien kultura eta mundu-ikuskeraren balioa galtzea eta baztertzea ekarri baitute, eta baita identitate-elementuena ere, sinestarazi digutelako, eta sinetsi dugulako, maia edo indigena izatea lotsagarria dela. Errealitate hori geure egin dugu, eta, horrenbestez, alienazio-egoeran bizi gara, besteak bezalakoak izan nahian, eta horrek ekarri digun bakarra frustrazioa, pobrezia eta desberdintasuna izan dira. Horregatik, Kaqlaren nahia da zenbait tresna eta planteamendu mahai gainean jartzea, emakume eta gizonezko maiak gai izan daitezen errealitate hori ikusi eta zalantzan jartzeko, eta baita ere, berriro sortu edo aldatzeko.

Gertaera historikoak

Errealitate hau kokatzen duen gertaera historikoa da inbaditzaile espainiarrak lurralde hauetara iristea. Lehenik eta behin, instituzio, sinismen, praktika eta balioen inguruan antolatutako munduaren haustura eragin zen, eta ordena sozial berria ezarri zen, esklabotasuna eta enkomienda zapalkuntza modura erabiliz; eta, horrela, antolaketa-oinarri horien gainean finkatu zen erregimen koloniala. Hortik aurrera, eta mendeetan zehar, jatorrizko herri indigenek jasan dituzten gehiegikeriak, bereizkeria eta pertsona nahiz lurraldeen jabetzeak agerpen ugari izan dituzte.

Hurbileko testuinguru batean, herrialdeak 36 urte baino gehiagoan bizi izan zuen gatazka armatuak milaka pertsonen hilketa eta desagertzea eragin zuen, eta milioi erdi desplazatu baino gehiago izan ziren, gehienak indigenak. Deserrotzea izan da gerraren ondorioetako bat, eta horrek dimentsio traumatikoa izan du alderdi askotan: gizatiarra, kulturala, materiala, psikologikoa, ekonomikoa, politikoa eta soziala; izan ere, giza eskubideak etengabe urratu dira, eta atzean utzi behar izan ditugu gure etxeak, gure bizimodua, kultura, eta, horrenbestez, gure identitatearen zati bat. Emakume kopuru

zehaztugabeak jasaten ditu gerra garaiko eta geroko barne desplazamenduen eta sexu-indarkeriaren ondorioak, erkidegoetan eta herrietan indarkeria bizirik baitago.

Gure bizitzan berebiziko garrantzia izan du zapalkuntzaren internalizazioak, izan ere, menderatuak izan eta gero, zapalkuntza jasaten zuten zenbait herritar zapaltzaileak miretsi eta imitatzen heldu ziren, taldearen identitatea eta ongizatea ahazteraino, eta, horrela, asko eta asko anaien borrarero bihurtu ziren. Beste herritar batzuek, berriz, bizirau-teko erresistentzia-moduak eta trebetasunak landu zituzten: kristauak egin ziren, elizara hurbildu ziren beraien erara, beti esaneko agertzen zuten euren burua, eta abar. Alabaina, horrenbeste urtetan otzan agertu eta inbaditzaileen irudikapen sinbolikoak onartzearen poderioz, otzantasuna bihotzean barneratu zen eta disimulu hutsa izateari utzi zion, sustraiak bota zituen, gorputzak lotu, mugimenduak eta pentsamenduak oztopatu zituen, jende asko zapaltzaileen miresle bihurtu zen eta beraien ohiturak kopiatzen hasi ziren, lana izan eta irainak eragozte aldera. Eta horrela, beharrian “materialetan” bakarrik oinarritutako “giza garapenaren” eredu barneratu genuen, eta horrek hondamendira garamatza.

Emakumeen aurkako indarkeria

Sexu-indarkeriak inbasiotik gaur egun arte iraun du; emakumeen gorputzak gerrako harrapakin gisa erabili izan dira: “zure ondasunez jabetzen naiz, zure emakumeez” logikari erantzunez; kolonizazio garaian behin eta berriz errepikatu ziren gerra taktiketan, kolonizatzailea lurralde komunitarioez jabetu zen indarkeria erabiliz, eta, gainera, bere egin zituen morroien emakumeen gorputzak ere, horien seme-alabenak -gehienak jatorrizko herriak-; eta gauza bera gertatu zen barneko gerran ere, non “etsaia” altxa ez zedin estrategia gisa erabili baitzen. Emakume eta herri maiek bizi izan dugun genozidioaren zati izan da bortxaketa.

Gaur egun tortura-taktikak, errepresioak eta giza eskubideen bortxaketak bizirik diraute, baina irain gisa baino ez dira hartzen. Emakume maiek gure gorputzetan, gure historian iltzatuta dugu bilbe hori; eta gaur egun eragina du gure bizitzetan: berriro gure bizitzaren jabe, gure komunitateen, herri maiaren jabe izatea oztopatzen du.

Egungo egoera

Egungo Guatemalaren ezaugarriak dira gerraostearen ondorioak, zeinak altxamenduen aurkako praktikak utzi baitzizkigu, besteak beste, tortura eta errepresioa, eta, horrenbestez, indarkeria instituzionalizatua, zigorgabetasun maila handiarekin; indarkeria sistematikoa da, eguneroko ogia, eta barnean hartzen ditu harreman sozial eta afektiboak nahiz aparatu klandestinoak; ohikoak dira, baita ere, antolatutako indarkeria, ondare naturalen ustiapena, transnazionalak, emakumeen aurkako indarkeria eta sexu-indarkeria. Datu ofizialen arabera, etxean %80an haurren aurkako indarkeria ohikoa da familia barruan, eta genero indarkeriaren ondorioz gertatzen diren emakume-heriotzak indarkeria historiko eta sexu-indarkeriaren continuuma dira.

Testuinguru horretan, galdera hauei erantzun diegu: Norberaren trauma propioak pribatuak dira, edo publikoak dira, egitura sozial, politiko eta ekonomiko jakin batzuetatik sortuak direlako? Eta, beraz, publikoa dena erabat pribatua balitz bezala trata daiteke? Eta atera dugun ondorioa da publikoa dena arlo pribatuan geratzeak aukera ematen duela emakumeen aurkako bidegabekeriak egiten jarraitzeko, ez baita inolako neurririk hartzen hori eragozteko.

Gure azterketan lagundu duten beste galdera batzuk honakoak dira: Gure gobernu eta Estatuko botereengan konfiantza izan dezakegu? Beraien babesa sentitzen dugu edo gure munduarekin zerikusirik ez duten entitateak dira, zeinak gure bizimodua beraien erara antolatzen baitute, guk ahal dugun bezala bizirauten dugun bitartean? Berdintasuna eta justizia bultzatzen dituen erantzunik jasotzen al dugu instituzio horien aldetik, edo zenbait mesede egiten dizkigute otzantasunean eta itzaltasunean edukiarazteko? Eta ondorioztatu duguna da eraldaketa sakon bat egitea behar-beharrezkoa dela.

Identitateari buruz

Gure burua ezagutarazten diguna da identitatea. Herri bakoitzak mundu-ikuskerak bat sortu du unibertsoaren eta gizakiaren existentzia azaltzeko eta batzen gaituzten harreman guztiz korapilatuak ulertzeko. Herri bakoitzak, talde bakoitzak bere tokia du gizarte harremanen mapan, bere mundu-ikuskerak eta paradigmeekin harmonian edo kontraesanean. Mundu honetan hartzen gaituen taldeak erakusten digu gizarteko zati garela harremanen mapan dagokigun lekuaren arabera. Talde horren historiak ondorio batzuk ditu, bai fisiologian eta bai jokabidean eragiten dutenak, eta ondorio horiek larririk izan daitezke historia bortitza, zapaltzailea eta bidegabea izan bada.

Menpean, zapalduta eta bortxatuta bizi den talde batean haziz gero, menpekoa izaten ikasten da, zapalkuntza eta indarkeria “berezko” fenomeno gisa onartzen dira. Pertsona askok sentitzen dute beraien mundu-ikuskerak eta bizitza ez datozela bat, baina bizirauteko mundu-ikuskerak nagusia bere egiten dute, eta, beraz, batetik ez dituzte beraien oinarrizko giza premiak betetzen, eta, bestetik, hainbat eramankizun izaten dituzte. Horri alienazioa esaten zaio. Hau esan nahi du: “ez gara gu”, diruaren eta boterearen jabe izan gaitezke, baina ez gara gure buruaren jabe. Ez gara gu, ez eta besteak ere.

Berdintasuna, osagarritasuna eta bizitza

Gizon eta emakumeen eguneroko bizitzan batasunik ez badago, zehatza, eraginkorra eta iraunkorra, ez dira herri indigenak izango autodeterminazioa eraikiko dutenak. Gizonezkoak soilik izango dira, herritar maien %50a baino gutxiago, hain zuzen ere. Horixe da egia; guk, emakume maiok ez badugu libreki eta kontzienteki parte hartzen, ez da autodeterminaziorik izango, ez da lurralde-gobernurik izango. Hori dela eta, emakumeen jakintzarik gabe, gure lanik gabe, zoritxarri modu konstruktiboan aurre egiteko gure ahalmen sortzailerik eta gaitasunik gabe, gizateriak ez du aukerarik.

Bizitza-sarearen ulermen handiagoa izateak bizitza bera posible egiten duten printzipioak ulertzera garamatza, eta printzipio horiek ulertarazten digute eboluzio-prozesuaren zati garela eta eboluzioa erraztuko duten printzipio etikoak sustatu eta finkatu beharrean gaudela. Elementu horietako bat berdintasuna da, eta berdintasunak lotura estua du askatasunarekin, identitatearekin, ezagutzarekin eta sormenarekin.

Gure sendotze-bidea

Gure paradigmak erabakitzen badu zer ikus dezakegun, nola pentsatzen dugun eta errealitatean zer egiten dugun, ez dugu zalantzan jartzen, izan ere, gehienetan, existitzen denik ere ez dakigu. Besterik gabe onartu egiten dugu gauzak gaur ikusten ditugun bezala direla benetan, harik eta gurearekin zerikusirik ez duten beste paradigma batzuk aurkitzen ditugun arte, eta orduan galdetzen diogu gure buruari: baina, zer paradigma ditugu?

Espainiarren konkistaz geroztik, maskulinitate eta feminitate paradigmak ezarri ziren, eta, horregatik, gaur egun, gure gizartean maskulinitate eredu bat dago, gure jokabidea epaitzeko erreferente gisa erabiltzen dena. Itxura batean, eredu hori desberdina da sektore, talde, klase eta kasta ugariarentzat, baina gauza asko dituzte komunean, eta funtsezkoena da maskulinoa den guztia boterearekin lotzea. Talde, klase edo kasta bakoitzaren barruko botere forma partikularrei uko eginez gero, ezarritako eredu horri uko egiten zaiola ulertzen da, pitzadura bat sortzen da. Partaidetza kontuei helduz, esan dezakegu partaidetza ezak –partaidetza, deliberamenduetan ez ezik, erabakietan benetan parte hartzea dela ulertuta– ondorio larriak dituela pertsonentzat eta herrirentzat. Gure gizartean ez dago partaidetzarik; partaidetza saiakerak baino ez daude, eta partaidetza eraginkorrik gabe ezin da herritartasuna gauzatu, eta ezin da herritar izaten ikasi.

Gure bizitzako hariak berrezartzeko beharra

Lehenik eta behin, emakume indigenok apustu politiko hau dugu abiapuntu: “emakume maien eta beraien herrien autonomia”, eta horrek berarekin darama oinarrizko giza premiak asetzea beraien mundu ikuskera eta testuinguruan oinarrituta, eta, gainera, emakume maien buruzagitza eta beraien herrien instituzionaltasuna sendotu behar dira; begirada, pentsamendua eta mugimendua eraiki eta berreraiki behar dira.

Beste hari garrantzitsua oinarrizko giza premiak dira, honako hauei lotuta: iraupena, babesa, afektua, identitatea, ezagutza, askatasuna, sormena, partaidetza, aisialdia eta transzendentzia; premia horiek aseta izateak ematen du erabateko ongizatea, eta gizaki gisa, hala gizabanakoa nola taldea, errealizatzeko aukera. Emakume maiontzat, bizitzaren gailurra, bizimodu ona, oinarrizko giza premiak aseta izatea da, baina gure ingurune eta mundu-ikuskerarekin bat etorritik, eta alienatzen gaituzten, gure izaera ezereztzen duten konpentsatzaileak eraikitzeari utzita. Beharrian horiek denbora luze batean ez betetzeak kalteak eragiten ditu gure burmuinaren fisiologian, eta, ondorioz, era guztietako patologia sozialak agertzen dira, besteak beste, hauek: indar armatuen biolentzia

herri indigenen eta, orokorrean, herritar guztien aurka, emakumeen aurkako indarkeria, haurren aurkakoa, sexu-indarkeria, bereizkeria, antzinako hizkuntzen desagertzea, menpekotasuna, beldurra, alkoholismoa.

Emakumeok gure bizitza gure herrietan berriro ehuntzea lortzeko oinarritzko kontzeptu bi hartu ditugu: batetik, “kultura”, gizakiaren, norbanakoa zein taldea, erabateko errealizazioa lortzeko bidea baita, bizitza-sarearen baitan, hau da, funtsezko premiak aseta eta bizitza bete-betekoa izateko bidea; eta, bestetik, “antikultura”, oinarritzko giza premiak asetzea eragotzi edo oztopatzen duen guztia, alegia.

Bi kontzeptu horietatik abiatuta, emakumeoi galdera hauek sortu zaizkigu: Indigenen jakinduria eta herriekiko “kultura” edo “antikultura” dugu? Gizateria eta planetarekiko inolako erantzukizun kolektiborik gabeko garapen-eredu indibidualistaren bila gabiltza? Zenbateraino erabiltzen dugu gure eguneroko bizimoduan informazio zientifikoa? Eta, horrela, geroratu ezinezko eginbeharrak zein diren hausnartzen dugu.

Kaqlako Emakume Maiok orain artean egin duguna

Emakumeen eta herrien autonomia eta autodeterminazioa lortzeko hainbat ekintza garatu ditugu, besteak beste, honakoak: oinarritzko giza premiak betetzeko ekintzak, espiritualtasunaren berreskuratzea, gizarte-terapeuten prestakuntza, ikerketa-ekintza, traumak gainditzeko laguntza, kulturaren eta antzinako jakinduriaren berreskuratzea, sare eta aliantzen sendotzea, herrien instituzionalitatea eta sormen lanaren nahiz artistikoa-ren indartzea.

Jarraian azalduta daude zenbait ekimen: sendatzeko bidea eman digun espiritualtasuna sendotzea, egiten dugun horren zentzua berreskuratzea, poza berreskuratzea eta konpromiso pertsonal nahiz kolektiboak hartzea; lurra eta ura berreskuratzea erreferente etiko gisa eta guztion erantzukizun gisa, lurrak eta urak osatzen laguntzen dигutelako; erkidegoan garatzen ari diren instituzionalitate-prozesuak indartu eta garatzea, eta emakumei erkidegoko buruzagi gisa parte hartzea ahalbidetuko dien sareak eraikitzea; amen eta amonen ezagutzak berreskuratzea, belaunaldi berrien ondarea izan daitezen.

Biodibertsitatearen alde egiten dugu lan, ura erein eta zaborra eragozteko. Era berean, duintasuna, harrotasuna, kultura bateko kide izatearen sentimendua berreskuratzea, oinarritzko elementua delako aldaketak eragiteko norbanakoan, taldean eta erkidegoan, antolakuntza moduak, eta, halaber, gatazkak konpontzeko moduak berreskuratzeko, eta garapenaren gure ikuspegia berreskuratzeko.

Emakumeen haziak berdintasuna eta osagarritasuna berreskuratzeko

- Emakumeek prozesu historikoetan izan duten garrantzia agerian jartzea, gure historia berreskuratzea eta ezagutzera ematea, gure arbasoen ezagutzak, ekarpen zientifiko,

tekniko eta filosofikoak berreskuratzea, bai eta emakume eta herri indigenen jakinduria ere.

- Gure ama eta amonen jakinduria berreskuratzea eta beti izan garena izatea: hazien, gure herrien jakien zaintzaileak. Klima aldaketaren eta aro berriaren aurrean lurzoru, basoa, ura -lurraldea- eta espiritualtasuna berreskuratzeko hartutako konpromisoa sendotzea.
- Gure jarrera propioaren aurrean, gure ohitura, balio, lehentasun eta kontraesanen aurrean norbanako nahiz talde gisa dugun jokabidea berrikustea eta aldaketa sakinak egitea, eta, beraz, elkar errespetatzen ikastea, boterearen eta aberastasunaren aurrean makurtu beharrik gabe.
- Gure papera, gure eginkizun pertsonala eta kolektiboa bizitza-sarean kokatzea, ezagutza zientifikoa eta espiritualtasuna gidari hartuta. Behar ditugun aldaketak aurrera eramateko gauza praktikoak egitea.
- Emakumeen eta gure herrien autodeterminazio politikoa gauzatzea ekosistemak eta nekazaritza nahiz basogintzari lotutako biodibertsitatea hobeto zaintzeko, gure estrategia ekonomiko eta produktibo propioekin, eta emakumeek bizitza-sarera, familia zein erkidegoko ekonomiara eta lurraldearen zaintzara egiten duten ekarpena duin bihurtzea.
- Gure bizitza pertsonal eta kolektiboen erantzukizuna onartzea -beharrezkoa da gizonezkoek beren kontzientziara ekartzea euren zapalkuntza eta erreproduzio propioa-.
- Gure zapalkuntza eta esklabo bihurtu gaituzten pertsonak eta sistemak astintzea, gure askatasuna aurkitzeko eta beste batzuekin partekatzeko bizitzaren alde egiten dugun lana, ikuspegi kritikoari eutsiz eta erne egonez. Zapaltzailearen internalizazioa kontzientziara ekartzea, biziraupen eta otzantasun mekanismoak ezagutzea berdintasun eta zuzentasunean oinarritutako harremanak eraikitzeko, eta gure bizitzaren aktore bihurtzea.
- Sendatze-prozesuak jarraitzea gure zauriak sendatzeko, alienazioa eta egungo egoera sortu zuen guztia ezabatzeko, behar ditugun eraldaketak maitasunez eta pozez bete ta egiteko.
- Emakumeen trauma eta bilbe historikoetan sakontzen jarraitzea, eta, horrela, indarkeria historiko, pertsonal eta kolektiboaren ondorio psiko-emozionalak eta gorputzarenak sendatzeko tresna eta mekanismoak bilatzea.
- Gaur egun planetarekin dugun harremana desegitea, eta unibertsoaren, planetaren nahiz bizitza-sarearen ezagutza eta identitatean oinarrituta, eta horiekin batean, eraikitzea; bilakaera-prozesuaren zati garelako, eta bilakaera hori errazteaz gain, emakumeen eta gizonen arteko, herrien arteko eta espeziekin berdintasuna indartzten duten printzipio etikoak berreskuratzea behar ditugulako.

- Mundu-ikuskeraren berreskuratu eta eraikitzea eta gizakien nahiz planetaren beharizak beteko dituen kultura bizitzea. Aliantzak egitea, sormen-sareak, lan-sareak, aholkulariaren batzea gure nahiak partekatzen dituzten erakunde-adierazpen ugarietatik.
- Gure bizitza gozatzea emakumetasunetik, emakumeen eta gure herrien autonomia eta autodeterminazioa lortzeko bizi eta lan egiten dugun bitartean.

Gogoratu nahi dugu giza ekintza eraldatzaile ororen eraginkortasuna baldintzatzen duela errealitatea bere horretan onartu eta ekintza eraldatzailearen ontasuna sustatu eta ezarriko duen mundu-ikuskerak. Gure arnasaren pareko bihurtuko diren paradigmeekin (printzipioak eta ereduak) lagundu behar da ekintza hori.

Unibertsoaren seme-alabak gara, eztanda egin eta unibertsoaren elementu kimiko guztiak sortu zituzten izarren elementuekin eginak, gainerako izaki bizidun guztiak bezala.

Emakume maiak gara, hemen gaude, eta oraindik gure heriotza-ordua iritsi ez denez, zerbait egiterik izango dugu pobrezia, gosea, bazterkeria, morrontza eta biktimizazioa ezabatzeko! Gure esku ere badago zerbait egitea, sortzea eta aldatzea!



Emakumeak bake- eta gatazka- egoeretan: eztabaidarako gaiak

Irantzu Mendia Azkue

Hegoa institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea
(UPV/EHU), Bilbao



Sarrera

Topaketaren izenburua kontuan hartuta “Feminismoak garapenerako agendan”, nire proposamena da aurkezpen hau egitea feminismoak gatazken eta bakearen arlora egin dituen ekarpenak abiapuntu hartuta.

Abiaburu hartzen dut teoria feminista gizarte-bizitza eta giza esperientzia emakumeen ikuspegitik deskribatu eta azaltzen saiatzen den ideien sistema dela, eta ideia-sistema hegemoniko eta androzentrikoaren aurreko erantzun gisa sortu zela (hain zuzen ere, azken sistema horrek “unibertsaltzat” jo izan du, historian, egiazki esperientzia eta diskurtso maskulinoen emaitza den hori). Onartzen dut feminismoan askotariko joerak daudela, baina nik oinarriztat hartuko ditut, batetik, nire ustez, guztietan aipatzen diren oinarrizko bi galderak (hain zuzen ere, bi galdera horiek pentsamolde feministaren funtsa dira); eta, bestetik, galdera horiek, azkenean, eragiten dituzten aldaketa-proposamenak. Proposamen horiek kokatzen dituzte agenda feministako puntu estrategiko batzuk, arlo honetan. Hona hemen:

1. Lehenengo galdera honako hau da: “Eta, emakumeak, zer? Non daude emakumeak, gizakion bizitzako edozein egoeratan?”; eta erantzun deskribatzailea biltzen dugu, ezinbestean.
2. Hona hemen bigarren galdera: “Zergatik da egoera hau, den bezalakoa?”. Alegia, kasu horretan azalpen-erantzuna bilatu nahi dugu.

3. Ondorioz, bi galdera horien erantzunetatik aldaketa-proposamenak, aldarrikapenak edo eskaerak sortzen dira, eta mobilizazio feministaren ardatz bihurtzen dira.

Aurkezpenaren lehen atalean, feminismoak galdera horiei zer erantzun ematen dien azaltzen saiatuko naiz, emakumeek bake- eta gatazka-egoeretan duten eginkizunari lotuta; eta, bigarren atalean, nazioarteak erantzun horiek nola hartu dituen edo nola ez dituen hartu azalduko dut.

Lehen atala

Hasteko, emakumeek gatazka-egoeretan izan ohi duten lekuari dagokionez, feminismoak galdera horri erantzuteko egin duen ahaleginak ahalbidetu du emakumeak ikusgai bihurtzea: emakumeak identifikatzea; egiten dituzten jarduerak deskribatzea; eta beraien esperientziak, gerran parte hartzeko dituzten moduak eta emakumeek beraien beren esperientziei ematen dizkieten esanahiak azaltzea.

Emakumeak ikusgai jartze horri esker, gaur egun, gatazketan zehar eta gatazken ondoren emakumeek izandako askotariko rol eta esperientziak ezagutzen ditugu: emakumeek hainbat motatako sexu-indarkeria jasaten dute, eta errefuxiatu eta lekualdatutako biztanleen artean biktima gehienak emakumezkoak dira; baina feminismoak, orobat, lagundu du ikusgai bihurtzen emakumeek indarkeria-egoeretan egiten duten eragile-lana, bai eta bakea eraikitzean duten eginkizun aktiboa ere. Mota horretako analisi deskribatzaileetatik, feminismoak zenbait egiaztapen egin ditu:

- a. Emakumeek beren gain hartzen dituzten erantzukizun eta rola edozein izanik ere, ez dira berdinak izango emakumeek gatazka-egoeretan dituzten lekua eta esperientziak eta gatazka horretan bertan gizonak dituztenak.
- b. Gatazketan, emakumeek eta gizonak ez dute leku bera izaten; are gehiago: leku desberdina izaten dute.
- c. Eta gehiago ere esan daiteke: leku bera ez izateaz gain, emakumeek eta gizonak hartzen duten lekua desberdina izateaz gain, emakumeak zapalkuntza- eta mendekotasun-egoeran izaten dira, eta, hortaz, askotariko abusuen mende jartzen dituzte gizonak.

Lehenengo maila honetan, maila deskribatzailean, feminismoaren ondorioak arazo handirik gabe sartu dira gatazken ebazpeneko eta bakearen eraikuntzako diskurtso hegemoniko edo menderatzailean. Azalpen-maila, ordea, askoz polemikoagoa da, eta aldaera gehiago dago tartean nazioarteko eragileek onartutako erantzunetan. Nola azal daiteke gatazketan eta, gero, gatazkaren ondoren, izaten den emakumeen kontrako indarkeria? Nola azal daiteke emakumeek indarkeriaren alde modu aktiboan egitea? Eta, nola azal daiteke emakumeen bakearen aldeko aktibismoa? Zertan datza? Zein da horren edukia?

Hori guztia azaldu ahal izateko, feminismoak genero-kontzeptua eta -analisi funtsezko tresnatzat erabili izan du, aukera ematen baitu, emakumeak bistaratzeko ez ezik, emakumeek eta gizonek gizartean duten izaeraren eta lekuaren atzean dauden botere-harremanak nabarmentzeko ere. Puntu horretan, garrantzitsua da adieraztea, gaur egun, “generoa” kontzeptua feminismoaren esparruan kokatu gabe hedatzeak askotan kontzeptu horren botere eraldatzailea ahultzen duela; hots, genero-ikuspegia onartuz joan gara ikuspegi feminista desplazatzaren kontura, baina ezin dugu ahaztu emakumeen eta gizonen rola eta nortasunak aztertzeak eta bien arteko harremanak aztertzeak ez duela esan nahi, zehatz-mehatz, emakumeak ardatz dituen giza esperientziaren ikuspegia aurkeztea (horixe da, hain zuzen ere, teoria feministaren azken helburua).

Hala eta guztiz ere, erabilera indargabetuak edo desegokiak izan diren arren, analisi-kategoria horren bitartez, feminismoak ekarpen garrantzitsuak egin ahal izan ditu hizpide dugun arloan. Orobat, azalpen eta interpretazioen esparru horretatik kokatu ditu feminismoak bere askotariko aldarrikapenak, eskaerak eta aldaketa-proposamenak, eta, azken urteotan, aldarrikapen, eskaera eta aldaketa-proposamen horiek osatu dute feminismoaren agenda estrategikoa (jarraian aipatuko dira zenbait, adibide gisa):

- a. Feminismoak azaldu duenez, gerretan emakumeen kontrako sexu-indarkeria (kontrol patriarkala gauzatzeko modurik muturrenetakotzat hartuta) ez da indarkeria hedatu eta kontrolaezinen albo-ondorioa, historian hala irudikatu izan den arren; zapalkuntza-tresna bat da, eragile armatuek (Estatuak barne) gerrako estrategiatzat eta errepresio politikotzat propio erabili dutena. Halaber, feminismoak azaldu du emakumeek gerra-garaietan eta gerraostean zein “bake” garaietan jasan duten indarkeriak zerikusia duela emakumeen kontrako indarkeria-continuum batekin; alegia, emakumeek politikan, ekonomian eta gizartean jasaten duten pertsonen arteko, erakundeen eta egiturako indarkeria-continuumarekin. Indarkeria iraunkor horren adierazpen lazgarriena feminizidioa da; eta iraunkortasun horren errotzat jo behar da emakumeen eskubideak urratzean izan ohi den zigorgabetasuna.

Esparru horretan, estrategia feministak honako hauetara bideratzen dira, besteak beste:

- Gatazka armatuetan eta gatazken ondoren emakumeen kontra egiten den askotariko indarkeria salatzea.
 - Gatazka-garaietan indarkeriaren biktima direnen alde justizia eskatzera (zigorrrak eta ordainsariak); horrek zigorgabetasunaren eta inposatutako isiltasunaren kontra mobilizatzea dakar.
- b. Feminismoak azaldu du, halaber, indarkeriaren erabileran emakumeek izan duten eginkizuna ikusezin egin dutela, nahita; izan ere, ukatu egin zaie gatazka armatuetan ekintzaile izateko duten gaitasuna, eta objektu pasibo, inuzente, “talde zaurkor” izatera mugatu dute, eta aukera bakarra dute: besteak babestuen izatea. Jakin badakigu askotariko azalpenak daudela emakumeek indarkeria

hautatzea justifikatzeko; besteak beste, gizonen bezala, interes jakin batzuk defendatzea, beren jatorri etniko, nazional edo gizarte-mailaren edo justizia, askatasun eta bestelako idealak bilatzearen ondorioztat jotako interesak. Dena den, oraindik ere ikus daiteke diskurtso nagusia bi pentsamolderen artean dabilela: batetik, emakumeek egiten duten indarkeria naturaren kontrako aberraziotzat jotzea; eta, bestetik, indarkeria hori talde armatuen manipulazioaren emaitza dela pentsatzea, edo soilik alderdi emozionalen loturiko motibazio pertsonalen emaitza dela ulertzea (esate baterako, bikotekidea galtzea, edo semea edo alaba, edo neba edo arreba...). Hau da, edozein kasutan, emakumeei ukatu egiten zaie indarkeria hautatzeko aukera, motibazio politikoak edo ideologikoak direla-eta.

Esparru horretan, estrategia feministak honako hauetara bideratzen dira, esate baterako:

- Emakume gudari ohiak desarmatze-, desmobilizatzeko- eta berrintegrazio-programetara sar daitezkeen eskatzera, gizonen dituzten baldintza berdinetan.
- c. Emakumeek bakearen aldeko aktibismoan duten eginkizunari lotuta, feminismoak lagundu du banaka edo taldean gerraren aurka egin duten emakumeen historia erreskatatzen eta aintzatesten. Izan ere, erreskatatzea da, kasu horretan ere, emakumeei ezikusi egin baitzaie, apropos, politikan. Aktibismo politiko bat da, bizitzaren iraunkortasunaren logika oinarri duena, eta aurrez aurre du gaur egungo nazioarteko harremanen sistemaren nagusi diren metaketa ekonomikoaren logika eta militarismoa. Hala ere, ikuspegi hedatuena, oraindik ere, emakumeak-bakea harremana funtsezkotzat jotzea da. Alegia, emakumeek bakearen eraikuntzan duten inplikazioa beraien rol biologikoaren eta zaintza-zereginaren hedapen naturalaren antzeko zerbaite dela ulertzea; “berezkotzat” jotzen da eta, beraz, duen eduki politiko guztia kentzen zaio.

Esparru horretan, estrategia feministak honako hauetara bideratzen dira, besteak beste:

- Bakearen eraikuntzaren kontzeptua eta horren helburuak zabaltzera, giza garapenari loturiko gaiak sartzeko.
- Indarkeria eta emakumeen eskubideen urratzea sustatzen eta legitimatzen duten militarismoa eta askotariko erlijio-fundamentalismoa salatzen.
- Egia jakiteko eskubidea aldarrikatzera, memoria mantentzera eta biktimak duin bihurtzeko ekimenak sustatzen.

Bigarren atala

Lehen atalaren helburua gatazken eta bakearen arloko feministen zenbait ekarpen ezaugarritzea izan da. Bigarren atal honetan, berriz, ikusiko dugu tartean diren nazioarteko komunitateko eragileek ea ekarpen horiek zenbateraino barneratu dituzten. Gai

hori planteatuko dut Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenaren edukiaren eta aplikazioaren arabera (Ebazpena 2000ko urrian onartu zen). Eta gai hori hartuko dut hizpide, bi arrazoi direla-eta, bereziki:

- a. Hura izan zen Kontseilua gaiaz berariaz arduratu zen lehenbiziko aldia; eta, beraz, gatazken tratamenduan eta bakearen eraikuntzan generoaren ikuspegiak zuen garrantziaz nazioartean sortu zen kontzientziate-mailaren isla zen.
- b. Emakumeen nazioarteko mugimenduaren ahalegin handiari esker onartu zen Ebazpen hori. Emakumeen mugimenduak lanean jardun zuen, ideia bat oinarri hartuta; alegia, gerra-garaian eta gerraren ondoren emakumeen eskubideak urratzea zela oztopo nagusia, garapena eta bakea lortzeko.

1325 Ebazpenean onartu zen gatazka armatuetan emakumeek eta gizonek esperientzia desberdinak zituztela. Halaber, emakumeak eta neskatilak haien aurkako berariazko indarkeria-modu guztietatik babesteko deia egin zuen, eta negoziazio-prozesuetan eta bakea eraikitzeko prozesuetan emakumeek parte hartzearen alde egin zuen. Zalantzarik gabe, adierazpen-ikuspegitik, 1325 Ebazpena oso aurrerapen handia izan da, eta lagundu du gai hori, besteak beste, erakunde aldeaniztun, erakunde aldebiko, GKE eta ikerketa-zentro gehienen agendan eta diskurtso ofizialetan sartzen. Gainera, kontuan izan behar da emakumeen eskubideak nazioarteko segurtasun-gaitzat jotzen ez ziren garaian eta testuinguruan (Segurtasun Kontseilua) lortu zela ebazpen hori onartzea.

Bestalde, Ebazpena onartu zenetik hamar urte igaro eta gero, emaitzen balantzea eskas samarra da oraindik, eta oso urria testuan nabarmendu ziren hiru mailetan: prebentzioa, babesa eta parte-hartzea. Ebazpenetik ondoriozta daitekeenetik, eta emakumearen, bakearen eta segurtasunaren arloan izan diren joeretatik, zenbait alderdi nabarmenduko ditut, haien gainean eztabaida egiteko:

- a. Emakumeen parte-hartzea negoziazio- eta bakearen eraikuntza-prozesuetan.

Hasteko, nire ustez, ez dira nahikoa bereizten emakumeen parte-hartzea eta ordezkari-tza negoziazio-mahaietan eta bake-prozesuetan. Begi bistakoa da parte-hartze hutsak, ikuspegi kuantitatibotik, ez duela bermatzen ez genero-ikuspegia hitzarmenetan sartuko denik, ez gerra ondoren gizonen eta emakumeen arteko ekitatea lortzea xede duten neurri zehatzak sartuko direnik.

Tradizioan, ulertu izan da gatazkek ebazteko borrokan zuzenean inplikatura dauden agenteak eseri behar direla negoziazio-mahaian. Beraz, emakumeak izan daitezke negoziazio-mahaietan, baina soilik aurrez aurre dauden agenteen zati diren neurrian; eta agente horiek nekez bidaltzen dituzte emakumeak ordezkari (ez 1325 Ebazpena egin aurretik, ez eta gero ere). Halako inguruabarretan, zaila da neurtzea bake-negoizazioetan emakumeek agerpen handiagoa izateak zenbateraino lagunduko lukeen hitzarmen barne-hartzaileagoak eta emakumeen eskubideak gehiago aintzat hartuko dituztenak egiten,

ez baitago halako esperientziarik, egiaztatzeko. Horrenbestez, garrantzia galtzen du irizpide kuantitatiboan tematzeak, baldin negoziazio-mahaian soilik gatazkan aurrez aurre dauden alderdiak esertzen badira aurrerantzean ere (beraz, mahaiko parte-hartzaileen %100 emakumeak izan litezke, baina jarrera eta interes jakin batzuk ordezkatzeko lituzkete, eta horiek ez lirateke ezinbestean genero-ekitatea defendatzeari lotuta izango).

Negoziazio- eta bake-prozesuak batez ere prozesu barne-hartzaile gisa ulertu behar dira, eta gizarteko sektore guztiek lekua izan behar dute prozesu horietan. Alde horretatik, garrantzitsua da emakumeek ere beren ordezkartza izatea, emakume diren aldetik. Negoziazio-mahaietan emakumeen sektore antolatuak sistematikoki ordezkartza duenean baino ezingo da bermatu emakumeen interesak (beren “behar berezietatik” haratago doazenak; ebazpenean zehaztaperen hori nabarmendu da) jasoko direla bake-akordioetan. Eta orduan ezarri ahal izango dira neurri zehatzak, emakumeen interesak eta eskubideak betetzeko eta haien jarraipena egiteko.

Hala ere, emakumeek itun, koalizio eta/edo sareen bitartez taldean proposatu dituzten bake-agendak bake-prozesu formaletan izan litezke (baldin horretarako borondate politikorik egongo balitz). Gainera, bake-agenda horietan jasotako bakearen eta segurtasunaren definizioa eta segurtasun-erakunde nazionaletan, eskualdekoetan eta nazioartekoetan (Segurtasun Kontseilua barne) mahai gainean duten segurtasunaren ohiko ideia ez datoz bat; eta ez hori bakarrik: bake-agendako definizioak erronka jotzen dio segurtasun-erakundeenerari. Nire ustez, horrek oztopatu du, nagusiki, 1325 Ebazpenaren inplementazioa: erretorikaren gainetik, segurtasun-erakunde nazionalak eta nazioartekoek ez dute jotzen emakumeen kontrako askotariko indarkeria eta emakumeen eskubideen urratzea mehatxu direnik nazioartean bakea eta segurtasuna lortzeko.

Eztabaida hori segurtasuna ulertzeko modu jakin baten ondorio da. Segurtasuna ikusteko modu horrek, bereziki 2001. urtetik aurrera, “izua kontrako gerra orokorra” delakoa hastearekin batera, batez ere irtenbide militarren (edo, orain, gero eta “gizalegezko-militarragoak”) eta euste-konponbideen alde egiten du, “politikan eta ekonomian egonkortasuna” lortzeko helburuarekin, eta ez hainbeste pertsonen eta herrien garapeneren bitartez bakea lortzearen alde. Hain zuzen ere, azken hori da emakumeek proposatutako bake eta segurtasunerako agendaren funtsezko ardatza.

b. Bakearen eraikuntzan emakumeek boterea hartzea.

Nazioarteko komunitateak, zenbait tresnaren bitartez (1325 Ebazpena, esate baterako), baieztatu du bakea eraikitzeke emakumeek boterea har dezaten lagundu eta errazteke beharra dagoela. Nazioarteko komunitateak aintzat hartu behar ditu prozesu horri loturiko askotariko alderdiak. Prozesu hori iraunarazi egin behar dute denboran, eta batez ere prozesuaren funtsezko muinaz arduratu behar dira, alegia, boterearen *birbanaketaz*.

Alde horretatik, neurri politikoak eta programak orientatzea, besteak beste, osasuna zaintzeko, neskatilak hezteke edo biktima diren emakumeei arreta psikosoziala emateko

proiektuetatik haratago doa, garrantzitsuak izan arren. Orobat, eragin eta presioa egin behar da gerratik bakerako iragaitzetan aldaketak egin daitezten politikako eta ekonomiako botere-banaketan, eta emakumeen askotariko esplotazioen aurka egin behar da (lan-esplotazioa, sexu-esplotazioa eta abar), larriagotu egiten baitira gerraosteko gizarteetan.

c. Lankidetzako tresnak.

Laguntzaren eraginkortasunari buruzko eztabaidaren esparruan, azken urteotan aldebi-ko lankidetzaren areagotu da, gizarte-erakundeetara bideratutakoaren kaltetan. Horrek eragin dezake, kasuan kasu, nazioarteko legitimazioarekin eta baliabideekin modu aktiboan laguntzen aritzea zenbait gobernuri; hain zuzen ere, gatazka armatuetan eta bake-akordioetan tartean izan diren eta, gerraostean, akordio horien edukia urratzaile nagusi diren gobernuei. Baldin herrialde horietako gizarte-mugimendua indartzen ez bada (mugimendu horren barruan emakumeen mugimendua izan ohi da protagonista), ez da indartuko ez eta babestuko ere gizarteak egiten duen presioa akordioak bete daitezten; hots, bakea eraiki dadin. Hortaz, emakumeek dagokienez, lankidetzarako baliabideak bideratzen dira gerraostean erakunde ofizial jakin batzuk sortzera. Erakunde ofizial horien mandatua “berdintasuna sustatzea” izan ohi da, baina maiz ez dute izaten ez lidergo ez borondate nahikorik emakumeen mugimenduarekiko horizontalak izango diren lankidetzaren prozesuak sortzeko, ez eta genero-ekitate lortzera bideratutako lan-programa egiazki eraldatzailek egiteko ere (kontrakoa, hobeto esanda; batzuetan, erakunde horiek nahiko planteamendu atzerakoiak aurkezten dituzte, eta emakumeak soilik familia-arloarekin eta zaintzaile-rolarekin uztartzen jarraitzen dute).

Horrenbestez, funtsezkoa da lankidetzaren bitartez gizarte-mugimenduaren alde egitea, eta gizarte-mugimenduaren barruan emakumeen espazio autonomoak bilatu eta sor daitezela, emakumeek beraien proposamenak indarrez egin diezazkieten erakundeei.

d. Militarismoa eta segurtasun-kontzeptua.

Amaitzeko, merezi du eztabaidarako gogora ekartzea Ebazpen horretan aipatutako emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko gaietako zenbaitek oihartzun handia izan zutela duela 15 urte, Beijingeko Adierazpenarekin eta Ekintzarako Plataformarekin. Esate baterako, Beijingeko adostasun nagusietako bat honako hau izan zen: “gehiegizko gastu militarrek, armen salerosketak eta armen ekoizpenean inbertitzeak, nazio-segurtasunaren beharrak kontuan hartuta, desbideratu egiten dute baliabideak gizarte-garapenerako eta garapen ekonomikoko helburuetara esleitzeko aukera; bereziki, emakumeek gizartean duten egoera hobetzera bideratutakoak, baina baita emakumeek gizartean duten lekua hobetzekoak ere”.

2000. urtean, 1325 Ebazpenean eta horri loturiko geroko nazioarteko dokumentuetan, eta Ebazpena inplementatzeko nazio-planetan, ez da aipatu ere egin gastu militarra murriztea emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko neurri izan daitekeenik. Eta hori Beijingen hitzartutakotik atzerapauso argia da.

Ez da aipatu, halaber, emakumeen bakearen aldeko mugimendua historian borroka antimilitaristari lotuta izan denik. Beraz, zentzuzkoa litzateke pentsatzea baldin emakumei laguntza eman nahi bazaie bakearen eraikuntzan, neurriak hartu behar direla antimilitarismoaren helburuen alde egiteko.

Nire ikuspegiaren arabera, kontrakoa egiten ari gara. Esate baterako, gerra oste-osteko egoerak badakarzkigu gogora, Segurtasun Sektorearen Aldaketaren arloko esku-hartzeak ekartzen baditugu burura, normalean jotzen da genero-ikuspegia sartzeak segurtasun-indarretan emakume gehiago sartzea esan nahi duela. Hortik, uler daiteke 1325 Ebazpenak eta nazio-planek bake-misioetan emakume soldadu gehiago sartzea nabarmendu izana, emakumeek bake-prozesuetan duten parte-hartzea sustatzeko eta haien segurtasuna areagotzeko neurri nagusitzat jotz. Hala eta guztiz ere, genero-ikuspegia aplikatzeak ekarri beharko luke, batez ere, indar armatu horietako kidekopurua nabarmen murriztea; baina, bereziki, erakunde militarra bera eta oinarrian dituen printzipioak zalantzan jartzea. Izan ere, oinarri horiek lotura sakona dute emakumeak gutxiestearekin eta maskulinitate agresiboa sustatzearekin.



Transfeminismoaren eragiletza,
Ekuadorko prozesu
konstituziogilean eta konstituzio
ondoko prozesuan

Elizabeth Vásquez Blasco
Transgenero proiektua, Quito



Transfeminismoaren eginkizuna

“Partaidetza politikoa” hain gai zabala izanik, eta kontuan hartuta emakumeen partaidetzarako espazio formalak izan direla hitzaldi gehienen mintzagai nagusia, oso bestelako pare bat gai zehatz ekarri nahi nituzke eztabaidara. Lehenik, eragile batzuk nabarmendu nahi ditut, agenda feministan oso kontuan hartzekoak, nire ustez; eta ez naiz ari emakumez, hitzaren zentzu klasikoan. Ekuadorri dagokionez, zehazki, eragile horiek funtsezko partaidetza izan zuten Biltzar Nazional Konstituziogilean (Montecristi, 2008), herrialderako konstituzio politiko berria idazteko egindako bilkuran. Bigarrenik, ideia transfeminista batzuk berreskuratu nahi ditut, Montecristiko prozesuaz geroztik Ekuadorko arau konstituzionalen eta legegintzaren lanketa asko aberastu dutenak; eta, azkenik, nabarmendu nahi dut zenbaterainoko garrantzi eta egokitasun feminista duen eskubideak lege aktibismoaren bidetik aldarrikatzeak, hau da, lehia paradigmaticoaren –behar adinako sakontasunaz landu gabeko esparrua– eta Zuzenbidea era alternatiboan erabiltzeko beste aukera feminista batzuen bidez egindako aldarrikapenak.

“Transfeminismo” hitza erabiltzen dudanean, zera adierazi nahi dut: feminismoaren barneko joera, generoaren bitarikotasuna gainditzen duena (gizonak eta emakumeak soilik daudelako aieruaz harago joz), eta harreman patriarkalen presentzia femeninotasunaren gune sozialetan kokatzen duena, bi genero identitate abstrakturen artean baino

gehiago –“gizona(k)” eta “emakumea(k)”–, edozein dela ere egoera, egitura eta dispositibo patriarkalaren eraginpeko pertsonen eta taldeen sexu izaera generiko espezifiko¹.

Eragiletza transfeministak Ekuadorko testuinguruan izandako ibilbidea azaltzeko, bestalde, partaidetza politikoko adibide batzuk aipatuko ditut; 2008ko prozesu konstituziogilean Presentzia Deserosoen Aliantza Transfeministan bildu ziren kolektiboen multzoak gauzatutakoak, hain zuzen ere. Plataforma nahiko informala den arren, gaur egun ere lanean dihardu, intentsitate gehiagoz edo gutxiagoz (egoeraren arabera), baina, betiere, tutoretza patriarkal orori aurre egiteko xede komunari jarraituz. Emakumeek, pertsona femeninoek, pertsona feminizatuek eta femeninoetasunaren gune sozial hori betetzen duten edo harekin solidarioak diren orotariko pertsonak –emakume, gizon, trans, intersex– osatutako elkarteak biltzen ditu; besteak beste, Quitoko TRVNSGEN3RO proiektua, Gazte Koordinakunde Politikoa, Desafío fundazioa, Causana fundazioa, Abortuaren Despenalizazioaren Aldeko Koalizioa, Mujeres de Frente talde politikoa, eta abar. Plataformaren izenean deserosotasunari aipamena egiten zaio, ikusi dugunez, arrazoi honengatik: taldeko kideak izan ziren Montecristin gai “giltzarrapoak” lantzeko garaian aurrez aurreko jarrera nabarmenen erakutsi zuten eragile politikoak, batez ere abortuaren gaiari dagokionez.

Prozesu konstituziogilean agerian gelditutako aldarrikapen transfeminista zenbait

Agenda politiko transfeministako hiru ideia zabal aipatuko ditut, Ekuadorko prozesu konstituziogilean zehar indar bereziz formulatu zirenak eta konstituzio ondoko garaian eragina eta ondorioak izaten jarraitu dutenak:

1. Subjektu “emakumea” eta bitarikotasun sinplea gainditzea, eta ordena patriarkalaren oinarriko logiketan sakontzea, gizarteko “gune femeninoak” betetzen dituzten pertsonak eta kolektiboak ardatz hartuta, edozein dela ere beraien izate sexu-generikoa; bereziki, diskriminazioaren kontrako instituzionalitatean.

Aldarrikapen horren abiapuntuko ideia da ordena patriarkalak eta Zuzenbideak –ordena horren funtsezko lanabesetako den aldetik– homogeneizatu egiten dituztela subjektuak, eta bitarikotasunaren barruan sailkatzen dituztela nahitaez –gizonak/emakumeak–. Aldi berean, eta kontrako norabidean, ordena patriarkalak zatikatu egiten ditu subjektuen agendak, askotariko zapalkuntzak daudela eta elkarrekiko loturarik ez dutela ikusarazteko: hala, hau izango da emakumeen arazoa, hori trans direnena, beste hura gizonezko homosexualena, etab.

Erantzun gisa, Ekuadorren, ordena patriarkalari buruzko azalpenean esandakoaren kontrako planteatu du eragiletza politiko transfeministak. Alde batetik, subjektuen

¹ Vásquez, E. (2010): “Definición de transfeminismo”, hemen: *Cuerpos Distintos: Ocho Años de Activismo Transfeminista en Ecuador*. Quito, Proyecto Transgénero eta Confederación Ecuatoriana de Comunidades Trans e Intersex.

aniztasun sexu-generiko ugaria aitortzen dugu, eta uste dugu patriarkatuaren araurik indartsuenetako bat barneratzea litzatekeela feminismoaren aldarrikapen borrokek generoaren bitarikotasuna onartzea. Berdin-berdin gertatzen da hori esentzialismoa subjektu “emakumeari” ezartzen zaionean nahiz beste subjektu batzuei ezartzen zaiane. Esentzialismo transexualak erabateko gaurkotasuna du –esentzialismo biofemeninoak adinako–, eta orotariko moldeak biltzen ditu bere baitan: hala nola, *esentzialismo transexual biologizista*, “benetako sexu” garunean dagoela aldarrikatzen duena, eta ez genitaltan, eta normatibotzat hartzen duena “benetako sexu” horren eta generoaren arteko korrespondentzia; edo *esentzialismo trans politiko* deritzona, trans izatearen ontasunak aldarrikatzen dituena, nabarmenduz trans izaera horrek *per se* jotzen diola erronka patriarkatuari (ez diogu hemen eztabaida horri helduko, baina badaude oso patriarkalak diren esperientzia trans batzuk), etab.

Bestalde, aitortzen dugu, aniztasun sexu-generiko izugarri horren gainetik, patriarkatuak jarduera homogeneizatzailea gauzatzen duela, eta sistematikoa dela haren logika. Zapalkuntza patriarkala bakarra da, nahiz eta era askotara islatzen den, norbera kokatuta dagoen gune sexu-generikoaren arabera. Ildo horretatik, biolentzia patriarkal bera da gizonek emakumeen gainean izan beharreko nagusitasunaren estereotipoa goitik behera betetzen ez duen gizon heterosexuala “mandarina” esanez zigortzen duena, nahiz sexuaren langile trans bat hiltzeko gorrotozko krimenaren atzean dagoena. Zigorren intentsitatea aldatzen da, kasu bakoitzean gertatzen den transgresio edo urratze mailaren arabera; baina zigorraren logika berbera da bi kasuetan. Aniztasunen arteko aliantza, beraz, egokia da, guztiak logika patriarkala desegituratzeko helburuan bat datozen heinean.

Montecristiko biltzarrean, batasun antipatriarkalaren adibide zehatz bat ikusi genuen, Presentzia Deserosoen Aliantza Transfeministak abortuaren despenalizazioaren gaiari heldu zionean. Aliantzak aldarrikatu zuen abortua ez zela emakumeei soilik zegokien gai bat, argudiatuz gorputz femeninoen eta feminizatuen gaineko zaindaritza patriarkal berbera dagoela haurdunaldia eteteko nahiz hormona edo ebakuntza bidezko transexualizazioarako gizarte eta lege oztopoen atzean, elkarren oso bestelako bi gai direla iruditu arren. Argudio horri jarraitu zitzaion, hain zuzen ere, “askotariko adierazpenetan norberaren gorputzaz baliatzeko eskubidea” konstituzionalki oinarritzeko, eta salatzekeo gizarteko gune femeninoetako subjektuei Estatuak oraindik ezartzen dizkien ezintasun eta zaindaritza estataleko erregimenak. Jakina, jarrera horrek aurrez aurre topo egin zuen gizon homosexualen erakundeen jarrerekin, ez baitzuten adierazpenik egin abortuari buruz, gai “giltzarrapoa” izanik: “tabua”, “politikoki higitzailea”, “besterena” (hau da, emakumeen arazoa, eta ez beraiena) eta, beraz, gayen agendarako garrantzirik gabea.

Konstituzio ondoko garaiari dagokionez, abantaila handia izan da gutxi-asko finkatuta utzi izana dispositibo patriarkalek genero identitate argi eta abstraktuen gainean dihardutela ukatzen duen ideia transfeminista; izan ere, horri esker, gero eta kontzientzia politiko handiagoa dago feminitatea eta maskulinitatea aldi berean presente

egon daitezkeela askotariko subjektuetan, askotariko aldi, modu eta mailetan (alegia, gizonik heterosexualena ere femeninotasunaren gune sozialean egon daitezkeela une jakin batean), eta elkarreraginean dihardutela abantailen eta desabantailen sistema konplexu batean, generoaz gain beste hainbat elementu tartean direla. Ez da, agian, azterketa berria, betidanik feminista baizik; baina bereziki indartsua da diskurtso eta jarduera transfeministan. Feminitatea eta maskulinitatea generoarekin batera elkarreaginean diharduten beste estratifikazio ardatz batzuekin batera existitzen direla (termino juridikoak erabiliz, “diskriminazioa jasan dezaketen faktoreekin” batera) dioen ideia bereziki baliagarria gertatzen ari da diskriminazioaren kontrako legeak eta erakundeak diseinatzeko orduan. Adibide gisa, aipatzekoa da diskriminazioaren kategoria juridikoan “identitate hautemanagatiko” diskriminazioa sartu izana, Emakumeen Kontseilu eta Genero Berdintasunerako Trantsizio Batzordeak proposatutako Gizonen, Emakumeen eta Askotariko Izaera Sexu Generikoko Pertsonen arteko Berdintasunerako Lege Proiektuari egindako ekarpen transfeministetan. Lege proiektuaren izek berak adierazten du Ekuadorren diskurtso transfeministak zer-nolako aurrerapausoak egin dituen.

2. “Emakumeen gaien” tratamendu estatiko eta zatikatua gainditzea, hainbat gizarte sektore legeen, politiken eta jardun judizialaren babespean jarriko dituen tratamendu *supra* tematikoaren mesedetan.

Aldarrikapen hau aurrekoaren jarraipena da, izatez; baina ez dagokie subjektu politiko-
ei, haien agendako aldarrikapenerako gaietara baizik. Eta, ildo horretatik, bereziki premiazkoa da eragiletza politiko transfeministaren kulturarteko alderdia azpimarratzea.

Aldarrikapen makro edo zabal horretan txertatutako aldarrikapen zehatz bat “familien” definizio juridikoaren berrikuntza da; eragiletza politiko transfeminista Biltzar Nazional Konstituziogilea baino urte batzuk lehenago hasi zen gai hori lantzen, eta prozesu hartan finkatu egin zen. Konstituzioa lantzeko uneari begira gaia nola landu zen ikusteko, adibide aipagarria da kaleko komunitate batzuek polizia etxeetako jardun judizialari loturik egindako lana. Quitoko kaleko sexu langile transen elkarteek (La Y, La Mariscal, Gran Pasaje eta La Michelena elkarteek), esate baterako, kolektibo horretako kideen arteko ahaidetasun “kulturala” aldarrikatzeari ekin zioten 2007an gertatutako atxiloketa prozesu txikietan, eta uko egiten hasi ziren, adibidez, jabetzaren kontrako ustezko delitu txikietan (mugikorren lapurreten salaketetan, etab.) nahastutako beste elkarte batzuen kontra deklaratzeari poliziaren aurrean, ustezko gaizkile haien “ahizpak” zirela argudiatuta.

Biltzar Konstituziogilearen aurreko jardunean, zera azaldu zuen migratzaile elkarteek eta talde transfeministek osatutako kulturarteko plataforma politiko batek:

“Biltzar Konstituziogilearen aurrean agertu nahi dugu gure artean egitezko ahaidetasuna dugun eta familia eredu nuklear, gurasobiko, heterosexual, produktibo eta erreproduktibo, eta toki berean bizi den horretatik kanpo existitzen garen familia zenbaitek.

Familia izaera ematen diguten loturak askotarikoak dira: afektu sexualak eta ez-sexualak, bizikidetzak, bizi proiektu komunak, pertsonen arteko solidaritatezko hitzarmena, interes kultural komunak eta talde jakin bateko kide izatearen zentzu subjektiboak, besteak beste.

Ez dugu uste Zuzenbideari dagokionik gure arteko loturak kalifikatzea, ezta bizikidetzak fisikoa eta lotura sexual eta produktiboetan oinarrituriko bizikidetzak mesedetu behar duenik ere, beste ezein bizikidetzaren gainetik. Izan ere, familia askotan, ahaideak ez gara elkarrekin bizi, eta ez dugu lotura sexual, erreproduktibo edo sexual-erreproduktiborik gure artean. Hala, eredu bakar hura sustatzea ez letorke bat biltzar konstituziogile honek ezinbestean atxiki beharreko printzipio hauekin: genero berdintasuna, nortasunaren garapen askea, egoera sozialagatiko –hala nola, familiarteko lotura jakin bati dagokion bizi estiloagatiko– diskriminaziorik eza, intimitatearen babesa, eta sexu autonomia eta autonomia erreproduktiboa.

Hori guztia kontuan hartuta, konstituzio berrian honako testu hau txertatzea proposatzen dugu:

Art. (...) “Ekuadorko Estatuak hainbat motatako familiak aitortzen ditu. Lotura juridikoek edo izatezko loturek eratutako familiak dira, eta berdina dira legearen aurrean, eskubideei, askatasunei eta aukerei eta horiek gauzatzeari dagokienez”.

Ekuadorko Konstituzioan onartutako azken testua ez da hori bezain aurrerakoaia, baina oso antzekoa da. Hainbat familia mota onartu ziren, eta horrek atea zabaltzen die, konstituzio ondoko garaian, lege aktibismo transfeministaren alderdi interesgarri askori. Adibidez, lehen aipatutako sexu langile trans *kaletartuen* elkarrekin familiarekin definizio konstituzionala baliatzen ari dira, gaur egun, beraien ahaidetasun alternatiboari loturiko babes eta eskubide zehatzagoen eskakizunetan aurrera egiteko: ahaide gisa trata ditzaten eskatzen dute, adibidez etxebizitza sozialak eskuratzeari dagokionez (tradizioz familia nuklear-heterosexualek pentsatuak). Hasieran esan dudanez, Zuzenbidearen erabilera alternatiborako aukera feministak saiatzeko da xedea, mikro mailatan, baina oso modu eraginkorrean, familiarekin moduko erakunde patriarkalen egitura desegituratzeko edo, gutxienez, askotarikotzeko.

3. Subjektu-herritar indibidual eta androzentrikoaren paradigma gainditzea, hori baita legedi gehien araberako bizitza zibileko eta sozialeko esparru gehienetan parte hartzeko legitimazio prozesala duena.

Subjektu-herritar-gizon paradigma abstraktua aztertu izan dute legeen teoriko feministek arlo konstituzionalean eta zigor arloan (defentsa zilegiaren irudi penalaren kritika eta berrinterpretazio feminista da horren adibide argienetakoa). Baina ez zaio

² Familia transnazional migratzaileen eskubideen aldeko aktibistek eta Presentzia Deserosoen Aliantza Transfeministak Linda Machuca eta Soledad Vela biltzarkideei aurkeztutako dokumentua, 8 eta 1 mahaiaik, Montecristiko Biltzar Konstituziogilea, 2008.

beti halako arretarik eman esparru prozesalean, eta bereziki larria da hori, zuzenbide prozesalean, askotan, letra txikiz idatzitakoak kentzen baitu letra handiz idatzitakoak aitortzen duen hori. Eta, esparru horretan, “beraren eskubide propio eta pertsonalak gauzatzuz” formula burgesak oraindik ere aurreikusten duen subjektu herritarra giza-banakoa eta gizonezkoa da, funtsean.

Gogoeta abstraktu hau zehazteko, konstituzio aurrekoa izan arren Biltzarreko eragiletza transfeministan eragin handia izan zuen aldarrikapen bat erabiliko dut adibide gisa. 2004an, Ekuadorren, herri salaketa bat egin zen, Kontsumitzailearen Auzitegian, *Burger King* transnazionalaren kontra, publizitate sexista agertu zelako jatetxe kate hark Quitoko kale ezagun batean zeukan lokalean (Orellana etorbidean). Iragarki hartan, bularren itxura zuen hanburgesa baten irudia agertzen zen, blusa baten paparra itxuratzen zuen estalki batean bilduta; sesamo alezko orinak zituen ogiak, eta lepoa adierazten zuen; eta esku batzuk agertzen ziren haragiari (bularrak) eusten. Erreklamazioa ezarri zuten emakume elkarteek ezin izan zuten kolektibo modura jardun. Beste era batera esanda, 2004an, emakume bakar batek ezin zuen juridikoki argudiatu iragarki hark emakumeek kolektibo gisa dituzten eskubideak urratzen zituela; berari pertsonalki eraso egiten ziola argudia zezakeen gehienez ere. Elkarteez, ordea, erreklamazio bateratu bat egin ahal izan zuten kontsumitzaile modura, kontsumitzaileen eskubideak eskubide hedatu gisa kontzeptualizatuak izanik. Zuzenbidearen paradigma liberal eta patriarkala gainditzeko, ezinbestekoa da aitortzea banakako titulartasunaren formula motz gelditzen dela kasu askotan, gizonak diren eta “beraien eskubide propio eta pertsonalak gauzatzuz” kontratuak egiten dituzten herritar “homogeneoz” harago bestelako subjektu batzuk daudelako, gizarteko gune femenino tipikoak betetzen dituztenak. Horri esker, erakunde transfeministek, historikoki desabantailan egondako kolektiboaren beste gizar-te mugimendu batzuekin batera, eskubide guztien banakako titulartasunaren eta titulartasun kolektiboaren formula proposatu zuten Montecristiko Konstituzioan. Konstituzio ondoko garaian, 2009an, femenino-kolektiboaren ideia sendotzeko bideari jarraitu zaio, genero identitateagatiko gorrotozko krimenen kontrako berariazko legegintza; legegintzan egindako aurrerapen historiko bati esker, aitortuta dago femeninotasunaren gune sozialeko subjektu talde osoen kalteberatasuna, adibidez, lehen aipatu ditudan kaleko trans komunitateena.

Aipatu ditudan hiru adibide horien bidez agerian utzi nahi izan dut eragiletza transfeministak zer-nolako eragina duen Ekuadorko bizitza politikoko maila oso zehatzetan eta erabateko gaurkotasuna dutenetan. Nire ustez, eragiletza horren ikuspegiek eta estrategiek berrikuntza itzela ekarri dute Ekuadorko araudi eta erakunde garapenera, baita oraindik sakon aztertu gabe dagoen lege aktibismoaren esparrura ere. Bestalde, uste dut garapen agendek eragiletza eta estrategia horiei arreta ematea lagungarria litzatekeela teoria legal feministaren eta abiatu berria den jardun legal feministaren arteko arraila murrizteko.



Emakume etorkinentzako herritartasunaren mugak

Silvia Carrizo Fernández
Malen Etxea Emakume Etorkinen Elkartea.
Gipuzkoa



Herritartasunaren eta eragin politikoaren gaiari buruz hausnartu behar dugunean eta, batez ere, etorkinen testuinguruan egin behar dugunean, ez dakit zer ikuspuntutatik jorratuko dudan gaia: iparraldeko emakumeen errealitatetik, hegoaldeko emakumeen errealitatetik edo, iparraldean egonda, hegoaldean bizitzen jarraitzen duten emakumeen errealitatetik, gure artean, gure gizartean ikusezinak direla eta baztertuta daudela kontuan hartuta.

Nire ustez, emakume etorkinen herritartasunari eta eragin politikoari buruz hitz egiteko, emakume horiek iparraldeko gizarteetara zergatik migratzen duten jakin beharra dago. Horrez gain, funtsezkoa da jakitea emakume atzerritar horiei zer leku ematen dieten gure ongizate-gizarte garatuetan. Ezin gara herritartasunari buruz hitz egiten hasi, helmugako gizarteetan kapitalismo patriarkalak emakume etorkinei inposatzen dizkien zereginen testuingurua zehaztu gabe, genero, gizarte-maila eta etniगतिक baztertzen dituzte-eta. Gaur egun, ezin da ukatu kapitalismo globalak genero-zapalkuntza, arrazakeria, indar militarra eta zapalkuntza soziala erabiltzen dituela, ahalik eta etekin gehien ateratzeko, ugaltzeko eta alternatiba bakarra dela *autoadierazteko*.

Mundu globalizatu honetan, honako hauxe galdetzen diogu geure buruari: zer da “herritartasuna” edo zer hartzen dugu “herritartasuntzat”? Oro har eta erraz-erraz, taldeko edo erkidegoko kidea izateagatik norbaitek daukan estatusa da herritartasuna. Gainera, talde horretako kidea izateagatik, eskubideak eta erantzukizunak ditu. Era berean, eskubideak/babesak erabiltzean eta betebeharrak betetzean mundu sozialarekin harremanetan jartzeko modua ere badela esan dezakegu. Herritartasunaren azalpen generiko horietan,

herritartasunaren eragile zuzendaria den Estatuak aipatu ez dugula uste dut. “Herritartasun unibertsalari” buruzko teoria asko daude, baina benetan uste dut “berdintzen gaitue-na eskubidea” dela. Zenbait eremu eta esparrutan adierazi eta egituratzen diren herritartasun-erabilera ugariak buruz hitz egin eta zehaztu egin ditzakegu. Gaur egun, ordea, herritartasuna bera Estatuak herritarrei inposatutako eta herritarrek onartutako eta erabilitako legeen barruan dago.

Eskubideak erabiltzeko eta babesteko benetako herritartasun eraginkor horretan oinarrituta, “herritar unibertsalaren”, “munduko herritarren” ideia eratzen da banan-bananeko zentzuan eta sinesmen kolektibo moduan, eta munduko leku zehatzetako herritarrek baino ezin dute erabili. Herritartasun “unibertsal” hori botere-guneetako, hau da, AEBetako eta Europako gizonen baino ezin dute erabiltzen. Gainerako lagunentzat, ordea, ez dago herritartasun unibertsalik. Aireportuetan eta FRONTExen¹ edo Atzerritarren Barnetegietan (CIE) begiratu besterik ez dago. Adibide horiek jarri ditut, “munduko herritarren” herritartasunaren berezko botere militarren erabilera egunero-egunero azaltzen delako CNN-n².

Atzerritarren herritartasuna nolako den azaltzeko, nire esperientziaren laburpena egin nezake. Aitaren bidez nortasun horrekiko lotunea daukadan arren, Amerikako jatorrizko herrien eskubideetan sartu gabe, argi eta garbi esan behar dut nire herrialdean lan egiten nuela, kotizatu egiten nuela, zergak ordaintzen nituela eta emakumezko herritar argentinarren eskubide guztiak erabiltzen nituela. Emakume etorkin moduan, ordea, langile autonomoa naiz, gainerako langileek bezala BEZ³ ordaintzen dut, Gizarte Segurantzaren kotizatzen dut, PFEZ⁴ ordaintzen dut eta Estatuak administrazioaren zein zergen arloan inposatutako betebeharrak guztiak betetzen ditut. Nire herrialdean egiten nuen berbera egiten dut hemen, baina nire eskubideen erabilera erabat murriztuta dago. Estatuak “nazional batekin ezkontzean” daukadan ezkontza-kontratuaren bidez azaltzen du zein den nire herritartasunaren estatusa, gobernuak Donostian daukan ordezkariak dioen moduan. Estatuarentzat, betebeharrak ez dakartzate eskubide berberak, eta horixe bera da emakume etorkinen herritartasunaren lehen muga. Beraz, emakume etorkinok “egoiliarak” gara eta ez herritarak, eta egoiliarren estatusak egoera zibilarrekin zein lan-kontratuarekin dauka zerikusia.

Estatuak adostutako arauaren bidez zehazten du estatus hori: Atzerritarrei buruzko Legea.

Horri dagokionez, honako hauxe aztertu behar dugu: nolako zeregina duen Atzerritarrei buruzko Legeak, zenbat elementu xenofobo, sexista eta gizarte-mailako dituen kontuan hartuta. Indarreko lege guztiak bezala eta langileei inposatutako murrizketak bezala, Atzerritarrei buruzko Legea Estatuak indar politiko gehienek adostu eta onartu

¹ Europar Batasuneko Estatu Kideetako Kanpo Mugetan Lankidetzaren Eragilearen Kudeatzeko Agentzia Europarra.

² Cable News Network (AEBetako telebista-katea).

³ Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

⁴ Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

zuten, ongizate-gizarteari eta berdintasunari eusten dien sistema demokratikoko joko-arauen arabera.

Atzerritarrei buruzko Legea lege-esparrua da, gizarte honek atzerritarrei ematen dien “herritartasunaren” mugak zehazten ditu, eta argi eta garbi ezartzen du estatus hori ez dela inoiz bertoko herritarrena bezalako izango. Dena dela, desberdintasun hori ez da atzerritarren eta bertoko herritarren artean bakarrik gertatzen, Estatu honek bertokotzat hartutako emakumezko eta gizonezko herritarren artean ere bai.

Estatuaren eraketan parte hartu, haren antolaera erabaki eta munduari demokrazia-ikasbideak ematen dizkion gizarteak berak onartu egiten du emakume langile batzuek gainerako emakume langileek bezalako eskubideak ez edukitzea. Adibide praktikoa, argi eta zehatza jartzearen, etxeko emakume langileen egoera aipatu behar dugu. Gizarte hauentzat, emakume langile batzuek ez dituzte gainerako emakume langileek bezalako eskubideak, eta indar progresistek, ezkertiarrek eta liberalek ez dute ezer esaten horri buruz. Halaxe gertatzen da, Europako demokrazien eraketa sozialean onargarria eta zilegizkoa delako eskubide guztiak dituzten herritarrak, eskubide batzuk dituzten herritarrak eta eskubiderik ez duten gizakiak egotea. XVIII. mendean, egoera hori argi eta garbi azaltzen zen gizarte-mailen eta generoaren arabera: eskubide guztiak zeuzkaten gizonen gizarte-maila, eskubide batzuk zituzten gizonen gizarte-maila, eskubiderik gabeko emakumeak eta pariak edo esklaboak.

Gaur egun, migrazioen testuinguruan, ongizate-gizartearen egiturak, berdintasunak eta uztarketak eraketa sozial hori naturaltasunez onartzen dute euren antolamendu politikoan, lanaren arloan zein eskubide sozial, politiko zein ekonomikoen arloan, baita atzerritarren eta Estatuak bertokotzat hartutako pertsonen artean ere.

Migrazioen testuinguruetan, herritarren hierarkia hori are agerikoagoa da, eta, behar bada, legez kanpo utzitako hamar milaka emakume etorkinen kasua da adibide argiena. Emakume horientzat, gutxieneko eskubideen bila gaintitu beharreko lehen muga erroldatzean da.

Emakume etorkinei dagokienez, gure elkartearen esperientzia kontuan hartuta, erroldatzea bera da herritartasuna eratzeko eman beharreko lehen urratsa. Izapide hori erraza bezain eskuragarria izan beharko litzateke, baina helburu nekeza da benetan, eta, azkenean, nazionalek atzerritarrei egindako onarpena da. Zergatik? Emakume atzerritarrek -eta gizonek- izapide administratibo hori egin behar dutelako, hiru urteren buruan honako hauxe esateko, funtsean: “hementxe nago”. Horren ostean, beste muga bat gaintitu behar dute, etxebizitza bila hasten direnean.

Emakume etorkinak bizileku-txartela, paperak lortzen hasten direnean, badirudi ikasketen amaierako graduazio-diploma eskuratu behar dutela. Euren sentipena honako hauxe da: “lortu egin dut”. Emakume etorkinek lortu nahi duten egoiliar-estatusa ez da bilatzen horren ondorioz erdietsitako eskubideengatik, herrialdetik irteteko eta sartzeko

aukera ematen dielako baizik. Emakume etorkinek herrialdeetako herritar guztiek (ez munduan zehar, herrialdeko kale zein hirietan zehar) bidaiatzeko eta hara-hona joateko daukaten eskubide hori, giza eskubide hori erosi behar dute. Emakume etorkinek euren seme-alabak ikusi nahi dituzte, eta telefonotegietatik irtetean atxilotuko ote dituzten beldur dira. Horrexegatik izango ez balitz, Estatuak emandako egoiliar-aitorpena ez litzateke lortu beharreko helburua izango, eurentzat kostu ekonomiko handia delako eta ez dituelako euren lan-ezegonkortasuna eta zaurgarritasun soziala aldatzen. Estatuak “egoiliarrak” aitortzen dituenean, ez du esan nahi eskubide politikoak eta ekonomikoak agerian daudenik, berdintasunez ematen direnik eta erabili erabiltzen direnik.

Emakume etorkinek egoiliar-estatusa eduki dezaten, urtebeterako lan-kontratua sinatu behar dute, eta Gizarte Segurantzako kostuen %100 hartu behar dituzte euren gain, hau da, lan-kontratuaren kostu patronalak hartu behar dituzte euren gain. Hori dela eta, patronalarekin negoziatzean desabantailan daude, eta euren soldata %21 murrizten da, herritar moduan eskubideren bat eduki ahal izateko.

Emakume etorkinek ez diegu egoera horiei isilpean aurre egiten, zenbait eremu sortu ditugulako, gai horiei buruz hausnartzeko, eragin politikoa nola lortu bilatzeko, aliantzak ezartzeko eta, batez ere, geure burua eraldaketa pertsonal zein politikorako gaitasuna eta ekintza dituzten emakume moduan aldarrikatzeko.

Horra hor emakume etorkinen elkarteak. Ugaldu egin gara, erakunde bakoitza bere erara antolatzen ari da eta nahierako jabekuntza ematen die bere kideei. Hala ere, emakumeak eta ekintza politikoa agerian jartzeko eremuak irekitzen ari gara guztion artean.

Emakume etorkinen erakunde guztiak feministak ez badira ere, emakume etorkinen ekintzailtza, adorea eta izaera-kontzientzia feminismoa da. Emakumeen Sorkuntza Elkarteko kideek diotenez, “neoliberalismotik kanporatu gaituzte”, eta jakin badakigu rolak eta zereginak zehazten dituen antzinako zapalkuntza-katea dagoela. Beraz, iparraldeko zein hegoaldeko emakume guztion onerako kapitalizatu beharko dugu feminismo hori, eta, prozesu horretan, hegoaldean bizitzen jarraitu arren iparraldean lan egiten duten emakumeak ere hartu beharko ditugu kontuan.

Zer harreman dugu emakume etorkinok eta emakume etorkinon erakundeok bertoko mugimendu feministarekin? Malen Etxea Elkartearen barne-hausnarketatik eta esperientzia pertsonal zein kolektibotik, arlo horretan gainditu beharreko lehen oztopoa gizarte-mailena dela uste dugu. Bertoko emakumeen eta emakume etorkinen arteko harremana desberdintasunezkoa da -gehienetan-. Honako emakume hauekin gaude harremanetan: “andereñoa”⁵, etxebizitzako jabea, emagina, enplegu-emailea, alaba, loba eta gure enplegu-emailearen laguna. Bestetik, bertoko emakumeak honako emakume hauekin daude harremanetan: ikaslearen ama, maizterra, gaixoa, enplegatua edo bere amaren, izebaren edo lagunaren enplegatua. Bidegurutzea aurkitu behar dugu, eta gizarte-mailen arteko aldeez

⁵ Euskaraz: ikastolako emakumezko irakaslea.

hausnartu behar dugu. Izan ere, nahiz eta hori esatea ondo ikusita ez dagoen, Europako gizartearentzat gu ez gara ez zuriak, ez progresistak, ez liberalak, ez gara -nire herrialdeko goi-mailakoek diotenez- “honelako jendea, ez dira gu bezalakoak”.

Euskal Herriko mugimendu feministaren testuinguruan, guretzat ezaguna den errealtate txikian, begirada berriak onartzeko edo European emakume etorkinak egoteak zer esan nahi duen interpretatzeko estrategiarik ez dagoela uste dugu. Mugimendu feministan, emakume etorkinak ez dira ekintzat hartzen. Bestetik, agerikotasuna dute diskurtsoan, adierazpen politiko guztietan emakume etorkinen egoerari buruzko aipamenak egiten direlako. Edonola ere, txertaketaz ari garenean, ekintza politikorako estrategia bateratuz hitz egiten ari gara. Era berean, egia ere bada tokian tokiko mugimendu feministak bere agenda, lehentasunak dituela eta beti emakume etorkinen interes zein kezkekin bat ez datorrela.

Agerikoa da erakunde feministen eta emakume etorkinen elkarten arteko bidegurutzeak daudela eta estrategia politikoagatik barik eremu horietako liderrak diren emakumeen borondateagatik sortu zirela. Hain zuzen ere, Urola Kostako Koordinakunde Feministarekin izandako esperientzia da horren adierazgarri. Bidegurutze horietan, gainera, eragin politikoa eta boterea lortzeko estrategia eta agenda bateratua aurkitu beharko ditugu.

Azkenik, herritartasun-eskubideez hitz egiten badugu, ezinbestean aipatu behar dugu Europako emakumeak zeharkako herritarrik izan direla, eta oraintsu arte ia-ia “egoiliar-estatusa” eduki dutela esan genezake. Gaur egun, emakumeak bizitza politikoa daude onartuta eta erantzukizun politiko zein instituzionaleko karguetan daude, betiere, banan-banan eta euren generoa alde batera utzita badihardute. Emakume moduan taldean jardungo balute, arraroztat hartuko lituzkete, eta euren gain hartutako ordezkari erantzuten ez diotela esango litzateke.

Gizonen eta herritarren eskubideetatik -badakigu genero zehatzaz sortu zirela eta historiaren erlojuak nabarmen egin behar izan zuela aurrera, emakumeok kontuan hartu gintzaten-, herritartasuna historian zehar aldatu eta eraldatu den kontzeptua da (Anne Sassoon 1998). Dena dela, Europa gotortuan herritartasuna kategoria baztertzaileria izan da beti eta oraindik ere bada, eta, lehen emakumeak baztertzen bazituen ere, orain etorkinak uzten ditu alde batera.

Gutako zenbat gatozen bat Virginia Wolfen utopia liberal eta askatzailearekin:

“Emakume moduan, ez dut herrialderik; emakume moduan, ez dut inongo herrialderik nahi; emakume moduan, nire herrialdea mundua da.”

Hegoaldeko emakumeok mundua zeharkatu ahal izan genuenean, honako hauxe ikusi genuen:

“Emakume moduan, nire herrialdeak bota egiten nau; emakume moduan, esplotatu egiten nauen herrialdera noa; emakume moduan, munduan ez dago niretzako herrialderik.”



Herritartasuna eraikitzeko feminismoa

Begoña Zabala González
Emakume Internazionalistak, Iruñea



Zer feminismo?

Gaur egun feminismoa askotarikoa da, eta, beharbada, horrelakoa izango zen sortu zenean. Nahitaez identifikatu behar dugu geure burua, hitzaren zentzu hertsian. Bereizten gaituzten identitateko ezaugarriak erakutsi behar ditugu. Hunkitzen gaituzten edo ekintza politikoan aritzera bultzatzen gaituzten identitateen alde egitea da lehenbiziko zeregina. Hau da, lerrokatze politikoa egin behar da; “feminista” izateak, gaur egun, ez baitu gehiegi definitzen. Okerrago dena, nahasmena ere sorraraz dezake. Izan ere, nire ustez, boterean, instituzioetan, eta berdintasun eta parekotasunaren praktikarik libereenetan kokatuta dauden feminismoekin nahastuta azaltzeak mesede txikia egiten dio emakumeen emantzipazio-prozesuari –oro har, emakume guztiei, baina, bereziki, mendekotasun patriarkalaren sistemak gehien baztertzten dituen emakume horiei–.

Orain, eguneroko jardute politikoan ikasten ari garenez, feminismoek ez dute soilik lan egiten emakumeen taldearentzat. Uztartu egiten dira klase jakin baten interesekin, nortasun kultural eta nazional edo etniko batzuekin, sexu-aukera jakin batzuekin... Hartara, sarriegitan, gure arloetan, “generoko politika publikoak” epigrafe azpian aurkitzen ditugun politikek lehentasuna ematen diete gizarteko klase edo jarrera jakin bateko emakumeei, naziotasun edo arraza jakin bateko edota sexu-aukera zehatz bateko emakumeei.

Hori guztia gure jardute politikoaren eta gainerako jardute politikoaren bidez ikasi dugu; baina, batez ere, gobernuen eta, zehazki, Europar Batasuneko eta Estatu espainiarreko

gubernuen eta autonomia-erkidegoetako gubernuen bidez jakin dugu. Berdintasunerako politikak edo bereizkeria positiboko neurriak ezartzen direnean, neurri horiek emakume jakin batzuek lortzen dituzte: sexuaz gain, klasea, sexu-identitatea, arraza eta etnia bezalako beste gizarte-jarrera zehatz batzuk biltzen dituzten emakumeek. Eta gubernuek sustatzen dituzten neurri horiek eragin ona edo txarra izaten dute emakumeei dagozkien beste baldintza batzuetan.

Emakume zehatz batzuei begira egiten dira legeak, gainerako emakumeak aintzat hartu gabe, edota gainerako emakumeen egoera okertuz. Hori argi eta garbi ikus dezakegu azken bi legegintzaldietan Madrilgo Diputatuen Kongresuan onetsi diren “genero-arloko”¹ azken legeak aztertuta. Honelako krisialdietan, argi eta garbi ikusten da alienazio hori. Eta, era horretan, “emakumea” gizonaren mende jarritako bigarren mailako subjektu gisa eratzeko dakartzan hasierako “bekatuez” gain, neurri berriak ditugu, horiek ere bekatuzkoak. Krisialdia konpontzeko ezarri badira ere, berdintasuneko parametroetan dagoeneko kokatuta dauden emakume batzuen egoera doi-doi ukitu baizik ez dute egingo. Egiten duten lana –ez egonkorra, ezkutukoa, maitasunaren edota “zintzotasunaren” ondoriozko langabezia–, duten naziotasuna –desegokia–, dagozkien etnia edo kultura –homologaziorik onartzen ez duena–, edota beren sexua edo sexu-jarduteak direla eta –agindu heteroarautzaileetatik ihes doazenak–, berdintzasunerako probak gairatu ez zituzten emakumeak baztertuta geratuko dira berriz. Bazterrean utziko dira, hainbat arrazoren ondorioz; eta arrazoi horiek ikertu behar ditugu, arrazoi horienatik kokatu behar baitugu gure burua ezinbestez agerpenaren eta ordezkariaren alde honetan. Baztertutako emakume horientzat bilatzen eta eskatzen da herritartasuna; herritartasun osokoa, autonomia eta independentea.

Hala, bada, hemen azalduko dugun feminismoak emakumeen interesak hartzen ditu aintzat –emakumeen generoko interes estrategikoak–², eta, era berean, bazter utzitako identitateak hartzen ditu kontuan, generoko mendekotasunak, sistema neoliberalak, dena balitzen duen mendekotasun globalizatuak bazter utzitako identitateak. Inguruan dugun sistema definitu behar dugu, eta esplotazioaren ertzik gogorrenak nabarmendu behar ditugu. Haien aurka joko du borroka feministak. Hala, bada, gero ondo aztertu ahal izango dugu nola eraiki mugimendu bat, subjektu bat eta identitate bat edo batzuk, premiaz behar dugun politika feminista egiteko, hau da, gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak aldatu ahal izateko. Feminismo

¹ Lege hauek aipatzen ari naiz bereziki: *Generoko indarkeriaren aurkako osoko babes-neurriei buruzko* abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa; *Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia eta laguntza sustatzeko* 39/2006 Legea; *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko* martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa; eta *Pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistroko zuzenketa arautzen duen* 3/2007 Legea. Horiei buruzko iruzkin orokorra irakurtzeko, ikusi hau: Zabala, B. (2009): “El feminismo frente al derecho”. *Viento Sur* 104. zk. Hemen ere badago eskuragarri: www.vientosur.org.

² Ikusi definizioa hemen: Molyneux, M. (1985): “¿Movilización sin emancipación? Intereses de la mujer, el Estado y la revolución: el caso de Nicaragua”, hemen: Caraggio, J. L. eta Deer, C. D. (koord.) (1986): *La transición difícil: la autodeterminación de los pequeños países periféricos*. Mexiko, Siglo XXI.

hori hirurogeita hamarreko hamarkadako mugimendu feministaren tradizioan dago sustraituta. Mugimendu feminista hura batzarren bidez antolatzen zen, erradikala, autonomoa eta independentea zen, aurre egin zien finkatutako botereei, eta emakumeen alde sekula izan den gatazkarik handienetako bat egin zuen: emakumea eskubideen subjektua izatea lortu zuen, hau da, eskubideak izateko eskubidea izan zezaten lortu zuen. Eta, ikusten denez, gatazka horrek bere horretan jarraitzen du.

Feminismo hori zehazten joateko, bizi garen mundua nola edo hala argi agertzen hasi behar dugu, eta adierazi behar dugu zein diren krisialdi honetan dauden kontraesanik zorrotzenak. Era horretan, hobeto aztertu ahal izango dugu nondik joko dugun sistemari flotazio-marran erasoia jotzeko.

Nire ustez, “krisialdia ez dagokio soilik sistema ekonomikoari, ekoizteko eredia bera jotzen du, eta mundu-mailakoa da. Krisialdi energetikoa da honako hau, hau da, baliabide naturalak ustiatzeko eta banatzeko sistema agortzen hasia dago. Horrez gain, krisian dago menderatze kapitalistaren eredia, edo eredu neoliberal eta patriarkala. Gero eta esku-hartze armatu gehiago egin behar da, gero eta gerra gehiago behar da; biztanle-guneak, errebeldeak edota bazter uzteko moduko pertsonak gero eta sarriagotan sarraskitu behar dira, boterea dutenek beren eredia indarrez ezartzen jarrai dezaten. Horrenbestez, biztanle askok lekuz aldatu behar dute, batez ere emakumeek haurrekin. Milioika lagunek beren sorterritik alde egin behar dute; eta, herri-gabeak izanik, ez dira gauza beste babesleku batzuetan bizirik ateratzeko. Krisialdi ideologikoa da honako hau, pentsamendu bakarra baitago; eta barne hartzen duen sistema politikoa, hau da, “demokrazia” izenez ezagutzen den hori, ez da bate-re demokratikoa. Gainera, eredu horretan, ustelkeriaren mugak eta metatutako kapitala –lapurreriaren emaitza– ikaragarriak dira. Bestalde, krisiak goitik behera zeharkatzen du nazioarteko lan-banaketa, sexuaren arabera egina dagoena. Hortaz, eredu demografikoaren oinarrian migrazioak daude. Bestalde, zerikusi zuzena du “zaintzaren krisia” izenekoarekin. Nazioz haraindiko zaintza-kateak sortzen dira, eta horrek era askotako ondorioak ditu emakumeengan, hala hemengo nola beste mundu batzuetako emakumeengan.” (Zabala 2009).

Eredu horrek, aurrera egin dezan, pertsonak kategorietan sailkatu behar ditu, biztanle-guneak segmentuetan zatitu, eta subjektu-izaera ukatu behar die gure munduan bizi diren milioika pertsonari, eta nola edo hala estigma jarri behar die horiei. Hargatik, gure feminismoak aldarrikapena egin nahi du hori gerta ez dadin.

Lehen eta bigarren mailako herritarrak... eta herritar ez direnak

Europako eraikuntzaren proiektuarekin bat eginda dauden gobernuak lanean aritu dira herritartasun jakin bat eraikitzeko: itxura demokratikoa eta europarra duena, mende-baldeko estilokoa, eta, jakina, gizonak eta emakumeak barne hartzen dituena. Nabaria denez, trantsizio-garaian Espainian eraiki zen subjektuak ez zituen emakumeak barne

hartzen³ –eta are gutxiago diktaturako subjektuak–. Erreformat eginez, “generoa” ize-nekoa gaineratu zaio subjektu maskulinoari. Nonahi agertzen den gailu garbitzailea, paradigma bihurtutako berdintasuna, gaur egun ez da aldarrikapen huts bat, politika edo zuzenbideko oinarri funtsezko bat. Orain, neurri guztien “oinarri” saihestezina da. Denok berdinak gara. Edo hala izan behar dugu. Ez da aditzera ematen zein den gure parean jartzen den beste hori. Gizonezkoa da, eskubideen subjektua. Alabaina, ez da edozein, zeren, adibidez, ez baita gizonezko etorkina izango.

Hala, bada, berdintasunaren paradigmaren azpian eraikitako herritartasun horrek emakumeen arteko zatiketa garrantzitsu bat eraiki eta iraurarazi du, eta, gainera, ez du gainditu gizonen eta emakumeen artean zegoen zatiketa. Hortaz, eredu horrek subjektuen dualizazioa ezarri du berriz. Izan ere, hori da dagoen bide bakarra mendekotasunetan oinarritutako sistema patriarkal eta neoliberalak bizirik iraun dezan, dituen esplotaziooko molde guztiei eutsita. Hala, argi eta garbi ikusi ahal izan dugu, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak egoteaz gain, neurri berriek nabarmendu egin dituztela emakume batzuen eta besteen arteko desberdintasunak.

Hargatik, “herritartasun demokratikoa” izeneko kontzeptuaren aurka gaude. Kontzeptu hori ilustrazioaren eta berdintasunaren emaitza da, eta estatu-nazioaren mende eta espazio europarraren eraikuntzaren mende dago. Subjektua eta herritartasuna eraikitzekeo, beste parametro batzuk behar ditugu, emakumeak askeago, autonomoago, eta, azken batean, independenteago izan daitezen lortu nahi badugu.

Emakumeei bereziki zuzendutako –edo lehentasunez zuzendutako– eskubideei buruzko legetan ondo ikus daiteke esleitzen ari diren eskubideak edo jarrerak ez direla onuragarriak izango emakume guztientzat, eta eskubide eta jarrera horiek ezartzean bereizkuntzak egingo direla emakumeen artean.

Susmo hori argi berretsi ahal izango dugu, oro har eta maila kontzeptualean, lana eta dagozkion gizarte-eskubideak izateko eskubideari buruzko legeak egiten direnean, emakumeek egindako lan garrantzitsu batzuk ez baitira barne hartzen. Gainera, emakumezkoen ohiko lanak bigarren mailako lantzat jotzen dira, eskubide gutxiagoko lanak balira bezala, eta ez soilik lan-ordainei begira, ondoriozko eskubideak esleitzeari begira ere bai. Hala gertatzen da etxe-zerbitzarien lanarekin. Lan hori 1985. urtean arautu zen, lan-kontratuko kategoria emanda. Alabaina, zenbait alderditan, ez da aintzat hartzen beste arlo batzuetako lan-kontratuak bezala, adibidez, istripu edo gaixotasunaren ondoriozko baja, langabeziako sorospena, oporrak, kaleratzeko askatasuna eta beste alderdi batzuk aztertzean. Beste lan batzuk ez dira lantzat hartzen, eta, beraz, ez zaie eskubiderik

³ Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko subjektuaren kontzeptualizazioa kritikatzeko, txosten hau irakur daiteke: “Todos los derechos para todas. Los derechos humanos de las mujeres”, Emakume Internazionalistak taldeak aurkeztua 2000. urteko Kordobako Jardunaldietan (Jornadas Feministas Estatales de Córdoba). Hitzaldia hemen dago eskuragarri: www.zabaldi.org, eta Kordobako Unibertsitateak eta jardunaldien antolatazaileek argitaratu zuten liburua.

onartzen; esate baterako, hala gertatzen da sexu-zerbitzuekin. Xedapenetan ikus dezakegunez, gizarte-prestazio garrantzitsuak, banakakoak eta unibertsalak izateko xedea eta asmoa dutenak, berez, lan jakin batzuei lotuta daude. Eta larriagoa dena: prestazio horiek langile baten emakume ezkonlaguna izateagatik ematen dira –eta horrek emakumeen mendekotasuna eskatzen du–. Orain, lortu nahi den baina ondo ulertzen ez den berdintasun horren bidez, ezkonlagunak diren gizonezkoek ere jaso dezakete prestazioa. Hala, bada, osasun-laguntza eta alarguntza-pentsioak jasotzeko, Gizarte Segurantzian alta emanda dagoen edo egon den norbaitekin ezkondu beharra dago. Eta are larriagoa dena: alarguntza-pentsio irriarriak –kopuru aldetik irriarriak– beste emazte ohi batzuekin partekatu ahal dira, eta berriz ezkontzean baizik ez dira galtzen. Hala uste izaten da, beraz: emakumeak beste senar bat harrapatuko duela, eta horrek bere gain hartuko duela emakumearen ardura.

Herritartasuna banakako eskubide unibertsalak aintzatesten dituen estatus juridikoa ematea baldin bada, beste aukerarik ez dugu, herritartasun-kategoria ugari daudela onartu behar dugu ezinbestez. Azpisailkapen hauek egiten dira: ezkonduetako emakumeak, gizarteko eskubideak senarrei esker lortu dituztelako; bizitza osoan etxeko lanak egiten kotizatu gabe eman duten emakumeak, baina ezkongabeak badira edo haien bikotekideek kotizatu ez badute, inoiz ez baitute erretiro-pentsioa izateko eskubiderik izango; ezkutuko ekonomian edo beraien etxetan gizarte-segurantzari gabe lan egin duten emakumeak; sexu-arloan lan egiten duten emakumeak, lan egin eta dirua irabazi arren, ezin izan baitute kotizatu; atzerrikoak diren eta paperik jaso ez duten emakumeak, paperik gabe ez baitute eskubiderik; etxeko langileen araubide berezian sartuta lan egiten duten emakumeak –milaka emakume dira, gaur egun gehienak atzeritarrak–; autonomoak diren emakume nekazariak, araubide berezia baita hori ere, orain arte ez baitu aukera utzi familia bereko bi kideek Gizarte Segurantzian alta eman zezaten, eta, beraz, senarra azaldu baita beti –orain zirrikitu bat zabaldu da–, etab. Eta horiek horrela, eskubideak “behar bezalako” lan-kontratu bati lotuta daudelako, gobernuek lan-kontratutzat jotzen duten horri lotuta, alegia.

Gai honi buruzko lehenbiziko ondorioaren harira, herritartasunaren kontzeptu bat zehaztu beharko genuke, eta erabateko herritartasunera atxiki beharko genuke. Herritartasun hori pertsoneri emango genieke, haien egoera zibila gorabehera, eta egiten ari diren lana zein motatakoa den kontuan hartu gabe. Hau da, argi bereziko genituzke herritartasunaren gutxieneko eskubideak eta lana. Hainbatetan baieztatzen den bezala, osasuna, hezkuntza, gizarteko prestazioak, eta mendetasun-egoerako laguntza jasotzeko eskubideak unibertsalak baldin badira, pertsoneri eman behar zaizkie, pertsonak banaka hartuta, eta ez familia aintzat hartuta.

Berdintasunetik harantz

Zentzuzkoa denez, feminismoak egiten duen borrokarekin bat etorrira, ez gara berdintasunaren aurka jarri, ez behintzat une bateko edo egoera jakin bateko eskubideak

edota baztertutako talde batzuei dagozkien eskubideak aldarrikatzen dituen berdintasunaren aurka. Aitzitik, gogor eta irmo gaitzesten dugu berdintasuna aurkeztea emakumeen askapenerako paradigma politikoa eta filosofikoa balitz bezala. Talde batekoak izateagatik eskubiderik gabe geratu diren zapaldutako talde guztiek nahitaez borrokatu behar dute legezko bereizkeriaren aurka. Ziurrena, horixe da aldarrikapenaren lehen urrats garrantzitsua. Ildo horretan, lehenbiziko urratsa izango da, aintzatespena lortzeko borroka luzean.

Gure taldeetan, 70eko hamarkadako mugimendu feministak egin zuen borroka historikoa aldarrikatu da. Garai hartan, mendekotasun patriarkala arlo guztietan gehiegikeriaz puzten zuen diktaduratik irten ondoren, lehen lerroan jarri genuen eskubideen aldarrikapena eta bereizkeriarik ez jasateko eskakizuna. Borroka eraginkorra zen hura, eskubideak izateko eskubidea lortzea zuen xede, eta batez ere emakume ezkonduak borrokatzen zuten. Era berean, eskubide guztiak eskuratzeko borrokatzen zen: lan egiteko, dibortziatzeko, abortatzeko, sexu-askatasuna lortzeko, amatasun askea izateko eskubidea eskuratzeko... Bestalde, borroka horren bidez, emakumeen talde-subjektu identitario bat sortu zen, alde batetik, botereak eskatzen zuen identitateari aurre egiteko, eta, bestetik, berriz jaiotzen edo sortzen ziren taldeekin eta mugimenduekin –esate baterako, alderdi eta sindikatuekin– hizketakide-lana egiteko. Taldeko subjektu bat eraiki nahi genuen, desberdintasunaren eta zapalkuntzaren ondorioz hain nabarmen zen generoko menderakuntzaren aurrez aurre jarria, emakumeen aldarrikapenak bideratu zitzaizkan –garai hartan emakume guztien aldarrikapenak ziren–. Emakumeen askapenerako mugimendua deitu genion horri, eta gaur egun ere horrela deitzen zaio; baina askapena ez da oraindik lortu, eta, beraz, aldarrikapenak hortxe jarraitzen du.

Oraingo egoera oso bestelakoa da. Emakumeen artean dauden desberdintasunak agerian utzi dira. “Emakumea” edo “emakumeak” subjektua ez da beti berdina. Une haueetan areago handitu eta larriagotu dira klasea, naziotasuna, etnia, sexua edota adina dela eta dauden kontraesanak. Izan ere, oraingo sistema neoliberalak hautatu duen globalizazioak milioika lagun esplotatu behar ditu aurrera egingo badu, eta milioika lagun horiek ez dira soilik hegoaldeko herrialdeetan bizi; hementxe ere bizi dira, aberastutako herrialdeetan, eta identitate guztiak onartzen ez dituen eta nagusi den eruditik urrutiratu ahala agertzen dira.

Hortaz, hauxe da unea, orain uztartu behar dugu geure feminismoa bazter utzita dauden identitateekin. Eta herritartasunaz hitz egiten ari garenez, bestelako kontzeptu bat finkatu behar dugu, kontzeptu zabalagoa, orain arte gure gizartean baztertuta egon diren emakumeak barne hartuko dituen.

Yuval-Davisek (2001) ondorio hau atera zuen:

“(...) herritartasunaren teoriak ez du sexista edo arrazista izan behar, ez du lerratuta egon behar mendebaldeko balioetara, eta, horrez gain, aski malgua izan behar du, Estatuen eta gizartearen eraikuntzan eta (des)ordenean dauden epe luzeko aldaketekin

borrokatzeko. Teoria horrek nola edo hala desegin behar du alde pribatua familiaren nagusitasunarekin eta alde politikoa publikotasunaren nagusitasunarekin berdintzen duen joera. Maila desberdinetan eraiki behar dugu herritartasuna, Estatuarekikoa baizik ez den harremanetik bereizita.”

Proposamen batzuk

Sexua, naziotasuna edo erreferentzia etnikoa gorabehera, pertsona guztiei dagokien erabateko herritartasuna sendotzea da plazaratu behar dugun lehenbiziko eskaera. Eskubideei dagokienez, ez dugu bereizitako herritartasunik eduki behar. Idatzitakoak irakurritan, bistan denez, hori ez da berdintasunaren parekoa, horrek ez du esan nahi emakumeak gizonekin parekatuko direnik.

Kontua da banakakoak eta unibertsalak diren eskubide batzuk sendotu behar direla; eta eskubide horiek pertsoneri aitortu behar zaizkiela –pertsona bera erreferentzia bakar gisa hartuta–, alde batera utzi behar direla erabat pertsona horren familia, ondorengoak, bikotekidea, etab. Eskubideen subjektua pertsona da, instituzio guztien gainetik.

Ildo horretan, subjektu langileak ez du eskubideak dituen subjektua izan behar, lanari dagokion definizioa aintzat hartuta. Lanak hainbat eskubide eta aukera egituratzen dituen bitartean, kontzeptua berriz zehaztu beharko dugu, eta aintzat hartzen ez diren errealitateetara zabaldu beharko dugu: lan sexualak, etxeko lan guztiak, zaintza-lanak, etab. Gainera, ikuspegi hori lotune garrantzitsua izan liteke hegoaldeko herrialdeetatik datozen eta eskubiderik aitortuta ez duten emakumeekin bat egiteko. Era berean, lotune egokia izan liteke merkatu erregularrean “lan egin” ez dutelako eskubiderik ez duten hemengo emakume asko elkartzeko. Azken batean, haiek eta gu helburu bera lortzeko ari gara borrokan, eta, ildo horretan, eskubideak unibertsal bihurtzea da osagai garrantzitsuetako bat.

Mugimendu feministaren ustez, emakumeak definitzeko, sexu eta generoaz gain, beste errealitate edo identitate batzuk hartzen dira aintzat; eta, beraz, errealitate horiek kontuan hartu behar dira aztertzeko, aldarrikatzeko, borrokatzeko eta antolatzeko garaian.

Mugimendu feminista lanean ari da erakunde autonomo eta independente batzuk berriaz gaurkotzeko, aldi berean mestizoak eta askotarikoak diren erakundeak; eta bertan, aldarrikapenez gain, mendekotasunean oinarritutako sistema neoliberalak bazter utzi nahi dituen beste errealitate batzuk ere sartu behar dira.

Bibliografia aipuak

Emakume Internazionalistak (2000): “Todos los derechos para todas. Los derechos humanos de las mujeres”, hemen: Jornadas Feministas Estatales de Córdoba. Hemen dago eskuragarri: www.zabaldi.org, eta Kordobako Unibertsitateak eta jardunaldien antolatzaileek jardunaldiek zuten izenburu beraren azpian argitaratu zuten liburua.

- Hegoa eta ACSUR (2008): *El espacio crítico feminista. Alianzas entre ONGD y Organizaciones de Mujeres Latinoamericanas*. Bilbao, ACSUR eta Hegoa.
- Hegoa eta ACSUR (2010): "Incidencia política y participación ciudadana de las mujeres" en *Diálogos. Monográficos de divulgación feminista*, 3. zk., Madril, ACSUR eta Hegoa.
- Hola, E. eta Portugal, A. M. (1997): *La ciudadanía a debate*. Txileko Santiago, Isis Internacional.
- Yuval-Davis, N. (1997): "Mujeres, ciudadanía y diferencia", hemen: Hola, E. eta Portugal, A. M. (1997): *La ciudadanía a debate*. Txileko Santiago, Isis internacional.
- Zabala, B. (2009): "Feminismo para tiempos de crisis", hemen: Jornadas Feministas de Granada. Hemen ere eskuragarri: www.feministas.org
- Zabala, B. (2008): "Políticas desde el feminismo", hemen: *Viento Sur*, 100. zk.
- Zabala, B. (2006): "Mujeres inmigrantes. Algunas consideraciones desde el feminismo", hemen: *Mujeres migrantes. Viajeras incansables*. Bilbao, Harresiak Apurtuz. Hemen ere eskuragarri: www.harresiak.org



Emakumeen prestakuntza
politikoa erdialdeko Amerikan.
Merkatuarentzat edo arduratik
abiatuta?

Ana Felicia Torres Redondo
Ikerketa eta Argitalpen Zentroan (CEP)-Alforja,
Costa Rica



Aurrekariak

Zergatik defendatu emakumeei ekonomia feministako prestakuntza politikoa ematea eskubide ekonomikoak erabiltzeko estrategia gisa, proiektu emankorrak, mikroenpresak edo mikrokredituak sustatu beharrean? Galdera horren inguruan hainbat hausnarketa egin nahi ditugu. Ehunka emakume buruzagiren protagonismoa sendotu eta ahalduntze pertsonal nahiz kolektiboari buruzko esperientziak elikatzen dituzte hausnarketa horiek; aipatutako esperientziak Costa Rican eta erdialdeko Amerikan egin dira (CEP)-Alforja Azterketa eta Argitalpen Zentroak bultzatuta. Horixe da eskola eta hausnarketarako lekua.

Emakumeen Protagonismoa Sendotzeko CEP-Alforjaren programak bere bidea egin du: emakumeen herritartasun politikoari eusteko ekintzak bultzatu ditu, herritartasun ekonomikoan arreta jarri du eta emakumeak ekonomia feministan hezi ditu. Hori guztia emakumeen lurralde-erakundeetako emakumeekin batera egin da, baina baita politika publikoen arlo ekonomikoan eragiteko bokazioa eta nahia garatu dutenekin ere. Era berean, Beijing ondoko emakumeen mugimendu eta mugimendu feministen ahalleginei herri hezkuntzatik lagundu zaie.

Eta, horregatik, apustu estrategikoak, enfasi politiko, teoriko eta metodologikoak leku pedagogikoa aldatzen joan dira: herritartasun politikoan aritzeko prestakuntzatik hasi eta ekonomia feministaren arloan emakume buruzagiak sortzeko prestakuntza politikora arte. Eta hori guztia emakumeentzako botere berriaren eraikuntzarekin lotua dago:

politikoa, zentzurik zorrotzenez, eta ekonomikoa, zentzu zabalagoan. Bizitzaren dimentsio ekonomikoan jarrita, loturak askatzea eta botereak eraikitzea bilatzen da, bai norbanakoari dagokionean eta baita taldeari dagokionean ere.

Iragaitze horretan iparrorratz lanak egiten dituen emakumeen partaidetza politikoarekin eta emakumeentzako demokrazia ekonomikoa eraikitzea zuzendutako ahalegin eskasekin izandako desilusioak. Emakumeen partaidetza politikoko kuotak bezalako mekanismoen zentzu politiko sakonaren huste eta okertzeari buruz ari gara. Baina baita emakume eta feministen mugimenduen eginkizunei buruz ere, emakumeek osatutako GKE eta GKE mistoen eginkizunez eta nazioarteko lankidetzak emakumeak lan-merkatuan txertatzeko egin duen ahaleginaz, izan lanbide itxuran edo, gutxienez, lan duina bermatuz.

Proiektu emankorrak, mikroenpresak, *ekintzailetasuna*, mikrokredituak, diru-sarreraren sorrera, eta abar; izen eta izenondo horiek guztiek ez dute lortu emakumeen egoera edo eskubide ekonomikoak aldatzea. Eta azkenean ehunka emakumeren lana kontsumitu dute: batzuk onuradun gisara, besteak tekniko gisa, eta beste zenbait hezitzaile paperean.

Egun, erdialdeko Amerikan emakume gehiago daude lan-merkatuan, baina enplegu ezegonkorrak dituzte, eta ekonomiaren sektore informalean daude kokatuta; aurpegia makillatuta eta beren bizitzak makillatzen. Emakumeari buruzko Munduko IV. Batzarraren egin zela hamabost urte igaro direlarik, erdialdeko Amerikan pitzadurek irekita jarraitzen dute emakumeen partaidetza politikoari dagokionean, eta, gainera, milioika emakumeek geroz eta lan-karga handiagoa izateaz gain, egunero jasaten dituzte arlo ekonomikoko pitzadura horien ondorioak, txikiagotu beharrean geroz eta handiago bihurtzen ari direnak.

Hausnarketa horien artean daude, halaber, emakume-mugimenduen eta mugimendu feministen espazioetan partekatzen diren kezkek, ametsak eta desira partekatutakoak, besteak beste, Mesoamerikarrak Erresistentzian Bizitza Duin baten alde bezalako taldeak. Espazio horretan, CEP-Alforjak aukera ezin hobea izan du, bai Costa Rican eta baita erdialdeko Amerikako gainerako herrialdeetan ere, ekonomia feministaren arloan emakume buruzagiak hezitzekeko estrategiaren garapena lehengo ilaratik behatu eta bertan parte hartzeko. Esperientzia horretatik ateratako ikaskuntzek egiten diete argi hausnarketa hauei. Esperientzia nagusi horren inguruan ehotzen dira era horretako prestakuntza-prozesuetan parte hartzen duten beste emakume askoren ahotsak, kezkek, desilusioak, haserreak eta frustrazioak. Eta, beraz, taldean eraturako jakintza da.

Ahots-urritasun gutxiago eta aukera nahiz baliabide urritasun gehiago

Emakumeari buruzko Munduko IV. Bilzarra egin zenetik, orain 15 urte, emakumeok, oro har, "gure ahots-urritasuna" gutxitu dugu. Hala ere, horrek ez du lagundu baliabide eta aukera eskasia benetan eta justiziaz jaisten. Beste hitz batzuekin esateko, ahaldundutako politikoko prozesuek ez dute korrelaturik izan erdialdeko Amerikako emakumeen ahaldundutako ekonomikoan, ez norbanakoari dagokionean eta ezta taldeari dagokionean ere. Gure gizarteak

“demokratikoagoak” dira egun emakumeen partaidetza politikoari eskerrak; baina, oraindik ere, desberdintasun handiak daude, batez ere emakumeek beren eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak erabili eta gozatzeko dituzten aukerei buruz ari garenean.

Emakumeen partaidetza politikoa ez da estatuen edo gure gizartearen doako emakida baten fruitua. Emakume-mugimenduek eta mugimendu feministek planeta osoan ehunka urtean egindako borroken emaitza da. Eta, horrela, aurreko mendeko berrogeita hamarrek hamarraldiaz geroztik, orduan lortu baitzuten emakumeek botoa emateko eskubidea hainbat herrialdetan, geroz eta gehiago ziren herri-hauteskundeetako postuetara aurkezten zirenak, baita herrialdeko lehendakari izateko hautagai gisa ere. 1995ean egin zen Emakumeen buruzko Munduko IV. Biltzarra bulkada garrantzitsua izan zen prozesu horretan.

Edonola ere, politikaren estetikan izandako aldaketaz eta emakume horiek guztiek parte hartzeko duten eskubide ukaziaz haratago, emakume gehienek bizitza gutxi aldatu da. Ordezkaritzaren kalitatea oso eskasa da, ez bakarrik emakumeen kausaz egiten duten defentsagatik, baita emakume horien gehiengo bat datorrelako ideologia neoliberalarekin ere, eta bat egiten dutelako bizitza bere dimentsio guztietan arpilatu eta emakumeen lanaren nahiz naturaren desjabetze mailak handiagotzen dituzten eredu ekonomikoekin.

Agian gure gizartearen esparru guztiak tindatzen dituzten logika patriarkalen nagusitasun eta sakontasunak, eta fase neoliberal honetan kapitalismoarekin ezkondu izanak eragina izan dute “sartzeko eta ikusgarriak izateko” egindako ahaleginean, eta ondorioz ahalgin horiek birziklatu egin dira eta joera kontserbatzaileen zerbitzura jarri dira. Azkenik, mundua bizitzeko toki egokiagoa egin dugu, emakumeak esfera politikoan sartzeak halako nartzisismo autoatsegina sortu baitu gure gizarteetan. Baina bizi-kalitatearen hobetzeaz eta gure eskubideak baliatzeaz ari bagara, emaitzak exkak izan dira.

Merkataritza irekitzeko prozesuek eta ekonomia nazionalen motor izateko merkataritza askearen alde apustu egiteak ez du inolako aukerarik eskaintzen emakumeen aldeko demokrazia ekonomikoa gizonen parean jartzeko; baina ez hori bakarrik, izan ere, arlo ekonomikoan gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunean pitzadura sakonagoak irekitzeko mehatxua egiten du. Neoliberalismoak eta patriarkatuak beren konplizitatea berrizatu eta birmoldatzen dute, eta, era berean, esaera hura barrentzen dute “...emakumea gizonarentzat, gizona estatuarentzat, eta biak merkatuarentzat”.

Beste zenbait herrialdek bezala, Costa Ricak hobekuntza garrantzitsuak lortu zituen Generoari buruzko Garapen Indizean (GGI)¹ eta Genero-indartzearen Indizean (GII)²

¹ Giza Garapenaren (GGI) batez besteko aurrerabidea egokitzen du gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak islatzeko. Lehenengo GGIn osagai bakoitzaren indize femeninoak eta maskulinoak kalkulatu dira, eta gero konbinatu egiten dira, gizon eta emakumeen arteko aurrerapen mailaren arteko desberdintasunak zigorretarako helburuarekin.

² Emakumeen gaitasuna baino gehiago aukerak neurtzen ditu, eta hiru esferetako desberdintasunak erakusten ditu: partaidetza politikoa, partaidetza ekonomikoa eta baliabide ekonomikoaren gaineko boterea.

Beijingeko akordioak (1995) lortu baino lehen. GGiri dagokionean, 1995ean Costa Rica 29. lekuan zegoen mundu mailan. 2005. urterako herrialdea 44. postura jaitsita zegoen.

GGiri dagokionean berriz, 95. urtean Costa Rica 22. postuan zegoen, eta hamar urtean zehar ibilaldi ezegonkorra egin eta gero, 28. postura jaitsi zen (1998), baina gero gora egin zuen berriro, 19. postura igoz 2005ean. 2008rako Costa Rica jaitsita zegoen berriro ere, mundu mailako 27. postura.

Eta, beraz, 1995 eta 2008 urteen artean, bi indizeen arteko arraila nabaria da, eta ibilbidea norabiderik gabekoa; era horretako gizarreak zalantza asko eragiten ditu. GGik atzera egiten du, eta GIik berriz, hasieran aurrerapen txiki bat erakusten du, baina gero berriro atzera egiten du.

Erdialdeko Amerikako gainerako herrialdeak ez daude Costa Rica baino egoera hobean. 2003. urtean Panama mundu mailako 50. lekuan zegoen GIiri dagokionean, El Salvador 54. lekuan, eta Honduras, 60. lekuan. Guatemala eta Hondurasi buruzko daturik ez dago urte horretan.

Gure ustez, Costaricaren kasuan Genero Indartzearen Indizeak 1995-2005 hamarkadan erakusten dituen datuak engainagarriak izan daitezke. Egia da herrialdeak aurrerapauso handiak egin dituela emakumeek politikan duten partaidetzari dagokionean, baina aurrerakada hori ez da berdina izan partaidetza ekonomikoan eta baliabide ekonomikoen gaineko boterean. Edonola ere, GGiren atzerakada eta geldialdiek -osasunaren, hezkuntzaren eta bizitza duinaren arloei lotuta- eragin zuzena dute emakumeengan, esparru ekonomikoko aukeretara sarbidea izan eta baliabide ekonomikoen gainean boterea izateko garaian, hain zuzen ere.

Merkataritza-irekierako nahiz globalizazio-prozesuan sartzeko prozesuak sakonagoak egin diren neurrian, GGIn lortutako aurrerapausoak galtzen joan dira. Bereziki emakumeak lan-munduan txertatzearen kalitatearekin zerikusia dutenak. Aurrekoa oinarritzko elementua da emakumeen eta gizonen arteko tartea murrizteko estrategia positibo, osasuntsu eta iraunkorren barruan.

Bi indizeen arteko tartea eta emakumeen egoera ekonomikoaren atzerakadari buruzko egiaztatze objektiboak ezin garbiago erakutsi dute bidea eta estrategiak berriro pentsatu behar direla.

Emakumeen erakundeek eta erakunde feministek, nazioarteko lankidetzaren babesarekin, ahalegin handiak egin eta baliabide ugari erabili dituzte gobernuei presioa egin eta emakumeentzako politika publikoak landu ditzaten arlo ekonomikoan.

Baina ahalegin horiez guztiez haratago, erdialdeko Amerika osoan zehar, eta ziurrenik mundu osoan zehar, hainbat eta hainbat emakumek gure energia onenak erabili ditugu

azken hamabost urtetan hainbat ekintza bultzatzeko: proiektu produktiboak, diru-sarrerak sortzeko ekimenak, mikroenpresak, mikrokredituak eta emakumeei zuzendutako beste hainbat produkzio-modu eta elkarte. Edonola ere, nahiz eta batzuetan gure familien egoerak hobera egin, desberdintasuna iraunarazten duten arrakalak ez dira desagertu, aitzitik, handitu egin dira.

Gure herrialde gehienetan Ekonomikoki Aktiboa den Populazioan emakumeek duten partaidetza handitu egin da: 1990 eta 2002 urteen artean laneko partaidetzaren tasa %39tik %50era igo zen eskualdeko hiriguneetan. Nolanahi ere, igoera hori errentagarritasun gutxiko jarduera-sektoreetan eman zen, lanpostu ezegonkorretan eta inolako lan- edo gizarte bermerik gabe.

Emakumeok bitartekari lana egin dugu lehen mailako osasun-arretako politiken eta osasun-ministerioen artean. Eta, gainera, aintzat hartu ez arren, lan izugarria egin dugu haurrak, zaharrak eta ezinduak zaintzen; eta halaber, familientzako sortak jaso eta bantzen, emandako elikagaiak ekoitzi eta horien kontsumoa antolatzen eta pobreziazi aurka egiteko programak praktikan jartzen.

Eta horrenbestez, gure presentzia mundu ekonomikoan, nahiz eta ekonomikoa merkataritza-harremanekin bakarrik lotu, oso garrantzitsua da. Era horretan joan dira gehitzen diru-sarrera bikoitzak dituzten etxe eta familiak, emakumeen buruzagitzarekin, eta baita pertsona bakarreko etxeak ere.

Eta puntu honetan, emakumeen partaidetzak duen dimentsio politikoaren eta partaidetza horren dimentsio ekonomikoaren arteko lotura egin nahi dugu berriro. Azpimarratu nahi baitugu bi dimentsio horietan egindako ahaleginek eta emakumeek lan-merkatuan izan duten sarrera handiak ez dutela ekarri ez eskubideak gehitzea, ez baliabide gehiago izatea, ezta emakumeentzako aukerak handitzea ere.

XIX. mende amaiera arte emakumeak espazio pribatura mugatuak egon ziren, eta beren eginbeharra zen ugalketa biologikoa eta ekoizpen sozial eta materiala familien barruan; aurreko mendeko hogeita hamarreko hamarkadan, ordea, Latinoamerikako gobernu populistek modernizazioa ekarri zuten.

Modernizazio horren ondorioz, emakumeek botoa emateko eskubidea lortu zuten, horixe baitzen emakumeen eta emakumeen erakunde nahiz erakunde feministen eskaeretakoa bat. Emakumeak gizartearekin harreman funtzionalagoa izatea ere ekarri zuen, beren herritartasunari zegokionean “aberria zerbitzatzeko ama” bihurtu baitzizuten. Oraindik ere etika, estetika eta politika horrek baldintzatzen du nolabait emakumeak lan-merkatuan eta politikan sartzea.

Maternalismo hori are sakonagoa egin zen hirurogei, hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarraldietan, garapen-politiken bidez; eta emakumeen manipulazio-prozesua ere sakonagoa egin zen, bereziki krisi ekonomikoarekin. Ikusezin bihurtutako etxekolan eta zaintza-lanez gain, maternalismoak erkidegoaren garapenerako gizarte eragile

bihurtu gintuen. Eta hori guztia gertatzen zen bitartean, inolako ekoizpen-eskubiderik izan gabe jarraitzen genuen. Erkidegoan, krisi uneetan eta handitzeko joera izan duten pobrezia nahiz muturreko pobrezia egoeretan, gure hirietan ikus ditzakegun bizirau-pen-mugimenduak osatu zituzten amen elkartean bultzatzaile bihurtu ginen. Horrelako elkarteak herrietako auzoetako emakumeek osatu zituzten batez ere, ama arduratsu gisara antolatzen deituak.

Hori guztia gertatzen zen eta egun gertatzen den bitartean, emakumeen erakundeak eta erakunde feministak aldaketa juridiko gutxi batzuk baino ez ditugu lortu, soldata baten truke etxeko lanak egiten dituzten emakumeen lana ikusgarri egin eta babesteko. Hala ere, ez soldatapeko etxeko langileek ezta etxeko-lanak nahiz zaintza-lanak egiten ditugun gainerako emakumeek ere ez ditugu lehen baino eskubide ekonomiko gehiago, gure herrialdeetako barne produktu gordinari egiten diogun ekarpena gorabehera.

Ahots gehiago izan arren, baliabide ekonomiko eta aukera urriak ditugu oraindik.

Emakumeen ahalduntze ekonomikorako paisaiak eta bideak erdialdeko Amerikan

Orain arte azaldutako testuingurua kontuan hartuta, ahalduntzea eta eskubide ekonomikoak lortze aldera emakumeak ekonomia feministan hezteko aukera politiko eta metodologikoaren alde egin izana azaldu eta arrazoitu nahi dugu.

Emakumeak lan-merkatu sartzeko estrategiak planetaren alde honetan izan dituen urritasunak eta gaiztotasunak azaldu ditugu aurreko paragrafoetan. Emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren apustu handia da, mundu mailakoa. Horrekin ez dugu esan nahi emakume talde handiek nolabaiteko autonomia ekonomikoa lortzen lagundu ez dutenik. Baina gaur egun, ez bairik gabe beharrezkoa den arren, berriro pentsatu beharrezkoa da.

Esperientzia kolektiboak eta horren azterketa kritikoak erakusten digute emakumeak lan-merkatu sartzeko ez dela nahikoa esparru horretan ahalduntzea lortzeko eta emakumeek -emakume guztiek, eta beren bizitzako etapa guztietan- beren eskubideak baliatzea ahalbidetuko duten gizarteak, familiak, bikoteak, enpresa pribatuak, estatuak eta sare sozialak eratzeko.

Erdialdeko Amerikako emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren, baina, bereziki, Mesoamerikarrak Erresistentzian Bizitza Duin baten alde mugimenduaren espazioetan gai jakin baten inguruko errezelo eta intuizioak indarra hartu du: gure historiako une honetan era biziotsuan elikatzen dituela neoliberalismoa eta patriarkatua emakumeen soldatapeko lanak eta lan-merkatuan txertatzeak. Ekonomia politikoak gainbalioak ateratzea deitzen dio horri, eta langile gehienei eragiten die. Baina gaur egun badakigu, emakumeen genero-kondizioak baldintzatuta, lana desjabetzeko beste modu batzuk elikatzen dutela emakumeen sarrera lan-merkatuan. Ikerketa askok erakutsi dute

emakumeak askoz ahulagoak garela lana malgutzeko neurrien aurrean, gizonek inoiz onartuko ez lituzketen lanak onartzen ditugula eta ekonomiaren sektore informalean kartzeko joera handiagoa dugula. Familia-bizitza eta lana uztartzeko aukera emakumeak lanaz desjabetzeko mekanismo gaiztoa da bizitza pertsonal eta sozialaren arlo guztietan.

Baina era berean baieztatu dugu kapitalismo neoliberala eta patriarkatua elikatzen dituela kapitalismoak fase neoliberallean jasotzen duen egitura-sostenguak eta emakumeek egiten dituzten ordaindu gabeko lanak: etxean, familian eta gizartearen kudeaketan, erkidego barruan. Eta ziurrenik baieztapen hori baliozkoa da gizateriaren historiako fase guztientzat, gizakiok matriarkatuetan³ bizi ginenean izan ezik.

Adierazle sozial, politiko eta ekonomiko guztiek bidaltzen dituzten seinaleek diote lanaren banaketa soziala aldatzen joan dela espazio publikoetan, baina lanaren banaketa sexualean oinarritzen dela beti, zeinak oso aldaketa gutxi izan baititu esfera pribatuetan; edonola ere, emakumeek esfera publikoan zein pribatuan duten partaidetzaren elementu antolatzailea izaten jarraitzen du. Eta azkenik, imaginario pertsonal nahiz kolektiboa gobernatzen jarraitzen du bizitzako arlo guztietan, eta bereziki ekonomikoan.

Eta nahiz eta emakumeen erakunde eta erakunde feminista gehienek, bereziki lurralde mailakoak, lehentasuna izan emakumeentzako diru-sarrerak sortzeko ekimenak bultzatzea, geroz eta garbiago ikusten da emakumei prestakuntza politikoa emateko prozesuak abiarazteko beharra.

Dagoeneko ez da nahikoa metodologiak eta abordatze politiko nahiz pedagogikoak pentsatzea mikroenpresak, *mikroekintzailatza* eta mikroredituak politizatzeke, ez eta emakumeentzako politika publikoak prestatzea ere arlo ekonomikoan. Ez da nahikoa diru-sarrerak sortzeko ikuspegi feministetan oinarritutako ekimen horiei gainjarriko zaizkien antolakuntza-eskema berrituak egiten saiatzea.

Izan ere, neoliberalismoaren eta patriarkatuaren logikek gaiztotu egiten dituzte ahalegin horiek guztiak, eta era harmonikoan antolatzen dituzte norabide jakin batean: emakumeak lanarekin kargatu eta pixkanaka gure beharrian material eta espiritualetatik urrundu. Geure burua beste batzuentzako eta merkatuarentzako izaki gisa baieztatuz.

Emakumeen bizitzan ikusten dugunak sortzen dizkigu errezeloak. Entzuten dugunak. Esate baterako, ekonomia feministan hezteko erdialdeko Amerikan egindako ekintza batean, bizitzaren ikuspegi ekonomikotik lotura patriarkalak eta neoliberalak askatzeko taldean gaikoak bilatzen ari ginela, parte-hartzaileetako bati izugarritzko haustea iruditzen zitzaion senarrari esan gabe erosketak egitera joatea edo maitale bat izatea. Bi aukerak

³ Kultura matriarkalak esaten zaie Europako kultura patriarkalen aurrekoei, Kristo baino zazpi mila eta bost mila urte lehenago existitu zirenak, hain zuzen ere. Kultura horien ezaugarrietako bat zen ez zituztela soroak eta uztak zatitzen. Herri nekazari eta biltzaileak ziren, eta ez zituzten beren herrixkak gotortzen, ez zegoen desberdintasun hierarkikorik gizon eta emakumeen artean. Gizarte horietan jarduera espiritualak eguneroko bizitzaren alderdi sakratuan oinarritzen ziren, naturarekin bat eginda bizi ziren.

ezin kontserbadoreagoak dira eta gure lotura neoliberal nahiz patriarkalak legitimatzen dituzte. Aukera gaiztoak azken finean, ardi-larruarekin jantzitako otsoak bailiran nahastu egiten gaituztelako eta gure ahalegin askatzaile eta urratzaileak desbideratzen dituztelako.

Beste hitz batzuekin esanda, ahalduntzea eta autonomia eraikitzeke besterik gabe lan-merkatuan txertatzera garamatzaten aukeren aurrean mesfidati agertzeko garaia da. Lan-merkatuan sartu eta soldatapeko lana izateagatik diru-sarrerak jasotzeak ez du esan nahi emakumeek era berean lortu dutenik beren ahalduntze mailak igotzea. Hasteko sexuaren araberrako lan-banaketa oso gutxi aldatu delako familia barruan, eta emakumeen ardura da familia osatzen duten pertsonen emankortasuna. Horrek esan nahi du beraiek egiten dituztela etxeko lanak, beste emakume batzuk kontratatzen dituztela lan horiek egiteko eta emakume-haurrengatik, nerabe edo emakume zaharrengatik ordezkatuak izaten direla. Eta azkenik, emakumeen ardura da oraindik familien emankortasuna eta bizi-kalitatea bermatzea. Ez bakarrik arlo ekonomikoan, baita afektiboan ere.

Eta horrek ez du esan nahi gure bihotzetan ez ditugunik erdialdeko Amerika honetan pobrezia mailan edo maila horren azpian bizi diren milioika emakumeen ahalegin eta nahigabeak. Garbi dugu, bai buruan eta baita bihotzean ere, ezin diogula alternatiba ekonomikoak bilatzeari utzi, eta horien guztien bizimodua konponduko duten diru-sarrerak sortzeko modua bilatu behar dela. Baina ulertuz goaz alternatiba ekonomikoen bilaketa hori “gerora begira” egin behar dela, aurrera egiteko aukera izan dezagun, eta, betiere, etorkizunari begira oraina sakrifikatu gabe; baina aurreko baldintzetan egoera hori inoiz ez da iritsiko.

Azken finean, aurkitzen duguna da emakume talde handi bat, zeinak bere lan-karga handitu baitu, baina teknologia berriak maneiatzen ez du ikasi, ez du bidezko soldata jasotzen egindako lanagatik eta ez du aurrerapausorik ematen autonomia ekonomikoa lortzeko. Emakume horien guztien dirua gutxi da, urria eta ikusezina, beren autonomia bezala. Egiten duten lana, ordea, asko da, handia eta ikusezin bihurtua. Eta, gainera, beren jardueraren mugak beti daude familia-bizitzaren zainzatatik oso gertu. Eta horrengatik dute diru gutxi.

Honduras eta Nikaragua bezalako herrialdeetan sektore informalean lan egiten duten erdialdeko Amerikako milioika emakumek beren osasuna eta egonkortasuna galtzen dute ehungintzako makinetan eta makina elektronikoetan; lan asko egin eta gutxi irabazten duten emakumeak dira. Arlo publikoan eta pribatuan lan egiten duten emakumeak dira.

Begirada luzea eraikitzen: Emakumeen prestakuntza politikoa ekonomia feministan

Aurreko paragrafoetan esan dugun legez, erdialdeko Amerikako emakumeen erakunde, erakunde feminista eta GKE asko ordena politikoko gaien inguruko prestakuntza-prozesuetatik ordena ekonomikokotara igaro gara. Betiere, bizitza bere osotasunean politizatzeke borondatearekin, baina ikuspegia aldatuta.

Egun, erakunde horietako askok emakumeen prestakuntza politikoko prozesuetara itzultzeko estrategia bultzatzen dugu. Izan ere, hortik egin dira sartu-irtenak gai ekonomikoetan.

Susmoak elikatu eta gure errebeldiari eusteko abordatze teoriko metodologiko aberasgarriak bilatzea ez da erraza izan. Mesoamerikarrak Erresistentzian Bizitza Duin baten alde taldeak garatutako prozesuak bilakaera bat izan du: emakumeentzako prestakuntza ekonomikoa izan zen lehenengo, ekonomia politika feminista gero, eta egun bizitzaren iraunkortasunerako ekonomia feministaren ikuspegia lantzen dute.

Iragaitte teorikoa ez da erraza izan, emakumeentzako aukera berdintasuna eraikitzeke gutxieneko gizarte alternatiben eta baldintzen inguruko eztabaida ideologikoan parte hartzea eskatzen baitu horrek. Emakumeen eskubideak ondoen babesten dituen sozialismoa ote den eztabaidatu behar da, askotan konpromiso politiko alderdikariaren esperientziatik eta erdialdeko Amerikan laurogeiko hamarraldian izandako iraultza prozesuak kontuan hartuta. Izan ere, kapitalismoak bere fase neoliberallean erakutsitako abegitasunik ezari eta indarkeriari buruzko inolako zalantzarik ez dago. Baina beren burua ezkertiarizat duten partidu eta gobernuekin izandako desengainuak ere asko izan dira. Azkenean baieztatu da emakumeak ondo egoteko aukera bakarra natura ondo egotea dela, eta hori posible izango dela bizitzaren zaintza gune bihurtzea lortzen duen gizarte eredu batean bakarrik.

Emakumeak ekonomia feministan prestatzeko prozesuak bultzatzeak esan nahi du baztertu egiten direla emakumeak ekonomia neoliberalari buruz ikastea bilatzen duten ekimekin, herrikoiak deituriko bertsiotan eta bitartekaritza pedagogikoren batekin. Batez ere hori lehen urrats gisa ikusten denean, gerora diskurtso horien desegite kritikoa hasteko.

Egiaz, emakumeok makroekonomia zer den ulertzeko beharra dugu, eta zergatik gu mikroekonomian kokatzen gaituzten beti. Lan-merkatua eta bere ezaugarriak nahiz emakumeek merkatu horretan duten lekua kuriositatez ikertzea premiazko eginbeharra da. Era berean, laneko legeria eta politika ekonomikoekin lotura duen guztia ezagutu behar da. Ezbairik gabe oso garrantzitsua izan daiteke zenbait kontzeptu ulertzea, besteak beste, defizit fiskala, ordainketa-balantza, barne produktu gordina eta nazio-produktu gordina, *per capita* diru-sarrera, inflazioa eta deflazioa, zerga-politika eta beste hainbat.

Baina intuizioek erakusten digute eduki horien guztien eta bizitza ekonomikoko dimentsioen ikuspegi kritikoak, batez ere merkataritza-eremura mugatzen denean, sostengu handiagoa ematen duela, aberasgarriagoa da eta emakumeen jabetze integralagoa bultzatzen du, betiere, ekonomia feministaren ikuspegitik egiten bada.

Denbora politikoez, hau da emakumeok geure buruaren prestakuntzari eta gure antolamendu-prozesuak nahiz errebeldiak aberasteari eskain diezaiokegun denbora, ez da nahikoa diskurtso hegemonikoak transmititu, eta gero, desegiteko. Gure apustua

kontradiskurtsoa eraikitzen zuzendua dago gehienbat, ekonomiaren ikuspegi zabal batekin, bizitza sozialaren esfera guztietan bizitzaren zaintzarekin lotzen duena, hain zuzen ere. Eta hortik ekonomiak “etxearen administrazioa” zentzua berreskuratzen du, “*oikos*-aren administrazioa” alegia. Eta, beraz, ez da merkaturak trukatzeko ondare eta zerbitzuen ekoizpena. Hori dela eta, familia-bizitza eta lana uztartzea bilatzen duten ikuspegiak, eta antzekoak, zalantzan jartzen dira, sexuaren arabera lan-banaketa eta bizitzaren -bere forma guztietan- “axola-gabekeria” elikatu eta errepikatzen dituztelako beren ezaugarri funtzionalengatik.

Aurrekoak lotura zuzena du “tailergintzaren” kritikarekin, zeina suhar garatu baitzen Emakumeari buruzko Munduko IV. Biltzarra eta gero. Latinoamerika osoan zehar emakumeen erakundeak, erakunde feministak eta GKEak ia hamar urtean aritu ziren emakumeen aldeko estatu-instituzionaltasuna eraikitzen, eta, gainera, emakumei prestakuntza emateko prozesuak bultzatu zituzten. Eta bide horretatik egin dira hainbat gairen inguruan prestatu eta gaitzeko milaka tailer. Prestakuntza-prozesu horietako askok egindako ekarpena ukazina da: emakume-lidergoen prestakuntza, gizarte sarearen berreraikitzea eta emakumeen mugimenduaren antolamendua indartzea.

Baina egia da, baita ere, “bezeroak” sortu direla antolatutako eta antolatu gabeko emakumeen artean, batez ere tailerrak nazioarteko lankidetzak finantzatutako proiektu jakinen barruan antolatzen direnean eta ez direnean epe ertaineko prozesu gisara ikusten. Eta, gainera, “zabortegiaren psikologia” deiturikoa bultzatzen dezakete emakumeen artean, hau da, beti prestakuntza beharrean irudikatzen gaituzte, inoiz ez gure kabuz ekintzak egiteko prest, eta beti eskaintzen zaiguna jasotzeko prest. Horretatik oso garrantzitsua iruditzen zaigu emakumeen prestakuntza-estrategiak berriro pentsatzea, arlo guztietan; eta baita ere sarrera-puntuak berrikusi eta “bidea mozten” laguntzeaz gain, gure bizkar gainera lan gehiago botako ez diguten abordatze teoriko eta metodologikoak bilatzea.

Emakumeen bizitzaren dimentsio ekonomikoa ekonomia feministaren ikuspegitik aztertzeak aukera eman digu gizartearen ikuspegi antisistemikoa lantzeko, bihotza jarriz emakumeen lanaren azterketa kritikoan eta zaintzen ikuspegian. Amaia Pérez Orozcok dioen lez, zaintzen perspektiba esparru ekonomikoari lotua dago “pertsonala politikoa ere bada” baieztapena feminismoari lotua dagoen neurri berean. Zaintzak eta lana funtsezko bi alderdi izan dira prestakuntza-prozesu horietan. Agerian jarri dituzte neoliberalismoaren eta patriarkatuarekin ditugun loturen dimentsio pertsonal eta kolektibo sakonak.

Esate baterako, bidea eman digute kontsumoak eta denbora librearen erabilerak sistema neoliberalera eta patriarkalera lotzen gaituzten moduei buruz hausnartzeko. Gehiengintzan esperientziaren dimentsio horiek ez dira ikuspegi kritikoaren pean jartzen, esparru pribatua kokatzen baitira.

Ildo horretatik, agerian geratu da ikuspegi patriarkal bipolarren, manikeo eta baztertzailen perbertsio estaltzailea, zeinak bereizi egiten baitituzte publikoa eta pribatua, emankorra eta ugalkorra, pertsonala eta kolektiboa; eta, gainera, ezkutatu egiten dute

bizitzaren dimentsio horien arteko jarraitutasuna eta hurbiltasuna. Begirada horiek po-break dira eta pobretu egiten dute.

Prestakuntza-prozesu horietan baieztatzen da beharrezkoa dela bizitzaren zaintza politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren erdigunean jartzea, bai eta zalantzan jarri behar dela bizi-kalitatea kontsumitzeko gaitasunarekin identifikatzeko joera ere.

Mundua bere osotasunean “ekonomia” gisa ikusteak salaketa bat egitea eskatzen du: bizitzaren zaintzarekin lotutako lanen balioa ikusezin bihurtzen da eta lanaren balioa lan ordaindura murrizten da. Horregatik, etxeko lan ordainduaren balio ekonomikoa eta ekarpen soziala aintzatesteak balio estrategiko handia du emakumeentzat: balio zibilizatzailea, ez bakarrik etxeko andreentzat eta etxeko langileentzat, emakume guztientzat baizik.

Balorazio horrek zentzu estrategikoa ematen die etxeko langileen erakunde nahiz emakume migratzaileen erakunde borroka eta eskaerei, bai “Hirugarren Munduan”, bai honetan eta baita “Lehenko Munduan” ere, beraiek baitira zaintza-kateei eusten dietenak mundu mailan.

Kapitalismo neoliberalaren fase honetan sexuaren araberako lan-banaketa zaharberritu egin dela aitortzea eskatzen du ekonomia eta bizitzaren begirada kritiko horrek, betiere, ekonomia feministaren ikuspegitik, eta, gainera, gizarte bizitzako esparru guztiak artikulatzen jarraitzen duela, eta ez soilik bizitzaren dimentsio “pribatua”. Emakumeen prestakuntza-politikoko prozesuetarako erronka pedagogiko eta metodologiko garrantzitsuak daude beraz, izan ere, patriarkatuaren instituzio nagusi horren izaera artikulatzailea, eguneroko bizimoduan ez ezik “publikoa” deritzogun esparruan, agerian utziko duen tresna eta abordatze teorikoak behar baitira. Esparru hori makurki neutroa da sexuaren araberako lan-banaketari dagokionean, eta horregatik bere presentzia ikusarazi eta berreraikitze premia estrategikoa handia da.

Eta nahiz eta iruditu ekonomiarekin zerikusirik ez duela, sexuaren araberako lan-banaketaren izaera egituratzailea -bizitzaren dimentsio guztietan- egonean jartzen da nahitaezko heterosexualitatearekin. Patriarkatuaren instituzioa, dakigunez sexu-aukera eta orientazioez haratago doana, heterosexualki osagarriak diren dikotomien adierazpen moral bihurtzen da: publikoa/pribatua; pertsonala/kolektiboa; gizona/emakumea; femeninoa/maskulinoa; gizona/natura; mitoak/zientzia; magia/teknologia; emozionala/arrazionala; lana/ez lana; emankorra/ugalkorra/ez emankorra.

Eta, beraz, ekonomia feministaren “begirada luze” horrek berarekin darama hurrengoa:

- a. Ekonomiari buruzko abordatze teoriko eta politikoak berrikusi eta aldatzea. Feminismoen ikuspegitik, ekonomia feministarekin batera, ekonomiak bizitza osoarekin zerikusia duela erakusten da, eta ez merkataritza-harremanekin bakarrik. Bizitzaren esparru guztiak politizatzea nolabait, eta ikusaraztea bizitzaren dimentsio ekonomikoa desegitea ezinbestekoa dela emakumeen ahalduntze pertsonal eta

kolektiboko prozesuetan. Bizitzaren dimentsio ekonomikotik subjektibotasun feminista eraikitzeke prozesuak garatzeko erronka proposatzen ari gara.

Ekonomia feministaren ikuspegitik emakumeei prestakuntza politikoa emateko prozesuetan feminismoaren kontzeptu nagusiei heldu behar zaie lehenengo, hala nola, patriarkatua eta sexuaren araberako lan-banaketa. Eta hortik aurrera ekonomia feministaren planteamendu nagusiak garatu ahal izango dira, esate baterako zaintzen ikuspegia, lana kontzeptuaren azterketa kritikoa, kategoria bipolarren desegitea (publikoa/pribatua; lana/ez lana eta produktiboa/ez produktiboa).

Ezinbesteko oinarri teoriko horretatik, eta feminismoetatik nahiz bizitzaren iraunkortasunerako ekonomia feministatik abiatuta, globalizazio neoliberalerako prozesura, zaintzak berrantolatzeke mundu mailako prozesuetara eta planeta guztian gertatzen ari diren krisietara (elikagaiena, finantzarioa, energetikoa, “ingurumena-rena”) hurbiltzea, modu kritiko eta selektiboan.

Ekonomia feministatik emakumeei prestakuntza politikoa emateko prozesuek emakumeek bizi dituzten zapalkuntza ugarien (generoa, klasea, sexu-lehentasuna, minusbaliotasuna, herritartasuna) elkargunea agerian uztea ahalbidetuko duten abordatze teorikoak behar dituzte, eta, era berean, agerian geratuko da horrek kapitalismo neoliberalaren eta patriarkatuaren areagotzean duen garrantzia.

Benetan garrantzitsua iruditzen zaigun azken elementua da norbanakoaren zein familiaren kontsumo-praktikak kritikoki desegitea, lotura estrategikoa baita kapitalismo neoliberalarekin, eta horrenbestez, lehenbailehen desegin behar da.

- b. Ikuspegi horrekin bat datozen abordatze metodologiko eta pedagogikoak eta tresna didaktikoak eraikitzea. Pertsonala politikoa ere badela dioen baieztapena ikuspegi metodologikotik errealitate bihurtzeko erronka gure egin beharko dugu, eta lotura arrazional nahiz emozionalak egitearen aldeko apustua egin emakumeen eguneroko bizitzatik; eta, horrela, emakumeek egiten dugun lanaren, zaintza eskaintzeko gaitasunaren eta zapalkuntza neoliberal nahiz patriarkalen arteko lotura genetikoa agerian utzi ahal izango dugu. Era batera edo bestera baieztatzen goaz “pertsonaletik igarotzen ez dena ez dela eskuratzen”.
- c. Azterketak egin eta tresna kritikoak eraikitzea emakumeon milaka esperientziak, ekoizpenarekin, merkataritzarekin nahiz kontsumoarekin lotuak, modu kritiko baino maitekorrean tratatzeko, batez ere herrietan eta eskualde mailan. Ekonomia feministak ez du era horretako tresnarik emakumeei prestakuntza politikoa eman ahal izateko, bereziki prozesu horiek herri-hezkuntzatik egiten direnean.

Norberaren zaintza eta elkarren arteko zaintza:

Prestakuntza politikoko prozesuak gunea emakumeengan jarrita

Hainbat hamarralditan zehar, bereziki laurogeiko hamarraldian, erdialdeko Amerikako emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak beren energia eta gaitasun onenak

erabili zituzten emakumeen alde estatu-instituzionalitatea eraikitzeko. Gauza bera egin zuen mugimendu sozial mistoei dagokienean.

Ahalegin horren etekinak ez ziren izan emakumeen erakundeek eta erakunde feminis-tek uste zutenak. Urte askoan emakume-idazkaritzak bultzatu ziren erakunde sindika-len, hiri erakundeen eta nekazari erakundeen barruan; aliantzak bilatu ziren interes ko-munen inguruan; kaleko mobilizazioei babesa eskaini zitzairen, ez bakarrik merkataritza arloko jendearekin, baita ahalegin horiek guztiek eskatzen duten logistikan eta zaintza-eginbeharretan ari ziren emakumeekin ere.

Erakunde horien agenda estrategikoak ez ziren inoiz aldatu ordea, eta ondorioz emaku-meen eskariak “agenda sektorial” gisa ikusten dira, eta kasurik okerrenean “sektore ahu-lenekin” lotzen dira. Gainahalegin hori dela eta, azkenean erakunde horiek politikoki zuzenak bihurtu ziren, eta ez hori bakarrik, erakunde “bizigarriagoak” ere bihurtu baitziren; baina horrek ez du esan nahi, era berean, emakumeen erakunde adiskideak bihurtu zirenik.

Aurreko paragrafoetan esan lez, antzeko zerbait gertatu zen emakume-andana handi bat talde politikoetan eta estatu-instituzionalitatean sartu zenean, eta emakumeen eskubi-deen inguruan politika publikoa eta mekanismo instituzionalak eraikitzea zuzenduta-ko ahaleginak egin zirenean.

Eta balantzea egitean “gela propiorik gabeko feminismoa” aurkitzen dugu, Nikaragua-ko Sofia Montenegro feministak ematen duen definizioaren arabera; emakumeen mu-gimendu feminista horrek “gunea kanpoan” du, bere planteamendu ideologikoan ahul-dua dago eta lidergo berrien prestakuntza eta zabalkuntzarik ez du.

Horregatik erdialdeko Amerikako emakumeen mugimendu eta mugimendu feminista-ko zenbait adierazpen, hala nola, Mesoamerikarrak Erresistentzian Bizitza Duin baten alde, errebeldiaren eta erresistentziaren alde gaude neoliberalismo eta patriarkatuaren testuinguru honetan, baina, era berean, prestakuntza politikoko prozesu propioei berri-ro modu autonomoan heltzea erabaki dugu. Gure burua zaintzeko eta elkar zaintzeko estrategia sakona da, eta neurri batean estatuaren eta gizarte mugimendu mistoen au-rean axola-gabetu eta amatasun-gabetzeko estrategia.



Gatazka armatuak emakumeen
bizimoduan dituen kostu
pentsaezinak. Kolonbiako kasua

Norma Enríquez Riascos

Amerika Latinoko eta Karibeko Lantaldea Emakumeen
Eskubideen Defentsarako (CLADEM), Kolonbia



Kolonbiako gatazka armatua indar matxinoaren eta Estatuaren arteko ohiko borrokatik haratago doa. Osaketa konplexuko gatazka da, hainbat eragilek esku hartzen dutelako, borrokaren intentsitatea zenbait mailatakoa izan delako, bakea lortzeko ahalegin itzelak egin direlako eta, azkenik, interes zein eragin asko daudelako ia-ia mende erdiko iraupena daukan gatazkan.

Hobeto ulertu dadin, Kolonbiako gaur egungo barne-gatazka armatuaren bilakaera azaldu nahi nizueke. Gertaerak lau unetan banatuko ditut, gerraren prozesuaren beraren laburpena egin nahian. Era berean, herrialdeko bizitza instituzionalaren nondik norakoak ere azalduko ditut, eta, batez ere, Kolonbiako emakumeen errealitateari emango diot lehentasuna.

Lehenengo unean, talde matxinoak sortu ziren, eta, gutxi gorabehera, bere iraupena bi hamarkadakoa izan zen.

Bigarren unean, ordea, posizioak gogortu egin ziren, gobernuak oposizioa zapaldu zuen eta eragile berriak sortu ziren: paramilitarismoa eta narkotrafikoa. Horren ondorioz, gatazka armatua larriagotu egin zen.

Ondoren, su-etenaren eta desarmearen une laburra etorri zen, eta bakea lortzeko itxaropena sortu zen 90eko hamarkadan. Epealdi horretan, Amerika Latinoko gainerako gatazka armatuak eten zituzten.

Laugarren unean, Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileekin (FARC) hitz egiteko prozesuari eman zioten hasiera. Hala ere, liskarrek bere horretan zirautenez, bat-batean eten

zen prozesua. Une hori gaur egungo gobernua eratzean itxi zen, “Justizia eta Bakea” Legearen inguruko proposamenaren bidez talde paramilitarren desmobilizazioa sustatzean. Giza eskubideen defendatzaileek eta eskubideok zaintzen dituzten nazioarteko estamentuek, ordea, oso kolokan jarri dute prozesu hori.

• **Lehenengo unean** (XX. mendeko hirurogeiko hamarkadaren hasieran)

Kolonbia desberdintasunezko herrialde baztertzaila zen. Bertako eliteek ez zuten inolako konpromisorik bidezkoagoa zen garapen nazionala bilatzeko, eta, euren interes ekonomikoei lehentasuna ematen zieten, euren kapitalak kanpora eramaten zituzten, AEBetara eta Europara, batez ere. Kolonbia herrialde sozial eta kontserbadorea da, eta alderdien arteko bi hamarkadako indarkeria gainditu nahi du, bi alderdi tradizionalen arteko hitzarmenaren bitartez. Alderdi liberaleko eta alderdi kontserbadoreko eliteek hitzarmen hori sinatu zuten botere politikoa zein burokrazia estatala banatzeko, eta, era berean, beste adierazpen politiko batzuek ez parte hartzeko hitzarmena ere bada.

Horrez gain, desberdintasun historikoak sakon-sakonak direnez, biztanle asko txirotasunean eta miserian bizi dira. Hori dela eta, giro egokia sortzen da, “gobernu demokratikoa” omen zenaren aurkako matxinadari hasiera emateko. Hasiera batean, gatazka hori txikia izan zenez, nekazarien zein langileen bidezko eskariei erantzun zieten arazoa konpontzeko. Gaur egun, ordea, Amerika Latinoko barne-gatazka armatu antzinakoa da, itzel-itzela da benetan eta ondorioek herrialdeko mugak gainditzen dituztela esan genezake.

Garai horretan, emakumeek herritartasuna estreinatu berri genuen, Kolonbia Amerika Latinoko azkenaurreko herrialdea izan baitzen emakumeen boto-eskubidea onartzeko orduan. XX. mendearen erdialdeko datuen arabera, desberdintasunak nagusi ziren honako arlo hauetan: alfabetismoa, hezkuntza, lana eta partaidetza politikoa. Hala ere, nahikoa izan zen apur bat irekitzea, eta, eraldaketen bidez, emakumeek agerian utzi zuten behar besteko gaitasuna eta interesa zituztela, herrialdeko bizitza kultural, ekonomiko eta politikoan parte hartzeko.

Begirada moralizagarriak eta zapaltzaileak jasan behar izan bazituzten ere, emakume asko unibertitateetan eta lan-merkatuan sartu ziren, eta euren autonomia pertsonal zein ekonomikoaren arloa handiagotu zuten. Horrela, bada, behinolako inposaketa utzi zuten atzean, lan egiteko orduan aitaren edo senarraren baimena eduki behar zutelako. Horren ondorioz, sorrarazitako soldataren jabeak izan ziren.

Hirurogeiko hamarkadaren amaieran eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, beste adierazpen armatu batzuk sortu ziren¹, eta talde matxino guztiak emakumeak

¹ Lehenengoak Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak izan ziren (FARC); eta, ondoren, Askapen Nazionalerako Armada (ELN), Askapenerako Armada Popularra (EPL), Apirilak 19 Mugimendua (M-19), Quintín Lame (gerri-lla indigenista), Langileen Alderdi Iraultzailea (PRT) eta esangura txikiagoko zein iraupen laburragoko beste batzuk. Euretatik, FARC eta ELN bizirik daude oraindik, baita EPLren zati bat eta beste talde txiki batzuk ere.

hartzen hasi ziren. Aldi berean, ezkerreko erakunde politikoak sortu eta garatu ziren unibertitate eta sindikatuetan. Bertan, hain zuzen ere, emakumeen partaidetza agerikoagoa zen, baita alderdi tradizionaletan ere. Era berean, feministak ere agertu ziren zoko sozialistetatik eta alderdien autonomiatik, eta eskubide gehiago eskatu zituzten emakumeentzat. Horrez gain, gizartearentzako proposamenak ere egin zituzten. Hori dela eta, emakumeen zenbait antolaera autonomoren garapena indartu zen, bizi-baldintza hobek eskatzen hasi zirelako eta euren erkidegoen eraldaketarako ardatz bihurtu zirelako.

Emakumeen lana gizonen soldataren “laguntza edo osagarritzat” hartzen zenez eta, esperientzia bera izanda ere, lanpostu berberetan emakumeen ordainsaria txikiagoa zenez, argi eta garbi dago emakumeen herritartasuna beheragoko kategoriakoa zela. Lanaldi bikoitza egia eztabaia zen emakume langileentzat, eta, partaidetza sozial zein politikoaren esparrua handitzean, hirugarren lanaldiaz ere hitz egiten zen. Sindikatuek arrazoi horiek guztiak hartzen zituzten kontuan, soldaten arloko bereizkeriari buruz jendaurrean eztabaidatzean. Aldi berean, emakume herri-borrokariak mobilizatu egin ziren, eta tokian tokiko agintariak behartu zituzten hitz egitera. Hartara, zerbitzu hobek lortzeko egindako eskaerei erantzungo zieten, eta emakumeen bizi-baldintzak hobera egingo zuten.

Ordura arte, bazirudien gatazka armatuak emakumeen artean eraginik ez zuela eta biztanle zibilak oro har urraketa larririk jasaten ez zuela. Instituzioen arabera, armatuak matxinoak ziren, eta euren egintzak delitu politiko moduan zigortzen zituzten. Biztanle gehienentzat, gerrilla ez zen etsaia.

- **Bigarren unean** (hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eta laurogeiko hamarkadaren hasieran)

Turbay Ayalaren gobernuak errepresio estatala areagotu zuen. Epealdi horretan, tortura instituzionalizatu zen, eskala handiko protesta soziala kriminalizatu zen eta ezkerreko militanteen zein lider sozialen hilketen eta nahitaezko desagerpenen kate amaiezina areagotu zen. Aldi berean, narkotrafikoak finantzaturako eta tokian tokiko botere nahiz agintariak babestutako lehen egitura armatu paramilitarrak agertu ziren, indar armatuek matxinoen aurka garatutako lanaren osagarri. Segurtasun nazionalaren esparruan, oposizio politikoa jazartzen zuten zibiltatean, baita bizi-baldintza hobek eskatzen dituzten guztiak ere. Gobernuko instantziak honako termino hauek homologatzen hasi ziren: ezkerreko militantzia, aldarrikapenerako matxinatutako mugimendu sozialak.

80ko hamarkadaren erdialdean, M-19, EPL eta FARC gerrillekin hitzartutako su-etenak porrot egin zuenez, posizioak gogortu egin ziren, eta gatazka armatua are gehiago larriagotu zen. Izan ere, prozesu hori areagotu eta areagotu egin da gaur arte. Neurri handi batean, egoera hori larriagotu egin zen, “Batasun Abertzalea” gobernuaren eta eliteen helburu bihurtu zenean. Ezkerreko talde politikoen aliantza zen alderdia, gero eta babes handiagoa zeukan herritarren artean eta ia-ia sarraskitu egin zuten. Adierazpen

zapaltzaile mingarri horri “Batasun Abertzalearen genozidioa” esaten diote, eta Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordean dago auzia.

Historiaren laburpentxo hau zenbait adituk baieztatutakoaren adierazgarri da: urteen joan-etorrian areagotu eta luzatu egiten den gatazka armatuaren ondorioz, talde aurkari guztien jarduketek txarrera egiten dute. Kolonbiako kasuan, gainera, are egoera zailagoa da, elkarte mafiosoak eta nazio-mailako zein nazioarteko interes ekonomiko eta geostrategiko ahaltsuak daudelako tartean. Mary Kaldorrek adierazten duenez, astungarria da benetan oraintsuko gatazka armatuetako biktima gehienak zibil babesgabeak izatea. Joan den mendearen erdialdera arte, ordea, gerrek bat eta bederatzi arteko proportzioan zeukaten eragina zibilen artean, gerlariei dagokienez. Gaur egun, proportzio horiek alderantzikatu egin dira².

Giza eskubideen nazioarteko erakundeek nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko eskatu dute. Hala ere, Kolonbiako alderdi aurkariak ez dute bermatzen biztanle zibilak gatazka armatutik kanpo geratuko direnik. Aitzitik, denetarik erabiltzen dute etsaia jipoitzeko edo benetako edo irudizko garaipenak erakusteko: komunikabideetan informazioa manipulatzeko, jendea bahitzea eta legez kanpo atxilotzea, beste bandoak legezko ekintzak eta erakundeak judizializatzea, torturatzea, judizioz kanpoko hilketak garatzea, Estatuko eragileek nahitazeko desagerpenak garatzea, gerrillak kalte bereizgabea sortzen duten armak erabiltzea, traizioa egitea, mehatxatzea eta nahitaz lekualdatzea, besteak beste.

Ankerkeriaren erdi-erdian, gauza bera antzematen da gizon eta emakumeen artean. Biztanle zibilen aurkako ankerkeria-egintza gehienek gizonei min ematea eta emakumeei oinazea, laidoa eta izua sentiaraztea dute helburu.

Hona hemen armatuek emakumeei egindako irainen larregizko ondorioen jatorria: euren gizartean emakumeen inguruan dauden irudi kultural eta balioespenak. Horrez gain, izua sorrarazteko erabilitako jarduera militarrek ere hartu behar dira kontuan. Izan ere, zenbait kontinentetako feministek antzeman dutenez, hainbat eta hainbat gatazka armatutan errepikatzen dira, eta bada mende erdi bat horrelako ankerkeria-mailarik ikusten ez zela.

Ekintza armatu bakoitzean, etsaia jipoitzea da helburua eta bere balio kulturalak, bizitzak zein ondasunak kaltetzea, nahiz eta euretako askok arlo militarrean inolako abantailarik ematen ez duten. Horra hor emakumeen aurkako indarkeria. Argi eta garbi dago emakumeen aurkako ekintza bortitzak ez direla helburua, bitartekoa baizik. Indarkeria sexuak, batez ere, biktima iraintzea eta estigmatizatzea dute xede, baita etsaia desmoralizatzea ere, gizonen ohorearen aurkako laidoa delako. Espektrorik sinboliko patriarkalaren barruan, emakumeak, euren gorputzak eta euren sexualitatea menderatzea

² Kaldor, M. (2003): “Haz la ley y no la guerra: la aparición de la sociedad civil global”, hemen: Castells, M. eta Serra, N. (2003): *Guerra y paz en el siglo XXI. Una perspectiva europea*. Bartzelona, Kriterion TusQuets Editores.

beste batzuen aurrean nagusitasuna erakusteko modua da. Gerran, menderakuntza hori betidanik izan da jardunbide patriarkalaren adierazgarri.

Emakumeek azken aspaldion egin dituzten azterketa ugariak ageri-agerian jarri nahi dituzte gizarteko agintariak edo instantziak behin eta berriro bazterrean utzi edo isildu dituzten egitateak. Izan ere, isilik egon dira, hori guztiori salatu behar zutenean³.

Dena dela, erregistratu behar dituztenek kuantifikatu eta egiaztatu daitezkeen egitate ukigarri horiek ezkutatu edo baztertu egiten badituzte ere, egia ere bada askotan biktimen euren inolako salaketarik aurkezten ez dutela, markatuta geratuko ote diren eta erruduntzat hartuko ote dituzten beldur dira-eta. Izan ere, indarkeria sexualetan, hiltzaileak egitatea gauzatzen dutenak baino haratago doaz edo delituaren muga-mugan egitatea baztertu, desitxuratu edo ezkutatu egiten dutenak baino haratago. Askotan, badirudi familiak, erkidegoak, instituzioak eta agintariak biktimen aurka jartzen direla, eta, euren babesa eman beharrean, erruduntzat hartzen dituzte, lotsatu egiten dira eta isilik egoteko eskatzen diete.

Urraketa horien ezaugarriak eta euren ondorioak nahita dira ezezagunak. Kultura patriarkalean, emakumeen gorputzak, sexualitatea, duintasuna, autonomia eta oinazea beste balioespen-eskala batean daude, gizonen giza eskubideen aurkako beste urraketa batzuetarako zehaztutakoaren aldean.

Lege eta zientzia arloko txostenetan, indarkeria sexualak ez dira ikertzen, alde batera uzten dira edo beste delitu batzuen barruan sartzen dira; esate baterako, tortura.

Horrez gain, gatazka armatuen beste kostu batzuk daude, eta, ia-ia, ez dira inoiz biktimen eskubideen berreskurapen eta kalte-ordainerako prozesuetan kontuan hartzen. Kostu pentsaezinak direla esango dut. Izan ere, kuantifikatu egin daitezkeen arren, ez zaie emakumeen bizimoduan daukaten behar besteko esangura ematen: euren familien eta erkidegoen aurrean, emakumeek ahaleginaren ahaleginaz sendotu dituzte antolaketata-prozesuen zein lidergoen suntsipenaz ari naiz. Kolonbian, horrelako prozesu batzuk nabarmen eta era berezian egin zuten aurrera landa-sektorean. Bertan, hain zuzen ere, jatorrizko herri gehienak, erkidego afrooinordekoak eta nekazarien erkidego txiroak daude finkatuta, eta gatazka armatua bete-betean eta gehien jasaten duten biztanleak dira.

Euren jabekuntza-prozesuaren ondorioz, emakumeek gizarte osoaren onespina lortu dute, zeresan handia izan baitute euren erkidegoetako bizi-baldintza materialak hobetzeko orduan. Horrez gain, euren autonomia eta lidergoak ere indartu direnez, eraba-

³ Honako hauxe ikusi: "Gatazka armatuko indarkeria sexualari buruzko monitoreoa", CLADEM, 2007; Kolonbiako "Emakumeen eta Gatazka Armatuaren" Mahaiak egindako urteko txostenak; Gatazken Konponbide Negoziatuaren aldeko Emakumeen Ibilbide Baketsuak egindako txostenak; eta Bakearen aldeko Gizarte Zibilaren Batzar Iraunkorrak egindako txostenak, bestea beste.

ki sozial eta politikoak hartzeko lekuetara ere iritsi ahal izan dira. Horretarako, balio sakoneko eta uste sendoko ahalegin eutsia egin behar izan dute, euren kulturetan eztabai-daezinak ziren ikuspegi zein jarduketa patriarkalak alderantzikatuzko. Lorpen horiek, ordea, arrisku-faktore bihurtu dira, eragile armatu guztiek mesfidantzaz begiratzen dietelako emakumeen lidergo horiei, eta, horren ondorioz, emakumeak eurak eta euren erakundeak helburu militar bihurtu dira. Emakumeen emantzipazio-prozesuari begira, oso-oso kaltegarria izan da antolaketa-ahalegin horiek ahultzea edo suntsitzea, eta, egia esan, nekez haztaten dira.

Era berean, gerraren ondorioz, atzera egin dugu Kolonbiako emakumeen eskubide ekonomiko, sozial, zibil eta politikoak eskatzeko prozesuan. Hori dela eta, indar handiagoz sortu dira eskubideen urraketa eta bereizkeria sustatzen dituzten inguruabar eta esparruak. Erabakitze eta parte hartzeko gaitasunaren deuseztapenerako indarkeria fisiko edo psikologikoak gora egin duenez, desberdintasunak areagotu egin dira, eta emakumeek indarkeriarik gabeko bizimoduaren inguruan dituzten asmoak ez dira agerian jarri.

Gatazka armatuaren pisua itzela denez, emakumeen eskubideen inguruko eskaerak bigarren mailan geratzen dira, borroka-guneetan bizi diren emakume anonimoen txirotasuna, bakardadea eta izua, alarguntza, seme-alaben galera, lan-kargaren gehikuntza edo lekualdaketen ondorioz sortutako deserroketa ez direlako lehentasunak. Gatazka armatuaren ondorioz, emakumeak eskubidedun subjektuak izateko, gizarteak eskubide horiek aitortzeko eta Estatuak eskubideok babesteko asmoz feminismoak -urtetako lan lasai bezain hausnargarrian- lortutako aurrerakuntza guztiak atzera egin du azkar-azkar, eta atzerapen horiek kuantifikatu ezinezko kostuak dira.

• Hirugarren unea

Ostera, laburrena izan da, eta, bertan, bost talde matxino bizimodu zibilera itzultzeko prozesuak garatu dira. “Aurrerapauso partzialen eta itxaropen zapuztuen” unea da, nire ustez.

Belisario Betancourten gobernuan (laurogeiko hamarkadaren erdialdean), bake-prozesuan aurrera egiteko su-etenak porrot egin zuen. Virgilio Barcoren gobernuan, ordea, zibiltatean dirauen M-19rekin hitzartutako su-etena arrakastatsua izan zen, eta, horrez gain, oso lagungarria ere izan zen, herrialdeko gaur egungo konstituzio politikoa sortzeko orduan. Horren ostean, César Gaviriaren gobernuan ere, beste prozesu arrakastatsu batzuk garatu ziren honako talde hauekin: EPL, PRT, Berriztapen Sozialistarako Korrontea eta Quintín Lame (gerrilla indigenista). Bake-garaia nagusi zen Amerika Latinoan, Salvadorko gatazka armatua gainditu ondoren eta Guatemalako lortzekotan zegoenean. Hori dela eta, ulertzeko modukoa zen Kolonbiakoak ere behin betiko emaitzak izatea. Dena dela, nahiz eta aurrerapausoak eman eta bost talde matxino desmobilizatu, bi talde historikoen gatazka armatuak bere horretan iraun zuen: FARC eta ELN. Andrés Pastranaren gobernuan, gatazkaren erdi-erdian elkarriketarako eta negoziaketarako prozesua jarri zen abian lehenengo taldearekin. Bertan, gizarte

zibilak bete-betean parte hartu zuen, militarra ez zen eremuan egindako entzunaldien bidez. Nolanahi ere, hiru urteko ahaleginen eta elkarrekiko akusazioen ondoren, prozesuak porrot egin zuen. Bestetik, elkarriketa-guneak ireki ziren bigarrenarekin, baina oso laburrak izan ziren, eta ez ziren gorpuztu.

Epealdi horretan bertan, beste ikuspegi batetik eta gobernuaren jarreraren alde edo aurka, gizarte zibilak zenbait ahalegin egin zituen gatazka armatuaren konponbide negoziatua bilatzeko, eta emakumeen partaidetza nabaria izan zen benetan. Bakearen aldeko mugimendu horretan, era guztietako kontzepzioak eta estrategiak bateratu ziren, baina guzti-guztiek biztanle zibilak gatazka armatutik ateratzea zuten helburu nagusi. Beste batzuek hitzarmen humanitarioak lortzeko ere lan egin zuten, alderdien arteko konfiantza sortzeko eta gatazka gizatiartzeko.

Bakearen aldeko mugimenduak gobernarietara eta matxino armatuetara eskatu zuten berak esan beharrekoa entzuteko. Era berean, sekulako ahalegina ere egin zuen, gizarte osoari adieraztean elkarriketa eta negoziaketa politikoa sustatu behar zirela gerra amaitzeko eta bake-giroa sortzeko.

• Laugarren unean

Ostera, elkarriketa frustratua eta “ez omen dagoen” gatazka armatuaren jarraipena izan dira nagusi.

Gatazkaren erdi-erdian hitzartutako elkarriketak bat-batean amaitzean, frustrazio handia sortu zenez, biztanleek indarrezko proposamena onartu zuten gatazka armatuaren konponbide bakar moduan. Proposamen hori, gainera, egin egin zitekeen, AEBek laguntza ekonomiko handi-handia eman zuelako indar armatu nazionaleri. Horri esker, arma modernoak, komunikazio-bideak eta garraioa erosi ahal izan zituzten, eta armada zein polizia handitu ziren. Aldi berean, FARCEk bere hornikuntza-sareak sendotu zituen, eta gero eta kide gehiago zeuzkan.

Bakearen aldeko mugimenduak porrot egin zuen arren, gatazka armatuaren konponbide negoziatua bilatzen jarraitu zuen. Emakume feministek indarrak eta dei-ahalmena bateratu zituzten, herrialdean bakearen alde egindako martxa handiena mobilizatzeko, gaur egungo presidentearen *ad portas*.

Ahalegin horien oztopo nagusia gaur egungo gobernuaren jarrera izan da, behin eta berriro baitio gatazka armaturik ez dagoela. Horrez gain, matxinoak terroristak direla dio, eta ekintza militarrek areagotu zituen, etsaia sarraskitzeko. Hori dela eta, biztanle zibilek jasandako ondorioak inoiz ez bezalakoak izan ziren. Beste edozein ekintzaren gainetik garaipen militarrek lehenetsi direnez, instituzionaltasun estatala ahuldu egin da, legezkotasuna sakrifikatu duelako emaitzen mesedetan. Zapalkuntza estatalak zeharo urratu ditu giza eskubideak, eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren aurka joan da (NZH), politika publiko eta programen bidez biztanle zibilak gatazkan bertan

inplikatzean. Esate baterako, informazio-emaileen sarea sortu du, eta euren jarduketarik ordaintzen die. Bestetik, ekintza-familiek, familia baso-zaindarien eta nekazari soldaduek gutxieneko laguntza ekonomikoak jasotzen dituzte, baina gobernuak euren gaineko kontrol politiko zabala du. Azkenik, gobernu unibertsitateko ikasleak inplikatzen ahalegindu da, informazio-emaileenaren antzeko programaren bitartez.

Sarraski, ekintza odoltsu eta nahitaezko lekualdaketa gehien erantzuleak izan arren, Kolonbiako Autodefentsa Bateratuekin (AUC) eta beste erakunde paramilitar batzuekin abian jarritako bake-prozesuaren ondorioz, buruzagiak landa-eremu zehatz batean elkartu ziren, eta Justizia eta Bakea Legea negoziatu zen. Horri esker, indar politikoen estatusa lortu zuten, eta onura handiak zein 8 urteko gehienezko zigorrak eskaini zituzten aitortzen truke. Hasiera batean, gerlarien kopurua 30.000 ingurukoa zela baieztatu zuten buruzagi paramilitarrek eta gobernuak. Entregatutako armen kopurua desmobilizatuen kopurua baino txikiagoa izan da, eta irismen txikiak izan dira, gainera. Euren egiturek bere horretan iraun dute, eta bitarteko arduradunak ez ziren entregatu. 20 inguru buruzagi AEBetara estraditatu dituzte.

Estatuko eragileekin batera, botere handiko lurjabeek, abeltzainek, politikariek eta beste toki-botere batzuek finantzaturako paramilitarismoak giza eskubideen defendatzaileak, lider sozialak eta gobernuaren aurkariak erail zituen, eta nahitaezko desagertpenak garatu zituen. Euren biktimak milaka eta milaka dira. Euren menpeko lurraldeetan, elkarbizitza-kodeak ezarri zituzten biztanle zibilei, eta emakumeen erakundeak jazarri zituzten ankerkeria handiz. Erkidego afroinordekoak eta indigenak xaxatu zituzten, euren lurrez jabetzeko. Prozesu horri esker, egiaren zati bat ezagutu ahal izan da, eta era judizialean konprometitu dira bizimodu ekonomiko eta politikoko pertsona ezagunak, militarrek eta segurtasun nazionalaz arduratzen diren instituzioak⁴.

Bizimodu zibila erabat militarizatuta dagoenez, pertsonen bizitzako eremu intimoenetan ere badu eraginik. Emakumeen ahotsak entzundako lehenengoetakoak izan ziren, eta biztanle zibilak errespetatzeko eta gizartea ez militarizatzeko eskatu zuten. Euren mobilizazioetan, bakea eta hitzarmen humanitarioak lortzeko eskatu dute. Neskatilen eta emakume helduen aurkako indarkeria guztiak salatu dituzte, eta behin eta berriro eskatu dute neska-mutilak gerran ez inplikatzeke. Hausnarketarako prozesuak sustatu

⁴ Iturria: Kolonbiako Juristen Batzordea. María Eugenia Ramírezek horren aipamena egiten du lan honetan: "Gatazka armatuko indarkeria sexualari buruzko monitoreoa", CLADEM. Álvaro Uribe Vélez presidentearen lehen lau urteetan, talde paramilitarrek bizitzeko eskubidearen urratzaile handienak ziren artean. 2002ko uztailetik 2006ko ekainera arte, urtero talde horiek 972 lagun erail edo nahitaez desagerrarazi zituzten batez beste. 1998ko uztailetik 2002ko ekainera, urtero talde paramilitarrek 1.950 lagun erail edo nahitaez desagerrarazi zituzten batez beste. Gobernuarekin liskarrak eten egingo zituztela hitzartu zuten arren, 2002ko abenduaren 1etik 2006ko ekainaren 30era arte talde paramilitarrek 3.002 lagun erail edo nahitaez desagerrarazi zituzten gutxienez. Zenbakiak are ikaragarriagoak izan litezke, 2003tik 2005era "Jorge 40"-ren agintepean AUCeko Iparraldeko Blokeko José Pablo Díaz fronteak bakarrik honako leku hauetan 558 lagun erail zituela kontuan hartuta: Magdalenako udalerritan, Atlantikoko 17 udalerritan eta Barranquillako Industria eta Portu Baruti Berezian.

dituzte eskualde guztietan, eta biktimei lagundu diete. Kolonbiako emakumeak ez dira geldirik egon, nahiz eta euren zenbait buruzagi erail dituzten, euren erakundeak mehatxatu dituzten, euren komunikazioen jarraipena egin eta bidean atzeman dituzten eta Estatuko eragileek euren aurkako legez kanpoko ikerketak egin dituzten.

Kontraesana badirudi ere, oposizio politikoak, lider sozialek eta giza eskubideen defendatzaileek bezala, emakumeen erakundeek etengabeko mehatxupearan bizitzen ikasi behar izan dute, gertarien aldekoak direla, edozein talderi lagundu diotela edo talderen bateko jarraitzaileak direla leporatu dietelako edo bakearen aldeko lanean irmo-irmo inplikatu direlako.

Gaur egungo gobernuaren eskutik, mende berriak bi apusturen artean polarizatuta da goen gizarte hautsia dakarkigu: matxinoen desagerpen fisikoaren bidez edo baldintzarik gabeko errendizioaren bidez gerra amaitzea (gobernuak ez omen du gerra horren berri); eta, bakearen zain giza eskubideen aldeko mugimenduak proposatutakoaren arabera, gatazka armatuaren konponbide politikoa sustatzea eta bidegabekeria sozialaren faktoreak gainditzea, gatazkaren sortzaileak eta haztegia izan ziren-eta.

Horrez gain, Kolonbiako barne-gatazka armatuaren beste kostu ukiezin batzuk ere badaude. Oso esanguratsuak dira, eta, gaur egun nahiz etorkizunari begira, emakumeen bizitzaren kalterako dira. Indarkeria-adierazpideen gainetik, elkarrizketa lehenesten duten balio etiko zibilisten ahuleziak ari naiz. Hain zuzen ere, larderiak inposaketa barik, galdeketa sustatu behar da; eta, mesfidantza zein indibidualismoa barik, elkartasuna.

Balio unibertsalak dira, pertsonen duintasuna erreskatatzen dute, desberdintasunak errespetatzen dituzte eta ez dituzte desberdintasunerako faktore bihurtzen. Euren bidez, bizi-planen eraketa autonomoa bultzatzen denez, oposizioa eta interpelazioa erabili daitezke demokraziaren adierazgarri. Balio horiek, ordea, "segurtasun demokratikoa" izenean sakrifikatu dira, armen boterean baino ez delako berretsi.

Gizarte-sarea eratzeke eguneroko prozesuan, emakumeek zeresan handia izan dute elkarbizitzaren eta harreman solidarioen arloan, Horretarako, biziraupenerako estrategiak garatu dituzte zaugarritasun handiko egoeretan. Horren ondorioz, ezer egiten ez zuen Estatuaren ordezkioak izan dira batzuetan. Armadek eta gobernuko politikek emakumeek euren burua babesteko, elkarri laguntzeko eta euren bizitzak berreraitzeko erakitako sareak urratu dituzte, eta euren konfiantza nahiz elkartasuna zapuztu dituzte. Inolako zalantzarik gabe, ohiko harreman-moduak suntsitu egin direnez, oso kaltegarria izango da emakumeen bizimoduari begira, are gehiago bizi-premia horiek estaltzeko eremuak merkatura eramatea lortu zutela kontuan hartuta.

Azkenik, nabarmendu behar da nolako protagonismoa izan dezaketen eta izan behar duten emakumeek bakea zimentatzeko orduan. Izan ere, onetsi egin behar da salatzeke adorea izan dutela, biktimen alde lan egiten dutela, gatazkaren ondorioak zein diren badakitela, biktima eta giza eskubideen defendatzaile moduan erakundeak eta aliantzak

sortzen dituztela, erkidegoei laguntzen dietela, proposamenak eratzen dituztela eta bakearekiko konpromisoa dutela, egia, justizia eta kalte-ordainetarako prozesuen bitartez zigorgabetasuna gainditu dadin, besteak beste.

Irtenbideak errazak ez direla jakinda, Kolonbiako emakumeok nazioarteko elkartasunari eta, batez ere, emakumeen mugimenduei dei egiten diegu, bake hitzartua lortzeko zereginean lagundu diezaguten, adiskidantzarako aukera bakarra delako eta, lortuz gero, Kolonbiak bake-giroa erdiesteko abagunea izan lezakeelako mende honen hasieran.



Dirua desager dadin

Julieta Paredes Carvajal

Komunitatea Sortzen Emakumeen Komunitatea,
Bolivia



Sarrera

Latinoamerikako bertako feminismoa eta gaur egungo Boliviako elkarten feminismoa lekukotasun bizia gara, globalizazioan eta neoliberalismoan patriarkatua birziklatzeko prozesuaren aurka izandako borroken lekukoa. Latinoamerikan egindako borroka horiek kostu pertsonal handiak izan zituzten Latinoamerikako eta Karibeko mugimendu feministan eta taldeetan, halako neurrian non, gaur egun, turismo- eta marketin-arloko enpresek antolatzen baitituzte bilera feministak, inbertsioko kapital handiak jarrita. Gure historia, Latinoamerikako feministen historia, borroken eta porroten historia da, baina hementxe gaude berriz borrokan.

Azalpen hau hasteko, gogora ekarriko ditut laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetako emakumeen esperientzia historiko batzuk, eta funtsezkoak diren bi kontzeptu hartuko ditut, gure kontinentea eta bertan dagoen Bolivia ulertzeko egin behar den hausnarketa politikoan barneratzeko.

Lehenengo kontzeptua gobernagarritasuna da, gure kontinenteko krisi ekonomikoa, politikoa, existentziala, kulturala eta ideologikoa exorzizatu nahi izan zuen hitza, besteak beste, desilusia, nekea eta saldukeriak ekarri zituen krisia exorzizatu nahi izan zuena.

Gobernagarritasuna hitz gakoa zen, diktadurak aienatu, eta demokrazia ordezkatzaillearen besoetan utziko gintuen hitza. Ideologorik humanistek (Guell eta Lechner 2002), besteak beste, esaten zuten gobernagarritasuna zera dela erronka gisa, “gizartean

eta denboran iraunarazi daitekeen ordena kolektibo batean gizarteko aktoreek egindako eraikuntza eta giltzadura”.

Zein zen mila urteko ordena hori, aurpegiz aldatzen den –esklabismoa, feudalismoa, kapitalismoa, neoliberalismoa– baina zapalkuntzak –gizateriaren erdia eratzen dugun emakumeon zapalkuntza– birziklatzen dituen ordena hori? Patriarkatua.

Globalizazioari esker, patriarkatuak gainesplotazioaren mendean jarri zituen emakumeak, multiemakumea”¹; eta generoko zuzentasunaren eta emakumeen jabeakuntzaren itxurapean egin zuen hori. Izan ere, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak politika horiek ezarri zizkieten Latinoamerikako estatuei, nazioarteko lankidetzak Latinoamerikako gobernuz kanpoko erakundeei emandako finantziazioaren bidez. Gobernagarritasunerako politika horien ondorioz, neoliberalismo arpilatzailea jasan dugu hogeit hamar urtez.

Gure jarrera ulertzeko garrantzia duen beste kontzeptua Latinoamerikako mugimendu feministaren instituzionalizazioa da. Batetik, patriarkatuaren birziklatze-prozesua dugu, gure borroka feminista autonomoak aurrera jarraitu izan balu gertatuko ez zena; eta, bestetik, mugimendu feministaren instituzionalizazioa. Laurogeita hamarrek hamarrek erabilitako kontzeptuak dira horiek. Ildo horretan, Latinoamerikako eta Karibeko VII. Bilera erabakigarria nabarmendu behar da, orduan urak banatu egin baitziren feminista autonomoen eta feminista instituzionalen artean. Feminismo autonomoak isurialde desberdinak ditu eraikitze eta erantzuteko. Bolivia bezalako herrialdeetan egon zen, Komunitatea Sortzen Emakumeen Komunitatea bidez; edo Txilen, feminista autonomo herritarrekin eta Memoria feminista elkartearekin, besteak beste.

Latinoamerikako eta Karibeko feminista autonomoek instituzionalizazio kontzeptua hartu genuen, feminista batzuen ekintza politikoa azaltzeko, bereziki, gobernuz kanpoko erakundeetako eta alderdi politikoetako feministek politika neoliberaletan barneratzeko zegoen prozesua azaltzeko. Haiek uko egin zieten aldaketa ekar zezaketen utopiei; guk ez. Haiek generoko teknokrazia sortu zuten; guk, berriz, elkartearen feminismoa.

Handik urte batzuetara, Joan Scott estatubatuarrak instituzionalizazio hitza erabili zuen, Estatu Batuetako emakumeen eta feminismoaren historia aztertu zuenean. Emakume akademikoek emakumeen historiaz jabetzeko izandako prozesua aipatu zuen: berez mugimendu bat zen zera horretaz jabetu ziren –guk desjabetu zutela esango genuke–, eta estatu neoliberalaren aztergai edo ongintzaren xede bilakatu zuten. Harrez gero, ez da ekintzaile hitza erabiltzen, onuradun hitza baizik. Hala, beraz, galbidean doaz mobilizazioa eta kaleak, gizartean presioa egiteko bide gisa; horien ordez, negoziazioa eta

¹ Pautassi, L. (2007): “El cuidado como cuestión social: una aproximación desde un enfoque de derechos”, Santiago de Chile, CEPAL (Serie Mujer y Desarrollo, 87. zk.).

lobby-a agertzen dira. Borrokarako plataformen orde, agendak agertzen dira; eta kritikarako zorroztasun ezak eta patriarkatua eraisteko konspirazio eta mobilizazio ezak haitze hotz bat zabaltzen dute kontinente osotik.

Dirua desager dadin

“Dirua desager dadin” esatean, sorkuntza baliatu nahi dugu borroka egiteko, eraikitze-ko eta utopiak eta desirak gauzatzeko tresna gisa; gizarteko harremanen eta inguruan dugun bizitzarekiko harremanen errealitatea berreskuratu nahi dugu. Hasitako prozesu sozialen irudimena hartzen dugu, esate baterako, herri boliviarrarena. Era berean, bitartekotzak gainditzen ditugu –esate baterako, diruarena–, existentzia askotarikoetatik abiatuta, pertsonak eta herriak elkartzeko bide bat aurkitu nahian. Parekoak baina desberdinak diren lagunen –pasaporte edo nortasun-txartela gisa billete-zorroa aurkezten ez duten horien– arteko harremanek sortzen duten beldurra gainditzen dugu. Harri eta zur geratzen gara bestea aurkitzean, hau da, irudikatu ere egiten ez genuen horrengan alteritatea aurkitzean, gaur egun zentzuzkoa baita hizketakideen artean jasotzea, ikasteko modukoa den zerbait esan ahal digutelako.

“Dirua desager dadin” esatean, beste leku bat sorrarazten dugu hausnarketa egiteko. Ez dugu esan nahi dirua ez dela gehiago existitzen. Ziurrena, eraginkortasunik ez izateko edo idealismo irrigarria irudikatze susmo txarrik piztu gabe, gauza bera esateko beste modu bat haxe da: dirua birkokatze eskatzea, herrien eta pertsonen arteko eta naturarekiko harremanen ardatza berriz izan ez dadin. Dirua hor dago, eta ez diogu erabilgarritasunik kenduko truke-prozesuan, baina uko egiten diogu erroto gaur egungo praktika patriarkal eta kapitalista honi: diruari berez balioa emateari. Diruak ezin du etika ordezkatu, ezta sentimenduak edo bestearen esperientzia ere, erosotasunez geure buruari galdera hauek ez egiteagatik: Sinbolo honek –hau da, diruak– zein ekoizpen-harreman eta zein botere ordezkaten du? Diru hau zein truke-baldintzen bidez lortu zen?

Hau ez da ekonomiari buruzko txosten bat; hau Bolivian eta *Abya Yala*-n² elkarrean feminismoak egindako prozesu iraultzailearen ikuspegitik egindako txosten bat da. Alabaina, jarraibideak finkatu nahi ditugu hasieratik, zein lekutatik hitz egiten dugun eta zein ametsen atzetik goazen argitzeko.

Feminismo iraultzailearen ikuspegitik egiten dugun proposamena

Gure feminismoak ez du bultzatzen emakumeak patriarkatu kapitalistan, patriarkatu neoliberallean edo patriarkatu indigenistan sar daitezen. Feminismo iraultzaileak ez zuen sustatzen emakumeak demokrazia burgesean, kolonialismoan edo inperialismoan sar zitezen. Louis Michel, Flora Tristán, Bartolina Sisa eta Gregoria Apaza dira, besteak beste, feminismo horren alabak, bilobak, heren-ilobak edo ilobak. Gaur egun, gure

² Panama eta Kolonbiako Kuna herriak *Abya Yala* izena eman zion kontinente amerikarrari, Kristobal Kolon iritsi aurretik.

herrietako prozesuak abiaburutzat hartuta, patriarkatuaren azken semetxoa den neoliberalismoa krisialdi betean dagoela, gure proposamenak azaldu nahi ditugu, borrokarako prozesu berri bat zabaltzeko, mundu osoko zapalkuntza-sistema den patriarkatua desgiteko. Horixe da Boliviako emakumeen eta gizonen prozesua, beraren ideia on eta hutsegite guztiekin.

Hasteko, kontuan izan behar dugu, lehenagoko eskemekin, kategoriekin eta kontzeptuekin jarraitzen badugu, ezinezkoa izango dela elkarrizketa egitea, ezinezkoa ere hausnarketak eta proposamenak jasotzea; hargatik, zera argitu behar dugu:

1. Modernotasuna gertakari bat da, ez da herrien helburua, ezta zibilizazioan sartzeko eskakizuna ere. Zibilizazio hitza bera zalantzan jartzen dugu, aurrez aurre baititu barbaro, basati, atzeratu eta tradizional hitzak. Hain aurreratua al da “lehen mundua”? Jendea benetan zoriontsua al da? Natura hain ondo zainduta al dago? Herri eta estatu baketsuak al dira, gerrarik egin ez, eta beste herri batzuen lurraldeak bereganatzen ez dituztenak? Jende guztiak jasotzen al du teknologiaren eta ezagutzen onura? “Lehen mundu” horrek bermatzen al ditu bizitza eta planeta, edo “bigarren munduak” egiten al du? Modernotasuna gertakari bat izan arren, ez da gure abiaburua.
2. Herrialde inperialistek eta transnazionalak garapena hautatu zuten, ekonomia, gizartea eta teknologia (ezagutzak) harremanetan jartzeko bide gisa. Gaur egun, ikuspegi horren errealitate praktikoak argi adierazten digu eufemismoa izan zela: batzuk garatu ahal izan daitezten, gehienek zorioneko garapen iraunkorrari eutsi behar diote. Emakume pobreak eta emakume pobre indigenok gara, hain zuzen ere, garapen horri eusten gehien jardun dugunak. Garapena ez da gure helburua, ezta xede soziala ere.
3. Demokrazia eta herritartasuna 1879. urtean sortu ziren (Frantziako iraultzarekin). Sortu zirenean, eskubideak ukatu zizkieten emakumeei, eta gaur egun ere horrela jarraitzen dute, sistemak legezkotzat jotzen dituen ehunekoen eta emakumeen kontrolaren bidez. Ez da hori gure burua ordezkatzeko, auto ordezkatzeko eta politikan parte hartzeko izan nahi dugun modua.
4. Indarkeria ez dira ahulenei –eta bereziki emakumeei– egindako ekintza bakartu batzuk, nahiz eta horixe izan politika publiko patriarkaletan agertzen den ideia nagusia. Indarkeria egiturazkoa da sistema patriarkalean, sistemaren bizkarrezurra da. Hala hasi zen gizateria komunitate aurrepatriarkalak ahazten, eta, 25.000 urteko prozesuan, zapalkuntza-sistema bat eraiki zuen. Emakumeen aurkako indarkeriarekin hasi zen, eta gero harantzago hedatu zuen: herrien, familien, klaseen, sexualitateen eta arrazen arteko indarkeriara. Ezinezkoa da bakea lortzea, patriarkatuak hortxe irauten badu, eta historian barrena beraren burua birziklatzen jarraitzen badu.

5. Azkenik, lurra ez da ama zahar bat soilik, emakumeak amaren, putaren edo mo-jaren rol sexualera mugatzeko patriarkatuak erabiltzen duen bidea baita hori. Lu-rrak atsedean hartzen du, eta badago sekula ezer ekoitziko ez duen lurra, hala ere lur izaten jarraituko duena, hala nola, desertuak edo babestutako basoak. Gure ustez -elkarteetako feministen ustez-, *Pachamama*³ ez da lurra soilik, lurra *Pacha-mamarenzati* bat baita.

Gure bost proposamenak

Gure herrietan, Bolivian egiten ari garen borroketan gauza asko lortzen ari gara, neolib-eralismoarekin inola ere ezin irudika zitezkeen gauzak. Kontuak ez dira gobernuz kan-poko erakundeetako feminista instituzionalek edo alderdi neoliberalerako feministek esan ziguten bezala. Hau esan baitziguten: ametsak moztu eta adosten ikasi behar ge-nuela, ezin zela gehiago eskatu, utopia iraultzaileak ezinezkoak zirela, transnazionalak eta kapitala garaiezinak zirela, eta, azken batean, ez zela borroka askorik egin behar, haiek Beijjingen negoziatu zituzten gauza gutxi horiek arriskuan jarriko genituzkeelako.

Proposatu ditugun eta onetsi diren politika publikoen bidez, guk argi ikusten dugu, ondo antolatzen bagara, gauza asko egin daitezkeela. Hala ere, hori lehen urratsa beste-rik ez da, zapalkuntza-sistema deuseztatuko duen prozesu iraultzailean.

- Lehenengo aldarrikapena

Ez dugu eskatzen emakumeek ehuneko jakin bat izatea parte-hartzean, esaterako, %35 edo %50, gaur egun hori erabateko errealitatea baita Bolivian. Guk zera proposatzen dugu: komunitate guztietan emakume-gizon biko politiko ordezkatzaileria egotea.

Sisteman gaur egun dagoen krisia une historiko egokia da ziurtasunak eta segurtasunak alde batera uzteko, eta segurtasun eza haztatzeko –gaur egun kontu jakina da ez dagoela segurtasunik–. Egokia izango litzateke geure buruari galdetzea ea inoiz egon ote zen segurtasunik, sistema honek ez baitu bizitza ziurtatzen. Hargatik, komunitatea da pro-posamena, komunitatea *senti-logo* berri bat balitz bezala, hau da, *logo zentzu* baten gisa. Ez familia, ez enpresa edo alderdiaren zelula, ezta sindikatua ere. Gure ikuspegitik, ko-munitatea da gizartearen batasuna; nia komunitatean bizi behar da, ni izateari utzi gabe, jakina, eta subjektibotasunari eta existentziari dimentsioa eman behar zaie berriz.

Ez da gure sorburuko komunitatea, baizik eta gure xede-komunitatea, eraikiko duguna; eta langintza horretan, pertsonak ezabatu beharrean, bildu egingo ditugu, alteritate eta identitate komunetan. Gizonen eta emakumeen parte-hartze eta ordezkartza politiko-ak berdina izan behar du.

³ *Pachamama* terminoa *pacha* eta *mama* hitzek osatzen dute (kitxuaz eta aimaraz, *pacha* hitzak lurra esan nahi du, eta *mama* hitzak ama). Andeetako jainko honek “Ama Lurra” irudikatzen du, baina ez soilik lurzorua edo lur geologikoa, edota natura, baizik eta osotasun hori guztia.

- Bigarren aldarrikapena

Garapena sustatu beharrean, herrien, pertsonen eta herrialdeen artean “ondo bizitzea” proposatzen dugu. Naturarekin batera bizitzea, *Pachamamarekin*.

*Suma Qhamaña*⁴, hau da, komunitate guztiek bizitzaz goza dezaten lortzea. Horixe da hautabidea, funtsean banakotasunean oinarritutako gizarteek bultzatzen duten garapenearen aurrez aurre jartzeko. Ondo bizitzea prozesuan dagoen kontzeptua da. Eta, elkarreterako feministen ustez, komunitatea berriz kontzeptualizatu behar da, erakunde sexudun gisa hartu behar da; bertan, gorputzak, desberdinak izan arren, berdinak izango dira garrantzian, komunitatearen talde-sentimenduari eta esanahiari begira. Jakina, garapenkeriaren aldekoek azaldutako eskalak edo Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtza bezalako nazioarteko erakundeek darabiltzaten indizeak gainditu behar ditugu. Komunitateen itxaropenak biltzen dituzten utopiak marraztu behar ditugu, emakumeak sakrifikatu gabe, izen okerreaz gaizki deitutako iraultzek horixe egiten baitute.


- Hirugarren aldarrikapena

Nazioarteko erakundeek etengabe jarri dute begirada emakumeak sisteman barneratzeko moldeetan. Emakumea Garapenean izeneko ikuspegiko politiken arabera, emakumeek gudaroste bat eratzen zuten, eskulana merkatu, eta, beraz, ekoizteko kostuak kapitalaren alde jartzen zituen gudarostea. Esparru horretan, politika publikoek arreta jarri behar zuten emakumeen gaitasun jakin batzuk sustatzeko, eta, hargatik, oinarritzko eskolatzeko indizeak oso garrantzitsuak ziren. Generoa Garapenean ikuspegiak emakume eta gizonekin lan egiten du, genero-ikuspegia zeharka jartzeko, eta emakumeen egoera hobetzeko. Neoliberalismoaren eta transnazionalizazioaren beharizan baten ondorioa da, hor emakumeak, gaizki ordaindutako lan-indar gisa baliatzeaz gain, ordezkartza politikoetan ere sartzen baitituzte. Orain emakumeak baliagarriak dira sistemarentzat, krisialdi ekonomikoari irteera emateko, alde batetik, lan informala egiten dutelako, egonkortasunik gabeko eta batere gizarte-estaldurarik gabeko lana; eta, bestetik, jabe-kuntzari lotutako imaginario bat sortzen delako, alderdi neoliberaletakoak diren emakumeek parte hartzen baitute herrietako emakumeak eta gizonak zapaltzen eta kolokan uzten dituzten gobernuetan.

Nazioarteko erakundeek darabiltzaten indizeek ez dute ezer esan nahi nazioarteko ingurunean; gezurrezko kopuruak dira gehienetan. Guk ez dugu indizeekin lan egin nahi. Guk politika publikoaren metodologia erabili nahi dugu, Boliviako feminismo komunitarioak azaldu dituen ekintzako eta borrokako 5 esparruetan. Hona hemen puntu nagusiak:

⁴ Aymaraz, ondo bizitzea esan nahi du.

- Emakumeen gorputza
- Emakumeen espazioak
- Emakumeen denbora
- Emakumeen antolakuntzako mugimendua
- Emakumeen memoria



- Laugarren aldarrikapena

“Garapen bidean dauden” herrialdeekiko lankidetzak, elkartasuna eta laguntza honela ulertzen da: “gauzak dituen eta ahal duen horrek” “ezer ez daukan eta ezin duen horri” emandako laguntza. Hori ez da egia, ez baitira kontuan hartzen gure anai-arrebak eta *Pachamama* bipiltzeko eta esplotatzeko izan diren harreman historiko kolonialak eta inperialistak.

Ez da bereizketarik egin behar, alde batetik, bilketa –Europa– eta, beste aldetik, lan soziala eta politikoa –Latinoamerika– jarrita. Gure ustez, lan soziala eta politikoa bi aldeetan egin behar da, hala lankidetzan aritzen diren herrialdeetan, nola lankidetzak jasotzen dutenetan. Kolonialismoa, matxismoa, neoliberalismoa, pribilegioak, arrazakeria eta patriarkatua bezalako gaiak buruzko eztabaida Europan ere egin behar da. Lankidetzako agentziek zereginak ematen dizkigute *Abya Yala-ri*, baina guk ere zereginak aurkeztu nahi dizkiegu; adibidez: zer-nolakoak dira Europako, Estatu espainiarreko edo Euskal Herriko feministek emakume migratzaileekin dituzten harreman politikoak? Zer esan dezakegu emakumea-emakumea harremanez? Eta Europako gizonen eta emakumeen kontsumismoaz? Zer esan dezakegu emakume europarrekin ustez matxistak ez diren gizonen gure herrietakoak diren eta Europan bizi diren emakumeak prostituzioan erabiltzen dituztenean? Zer-nolako harremana

dute Espainiako gobernuz kanpoko erakundeek beren kontraparteekin? Zein dira beren kontraparteak? Ez al dira, bada, klase ertaineko emakumeak, Latinoamerikako gobernuz kanpoko erakundeen jabe diren horiek? Latinoamerikako gobernuz kanpoko erakundeek zergatik ez diote konturik ematen mugimendu feministari, adibidez, hiru urtean behin kontinentean izaten diren Latinoamerikako eta Karibeko Bilera Feministetan? Emakumeen eta mundu osoko arazoan aurrean sentikorrak diren eta lankidetzan aritzen diren Europako eta Euskal Herriko emakumeak zergatik isiltzen dira gai hauek ikustean, zergatik ez dute lan politiko eta sozialik egiten beraien herrialdeetan? Kontrol soziala eta herriei eta mugimendu sozialei kontuak emateko beharra bi aldeetan azaldu behar da.

- Bosgarren aldarrikapena

Gure herriei historian barrena kendu zaiena itzuli behar zaie, itzultze etikoa egin behar da; eta diruari kokapen berria eman behar zaio herrien arteko harremanetan. Bi alderdi horiei erreparatuta, nazioarteko lankidetzak politika birkolonizatzaile bilakatzen da.

Kritika zorrotza da, zalantzan jartzen baitu gaur egun zer den finantzatzeko modukoa. Finantziarioak ez daude gizarte-mugimenduetara bideratuta. Instituzioek eta sistemarekin kritikoak ez diren taldeek jasotzen dituzte. Botere ekonomiko eta politikoko guneetan modan dauden ikuspegiekin bat ez datozen mugimenduak bazter utzita daude, diru eta laguntza politikorik gabe. Hori kolonizazio berria da, ez baita ulertzen herri bakoitza bere ametsen jabe dela. Feministak hortxe gaude, ez baitugu duda-mudarik gabe bat egiten beste feminista batzuen estrategiekin, baina, hala ere, eskubidea baitugu gure etorkizuna idazteko eta marrazteko. Gure herriek 500 urte baino gehiago eman zuten Europari eusten, haien lanaren, aberastasun naturalen eta prezio altuko kontsumoaren bidez. Hortaz, bidezkoa da gaur egun ekarpen horiek atzera itzultzea, tartean baldintza politikorik jarri gabe.

TLGB⁵ erakundeen kasua eskandaluzkoa da. Izan ere, nazioartean modan dago feminismoak urte luzez landu dituen emakumeen identitate politikoa eta historikoa desegitea. Gaur egun, generoaren erlazio-kategoria despolitizatu da, eta *trans* kategoria jarri da haren ordez: alderdi *heteronormatiboaren* proiektzioa da hori, eta gay mugimenduak du nagusitasuna bertan. Ildo horretan, Europako lankidetzak ez luke finantziatorik emango “Miss Gay” edo “Mister Les” motatako sariketak Europan antolatzeko; aitzitik, Bolivian finantziarioa ematen du, eta Boliviako TLGB mugimenduak hori nahi duela argudiatzen du horretarako. Hala, badirudi lesbiana feministek ez dugula borrokatzen, ez dugula teorizatzen, ez ekarpenik egiten, gure herrialdean deskolonizazioaren arloan dauden prozesu politikoetan.

⁵ Transexualak, lesbianak, gayak eta bisexualak.



Ondorioak: Emakumeen giza
eskubideen aldeko agenda
politikoa



Emakumeen eskubide ekonomikoak

1. Ohiko ekonomian erabiltzen diren terminoetako askoren berrikuspena eta birkontzeptualizazioa egiteko eskaera egiten dugu, eta eredu sozioekonomiko alternatibok bilatzearen alde egiten dugu, bizitza duina bermatzeko asmoz. Berriro planteatu beharreko kontzeptuen artean, enpleguaren sinonimo legez erabilitako *lanaren* nozio mugatua nabarmendu behar dugu, bai eta *zainketaren* ikuspegi mugatua ere, sarri askotan kontzeptzio estraekonomikotik planteatzen dena.
2. Eskatzen dugu pertsonen eskubide indibidualak ez daitezela enpleguari lotuta egon. Era berean, herri administrazioei eskatzen diegu emakumeen eskubide ekonomikoen inguruan dituzten eta estaldura sozialen mantentimenduari eta hazkundera lotuta dauden obligazioak bete egingo dituztela bermatzeko eta aitortzeko.
3. Bidezkoak, orekatuak eta iraunkorrak diren produkzio, zirkulazio, banaketa eta kontsumo erak lortzearen aldeko lanean aritzeko eskaera egiten dugu, betiere, balio feministetatik abiatuta.
4. Zainketen gaia sistema sozialaren erdian kokatzeko eskaera egiten dugu, sistema horretako funtsezko eta egiturazko elementu gisa.
5. Lan guztiak modu orekatuan aitortu, baloratu eta banatzeko eskaera egiten dugu, batez ere balioa galdu dutenak, hau da, gehienbat emakumeek egiten dituzten lanak.

6. Ordaindu gabeko lanetan, batez ere etxeko lanetan eta zainketa arlokoetan, erantzukidetasuna eskatzen dugu inplikaturako agenteen artean: gizon, enpresa eta gobernuen artean, alegia.
7. Ordaindutako lanetako eskubideak oso-osorik beteko direla eskatzen dugu, eta adierazten dugu guztiz beharrezkoa dela etxeko lan ordainduak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartu behar direla.
8. Lan esparruan emakumeen aurka izaten den indarkeria bertan behera uzteko asmoz, enpresek eta estatuak duten erantzukizuna beren gain hartu dezatela eskatzen dugu, enplegu feminizatuei arreta berezia jarritz.
9. Emakumeek ura, lurra, haziak eta abar eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera izan dezatela eskatzen dugu, eta gai horien planifikazioari eta kudeaketari buruzko erabakiak hartzeko duten eskubidea bermatu dadila. Emakumeak elikagaien ekoizle gisa aintzat hartzeko eskaera egiten dugu, eta, era berean, aitortu dadila beraiek direla herriek elikadura, ekonomia, finantza eta energia arloetan duten burujabetasunaren zutabeetako bat.
10. Ekonomiari buruzko ikerketa eta ikasketa planek ikuspegi feminista gehitu dezatela eskatzen dugu, bai eta ezagutza sozialaren gainerako adarrekiko sinergiak sortu ditzatela ere.



Gatazka egoeran dauden emakumeak

1. Gerrei, gatazkei eta euren arrazoi eta ondorioei buruzko azterketa feminista eskatzen dugu, emakumeen ekintza politikorako boterea, baliabideak eta espazioak bermatuz.
2. Era berean, gatazka armatuetan emakumeek betetzen dituzten rolen aintzatespena eskatzen dugu, ez soilik biktima gisa eta bake-eraikitzaile gisa, ezpada borrokalari gisa ere, euren gizarteratzearen alde, besteak beste.
3. Segurtasunaren (nazioartekoa eta herritarren artekoa) kontzeptu hegemonikoa aldatu eta giza segurtasunaren ideiarantz joateko eskaera egiten dugu, eta, era berean, desmilitarizazioa, desarmaea, gastu militarren murrizketa eta mota guztietako armen kontrola ere eskatzen dugu.
4. Elkarrizketa politikoaren agendetan eta kode penalean feminizidioa eta zigorgabetsunaren tratamendua lehentasunez eta modu iraunkorrean sartzeko eskaera egiten dugu.
5. Emakumeen eta agenda feministen zeregin protagonista ikusarazteko eta aintzat hartzeko eskaera egiten dugu, bai eta emakumeek gatazken erregulazio baketsuko prozesuetan eta justizia sozial eta penalaren eraikuntzan izan dezaketen partaidetza efektiboa bermatzeko eskaera ere, biktimen leheneratze osoa ahalbidetuz.
6. Botere publikoei eskatzen diegu emakumeen giza eskubideen urraketatik duten erantzukizuna aitortu dezatela, berdin eskubide horiek estatuko agenteek urratu badituzte zein talde armatu edo partikularrek urratu badituzte ere, arreta berezia jarritz emakumeek gatazketan jasaten duten indarkeria sexualean. Egia, justizia eta konponketa eskatzen dugu, bai eta memoria historikoaren berreraikuntza ere, berreskuratze horretan ikuspegi feminista sartuz.
7. Emakume eta umeen salerosketaren aurkako politika eta arau juridikoak bete daitezkeen eskatzen dugu, bai eta ekintza horiek perspektiba feministadun giza eskubideen ikuspuntutik berrikustea, garatzea eta aplikatzea ere, haurren eskubideak ere beteko direla bermatuz.
8. Existitzen diren baina ikusezin bihurtu diren gatazkek aintzat hartzeko eskaera egiten dugu; esate baterako, Kolonbia, Guatemala, Honduras eta beste herrialde askotako gatazkek. Era berean, Espainiako Estatuko enpresek sorrarazten dituzten joanetorrietan gobernuak dituzten erantzukizunak aintzat hartzeko eskaera ere egiten dugu, horrek askoz ere modu biolentoagoan eragiten baitie emakumeei.



Emakumeen eragin politikoa eta herri-partaidetza

1. Hiritartasunaren kontzeptuaren birplanteamendua eskatzen dugu, generoso ikuspegitik eta ikuspuntu feministatik. Eta hori, bazterketa-dinamikak eta oinarrizko eskubideen ukapenak legezkoztat jotzen dituen hiritartasunaren gaur egungo kontzeptioari aurre egiteko, horrek oso eragin txarra baitu emakumeengan. Hiritartasun oso eta unibertsala eskatzen dugu, emakumeen autonomiaren alde egiteko eta euren eskubideak ez daitezen egon elkarbizitza, egoera zibil, lan egoera, sexualitate edo jatorri mota jakin batzuen menpe.
2. Garapenaren kontzeptuaren eraldaketa eskatzen dugu; izan ere, gaur egun desarrollismo produktibistarekin dago identifikatuta, eta, ondorioz, pertsonen bizitza eta planetarena eutsiezinak dira, eta, gainera, horrek eragin berezia dauka emakumeen bizitzan, betidanik haren gainean jarri diren rolen ondorioz.
3. Emakumeenganako edozein motako indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea oso-oso-bermatzeko eskaera egiten dugu, esparru pribatuan zein publikoan; izan ere, *sine qua non* baldintza da eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta sexualei zein ugalketa-eskubideei dagokienez.
4. Emakumeek euren gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubide osoa izateko eskaera egiten dugu, heterosexismoarekin eta heteronormatibotasunarekin kritikoa den ikuspuntutik. Emakumeon gorputzak kontrolatu nahi dituzten gobernuen politikak eta erlijio doktrinak salatzen ditugu, eta estatuen laikotasuna galdatzen dugu.

5. Migrazioen kontrolerako politiken gaur egungo ikuspuntuaren eta atzerriartasunari buruzko xedapen eta araudien eraldaketa eskatzen dugu; izan ere, emakume migra-tzaileen oinarritzko giza eskubideak urratzen dituzte eta legezkotzat jotzen dituzte ge-neroagatiko, egoera administratibo, zein jatorriagatiko bazterketak, zuzenean zein zeharka egindakoak.
6. Genero arrazoiengatik jazarrita dauden eta, edozein indarkeria motaren bitartez (bi-kote-esparruko indarkeria, komunitateko indarkeria, gatazka armatuetan izandako bortxaketak, genitalen mozketak, behartutako haurdunaldiak, behartutako esterili-zazioak, orientazio sexualean oinarritutako indarkeria, edo identitate sexual eta gene-rikoan oinarritutako indarkeria), oinarritzko eskubideak urratuta dituzten emakume-en babes eskubidearen berme osoa eskatzen dugu.
7. Eskatzen dugu emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak aintzat hartu daitezela, politika publikoei buruzko diseinurako eta erabakimenerako solaskide gisa, agenda eta denborak finkatuko dituen autonomiaren identifikaziotik abiatuta. Politika publikoek eta, batez ere, lankidetzarako politikek emakumeen jabekuntza prozesuak eta euren oinarritzko antolamenduak babestu behar dituzte, eta, gainera, eragin politikoaren trukerako eta elkarren arteko babeserako sareak eta plataformak sustatu behar dituzte.
8. Emakumeen mugimenduek eta mugimendu feministek politika publikoetan egiten dituzten eskaera eta azterketen zeharkakotasun efektiboa eskatzen dugu, garapenera-ko lankidetzarako politikak ere barne hartuz.



